


F. ARTOLA SAGARZAZU «BORDARI»

R. ARTOLA SAGARZAZU

ARITZ BERAREN ADARRAK



ARITZ BERAREN ADARRAK

AUSPOA LIBURUTEGIA
(156)

Auspoa Liburutegia
(EDITORIAL AUSPOA)

Plaza Santa María, 2 – Tolosa, Gipuzkoa
Teléfono (943) 67 12 82

FERNANDO ARTOLA SAGARZAZU «BORDARI»
RAFAEL ARTOLA SAGARZAZU

ARITZ BERAREN ADARRAK

Eleberrri labur Saria

Hondarribi uriko Udaletxeak 1977

AUSPOA LIBURUTEGIA
1982

Azala: Hondarribia, 1838, Henry Wilkinson'en grabado
batean.

© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Gipuzkoa)
Fotokonposatzalle: Okena - Lasarte
Inprimatzaille: Itxaropena, S. A. - Errikobarra kalea, 2 - Zarautz
ISBN 84-7158-098-5
Depósito Legal: S. S. 253/82
Garagarrila 1982

*Gure jaioterriari
eta Euskalerrri osoari
biotzez.*

«Ala kinkirrinera
ala zangurrunera
Aiala Lekuonakiko
jira beste aldera
San Marzial aldera»

Neska txiki pertxenta, *Nora* bere lengusiñari atzekaldea emanaz, Irun alderuntz begira jarri zaigu. Jostatzen dabilta. Eliz-atarian; pasaderan, ain xuxen. Kale nagusiko eliz-ataritik Apezpiku-kalera dijoan igarobideari deitzen diogu *pasadera* Ondarribian.

Pasadera bezelako toki gutxi umeentzat jostatzen aritzeko. Leku garbia, arrixku gabea, kale nagusi aldeko barandara igotzen ez baldin badira...; automobillak ez dute bertatik pasatzerik beintzat. Gainera, arri-koskor, ikatz edo kisu puskaz bereala bereiz ditezke txingo-txingoka ibiltzeko baztertxoak. Jauzika, bi-bikoka, kapelutxuloka edota kañikakin *putxuka* jostatzeko aukerako tokia. Kukuketan aritzeko, berriz... Pasadera, pasadera! Kaletar umeentzako txokorik maitagarriena!

Alboan Santa Maria Eliza. Eta eliz-atariak aterpetxo, euri zaparralditarako girixi goxo; ataria, gotiku egituran ezarritako arri landuz apaindua; aldamenetan tankera bereko zutabetxo bi, ederraren azalgarri.

Utz ditzagun, ordea, ederti kontuak eta gauden mutikoei begira. Ori dek ezin egona! Ariñak-arin or dabiltz elizari itzul-inguruka; pasaderatik Praxku-murrura, gero eliz-atzetik barrerna Bretxara, ta azkenean kale nagusi goitik'bera amilka bizian pasaderara.

- Berlin berlon!
- Zer eskatzen duk?
- Elizari bi buelta.

Eta an dijoa mutikoa agindua betetzera.

Goi-aldean dago eliza, katedral itxurazko, benetan ederra. Nabarmenik Ibero ospetsuaren kanpandorra, zuaitz aundi baten antzera (O arbola santua!) zut eta lerdan. Berak babesten ditu auzoko ume guztiak, oillo lokak bere txitoak bezela. Neska-mutikoak beraren inguruan dabil-tzan bitartean lasai egon oi dira beren gurasoak, amak batez ere. Etxe-leiotik begiratu bat aski, zertan ari diran jabetzeko. Amezkil-amezkiletan aurrak etxeratzean amaitzen ere dira ango ixkanbil-zaratak; ordu pare bat lenago enara-kirrikillen garraxiak. Geroxeago, auzo-katuak dira gaienduko, miau ta marramau.

Urrilla aldera bereganatzen du pasaderak guzizko jabetasuna. O, aldi bateko zizarra-usaia! Oi, oraintsu arteñoko oi bitxi aiek: Txardiña friiii!! Antxo bixi-bixia!! Gaztaña bero-beruak!

Iñauteritako ostegun-gizenez ere ementxetik aritzen ziran *piko-piko* mozorrodunak, kañaberradun arrantzale-kiñuak eginki, mutikoen pozgarri. Soka-muturrarentzat ere orra or nun dagon burni-uztai edo txingeta.

Eta emendik bertan, or Dendeta-ko kale ortantxe bizi da Joxe Mari Atondo. Ixo nadin, байна; geroxeago sartuko gera onen etxe barrura. Nun gauden esan bear dut aurrenik.

Arresi galantez erdi inguraturik dago Ondarribi-ko alderik zarrena. Murruetan nabari daude oraindik aintzina-gerratetako aztarnak. Kalle-nagusia du aparta. Ikusgarriak dira zenbait etxetako teillatu-egalak, tankeran bipil, ausartak, trentxaz xixelatuak; burni-landu sendo ugari, ola zaharretako bitxi, balkoietan. Geienez, egun eta gau, ixiltasuna da nagusi kale nagusian. Bertako auzotarrak nolakoak diran laister jakingo duzu. Goazen orain Bretxa aldera. Emendik bai ikuspegi zoragarria. Ikusten? Or aurrean amaitzen da Bidasoa ibaia; an urrutixeago, barran eskeintzen dio itxasoari menditik darraren mezua. Apar txuriz jantzita damaio itxasoak ongi-etorria, besarkatuz; lamiak lekuko, alkar loturik geldituko dira luzaroan. Kaio-aldrak ere, burutxoak zearka ta begiak erne antxinaba nun kausituko, or dabiltz ega ariñez arat-unaka, eraman-ekarki, itxuraz jostagale. Bidasoak (aspaldiko Almitxu edo Lamitxu?) kulunkulunka daragio Ondarribiari. Seaska oberik! Agian orregatik izango da ondarbitarra ain idurikor, ameslari ta jostakin. Atzekaldean da

gon Gaztelu zarreko elgorara igoko baziña, begi utsez urruneko itxas-otsaskiraño elduko ziña-ke; laño dagoenean, berriz, doi-doi Bayonako barraraño. Eta orain nerekin elizara sar bazaitetz, zeruko Ameriketaraño iritxiko zera, begiak itxita. Indi urriñetara edo joateko gogo bizia erneko zaizu. Zer dala-ta diodan? Atzo arratsaldean ikusitakoa ikusita, biotzak ematen dit. Aingeru-begiak irriparez, aitortegitik irten-berrri zetorren zorion-izpi jario, bere barnean iduki eziñezko misteri zerbaiten pozez. Terexa zen; lentxeago aipatu Joxe Mari Atondoren alaba. Moja omen dioa. Banengoen, ba, esan nuen nerekiko. Ain sotilla da izan ere, ain maratza, ain garbia. Gure aitari sarritan nion entzun: neskatxik oberenak, edo mutxurdiñ edo moja. Orrela bide da. Zergatik ote? Ez dut erantzunik emanen; galdetu egiten dut.

* * *

ATONDOTARRAK, 1940.

Loditasunean nabarmentzen da pittin bat Atondo. Jose Maria Atondo Amuaitz, erriko paperak adierazten dutenez. Ez da aundi gizen orietakoa, ez eta txiki ere; langille zintzo ta tre-bea, ori bai.

Amabi urtetan eskola utzi orduko, zurgin ikasten jarduna; gero, igeltserian; ostera, berriz zurgin. Orain, eta badaramazki iru urte, arrantzian. Arrantzian? Tira! Sukaldari gisa dabil *Ulia* arraste-txalupan. Berrogei urte beteak; geixko,

arrastero-mariñel izateko. Lan neketsua baida edozeinentzat; bere onenak emanik zituen barentzat zer esanik ez. Kubierta gaineko lan orilatze, aztun eta arrixkutsua baida txoil.

Mariñel-mariñelak zazpi, kontramaixuaren meneko; iru makina-gizon, arrantza-patroia, le-mazaia ta sukaldaria. Guzira amalau. Beraz, darentzat otorduak maneaten badu lanik aski sukaldariak. Iru egun kai barruan egon ondoren, gaur itxasoratzekoa da *Ulía* itxas-ontzia.

On askorik ez dio egiten, baina nai ta naiez arrantz-ogibideari eutsi bearra dauka Atondok. Etxekoek jango badute, beste biderik ez du. Legorrean, aspaldi ontan, legor dago gauza.

Gerra aurretik, zurgintzan zebilela, etzuen asko irabaziko; jatekoa, ordea, bazegoen ugari. Ogia ta olioá merkantxean. Etxebizitza ere, bere lur-mutur eta guzi, modu onean. Jornalari amarretik bat kentzea naikoa zen; ez orain bezela, etxe-bizitza kaxkarragoa izanik, irabaziaren erdia eman bear illero. Eta illabeteak bai azkar igarotzen dirala beargiñen etxetan. Kobratzeko, kintzena luze; ordaintzeko orduan illabetea motz. Eta ori balitz okerrena, gaitz erdi. Bear bearreneko ogia ere, beltza ta gutxi. Olioá? Ametsetan edo larrua kostata lortua; ixilka gainera; zeruko atea idekiko balizute ere ez ainbeste misterio. Ken ezazu ogia langille-etxean; xurt ezaiozu olioá etxekoandreari ttanttaka erabilarazteño... Aurak erdi goserik eta gurasoak erretxinduta, okasio-biderik ez da faltatuko. Gerra madarikatua! Ondoren gaiztoak dakarzik...

Gaixotasun aundirik eztaukan arren, bizi-modu oso garratza darama Atondok aspaldian. Etxe barnean ez dago giro. Zazpi adarreko erensuge ikaragarri batek eraso dio familiari: goseak. Zazpi seme-alaba kuttunentzat iñundik ere azkurririk lortu ezin, bearrenik zaien garaian! Ertura ortatik iragan irago bear da, gero, olako egoeran arkitzen diran aita-amen samiña zenbaitenokoa daiteken jakiteko. Ori, etxerako zerbait ekartzen emaztea saiatzen delarik. Saiatu? Eta nola! Besteren baratza bat darabil. Erdizka. Lana, berak egin; uztaren erdikina, jabearentzat. Udaberri aldean noiz nai, egunero ez esate arren, illazkiak jotzera joan oi da etxerik etxe. Norbait iltzen danean, Anttoni joango zaie ildakoa jaztera. Eta gobara berriz? Bere pamilikoenak aski ez bailitu, besteren etxetakoenak erruz. Bai, lanean saiatzen da ama ona. Txerri bat gizentzen aleginduko zen, baina zer eman jaten? Janik ez bai zen sobratzen iñungo etxetan. Baditu dozenerdi bat oillo eta oriek ere goseak. Untxitegia, berriz, konejuentzat pazkarik bildu eziñez, utsik; eder askoak idukitzen oitua zegoen, baiña. Anima salbo-ta abereak ere gizakiok, ainbat *eskubide* baidute jateko ortan. Zer eman, ordea? Ori zen garai artako kinka larria.

Esan bearra ote? Ogia da bearren bearrenik pamily pobretan. Ogirik-ezak edo umeai xurtuz eman bearrak zenbat kezkakizun ez ote die sortzen gurasoei! Zerez azi, izan ere? Eman, Anttoni-ren baratze-muturrak, etxerako ainbat ematen du aza, porru ta bestelakotik; koiperik gabe, ordea, jaki aultxoak ote diran...

Baserriko aizpari eskerrak, litro pare bat esne bedere inguratu al izaten du egunero. Estimatzekoa zen gosaritako katillu-esne beroa. Geien geien beste jatorduak zuten arduratzen ama. Eta ori, urruti joan gabe, okerrago zeude-nak arki zitezkelarik. Etzituen, bada, ikusi lengoan bat baiño geiago, platano ta kakaues-azal billaketan? Auzoko Dama Esperantxa bera ez ote zitzaion etortzen noiznai arrai-exur eskeka, txe-txe eginda oso azkurritsu zirala-ta, mese-dez, gordetzeko esanaz?

Praxku seme zarrenak ogei urte ditu. Ondoren, elkarrekiko urte biren tartez Terexa, Juan-txo ta Xinforiano, Koxme, Kandido, Xilbestre ta Luixa. Sei mutil ta bi neska. Txikiena, sei urtekoa. Azken aurreko ori urte autsian illa. Koxme, berriz, gaixo aldi bateko sukar erreak ustez buru-muñak ukitu zizkion; ezkeroztik, tentela ta erdi elbarri gelditu zaie. Zerraldo erortzen da maizetan eta norbait bear izaten du beti bere ondoan. Lan ori poliki betetzen du Terexak. Kosmetxok, ordea, ama du galdetzen betiro eta Anttonik berekin eraman oi du zelaira. Alkitxoan jarrita, antxe egoten da gaixoa girli-jario.

Mutil ernea dator Praxku. Zurgin ikasten ari duzu, aitaren gogoz kontra bada ere; berau lendik asko ikusia baizen. Sari aundirik ez diote ematen eta asarre dago mutilla. Gainera, premi gorriak ikusten ditu etxean eta, odol bizikoa denez, gurasoak badute kezkarik aski.

— Zer aterako ote zaigu mutil au?

Giltzatu-kutxatik norbaitek ogi koxkor bat

artu duela-ta (gogorra da, gero, ogia giltzapean gorde bearra) amaika mokokaldi sortzen da neba-arreben artean. Eta esaiezu amabi-amalau urteko neska-mutikoei amor eman dezatela. Toki onean! Bein baiño geiagotan ogirik gabe gelditzen da Terexa, etxeko pakeagatik. Praxkuk, alaere, ez du begi onez ikusten arreba. Santu-jale deitzen dio. Etxean badagola aurreko lanik, elizan denbora galtzeko. Oso elizkoia baida Terexa.

* * *

Itxasoratzeko eguna du gaur Atondok. Goizeko bederatzitan Pasai-ko kaiatik irtetzekoa da *Ulia*. Ondarribitik araño amasei kilometroko bide-tartea. Jaizkibel mendiaren sorkide dira bi erriak. Ondarribiko arrantz-ontziak, bajura-arrainketarako egokituak bereziki, egunean egunean kaieratzen zaizkigu maizenik. Ongitxo bestelakoa duzu arrasta-txalupetako bizikera. Askoz ere latzagoa. Atondok, komeni zaiolako edo, naiago du Pasai-ko martxa. Goizeko bostetarako jaikia, ezbaida kikili-makal ibiltzen diran oietakoa, bere pardela gertatzen ari zaigu. Meza entzutera joana da Anttoni. Negu ta uda, egunik ez dute utziko meza entzuteke Terexa ta biak; eraspnaren ederragatik, ez ala bearrez. Goize-roko elizaratzeak, animari ere egunero eman bear baizaio jaten, asko laguntzen die bizitzako ezbearrak egonarriz eraman al ditzaten. Bart arratsean gertuak, sukaldeko mai gainean dau-de aldagarri txukun garbiak: alkandora, barren-

go, musu-zapi eta abar..., baita lukainka mutur, gazta zar puzketa, piku idor, bi dozena arrautze, tipul ta baratxuri-kordak, gatz piper, kamamilla ta... Jainkoagan itxaropena. Iru astari. Ori utsik ez du jango, noski. Eguerdiko otorduetan beñe-pein eltzekari gozorik badaki egiten. Armadoreak ornitzen du jangaia, larrua utzirik *estrapeloz* erosia. Ogi izeneko zerbait oretzen dute; baita arto-taloak ere noizbeinka. Itxasoak, bere aldetik, aukeran dizkie eskeiniko arrairik obere-nak; atzeman egin bear. Itxasotik dabillenean Atondok ez du gose-bildurrik; bere tripa-zorria beratzen ahal du beintzat. Pipa artzaille amorratua izaki-ta pozik eramango luke bere tabakorazioa, baiña... kalte egiten omen dio; kalte... sakelari. Tabakoaren truk etxerako-zerbait oberik ekartzen badaki emazteak.

– Bazabiltz, gizon. Dagoaneko pardela lotu duzu? Olioa ekarri gabea dut oraindik-eta...

– Ez ekarri oliorik, Anttoni.

– Baina, Joxe Mari! Iru aste etxetik kanpo, oliorik gabe etzera joango.

– Ba, nik ez dut amabost duroko oliorik nai.

– Zuk ikusi. Osasuna galdu ezazu; obeto izango gera orduan.

– Ez da ori kontua. Premi geiago dute gure aurrak. Aspaldi ezur-gogortuak gaude gu. Bizimodu zerri au!...

– Gizona, gizona. Litrotxo bat bedere, kuti-ziak betetzeko...

– Ez eta ez! Arraia, erreta jango dut. Gaintik piper beltza edo ozpin pittin bat botata oso

goxoa gelditzen da. Ez, nik ez dut amabost duro ordaindutako olioren bearrik. Zapuztu egingo litzaidake estomaka barruan. Zerri alaenak!

– Egizu nai duzuna. Noski, aurrak bear dutela; zu zaitugu, ordea, gure laguntza bakarra. Gaixotzen bazera, zer?

– Guk eztugu goserik pasatzen, emakumea.

– Zer gerta, eramaitzazu bizpairu esne-poto bederen. Min-alditxoren baterako ongi etorko zaizkizu.

– Bai, ori bai. Aztuta nijoan ia-ia. Orain oroitzean, otarrean or egongo dira oraindik azken marealdian eraman nituenak. Txopa-giltzapean gordeta ere ezin diteke fiyatu bat. Bi ankako arratoi asko dabil gaur egunean. Txiripaz ez ote zaigu suertatuko azken txangoko mandingik? Ingles sumarino batekin topo, alajaña! Naiko kafe ta esne-poto etziguten, ba, eman ardoaren truk...

– Ara, ba; errelikia bezela gordeta daukat ekarri zenuen pixarra. Oraintxe bertan jarriko dut berotzen. Kafe bero pittin batek ez dizu kalterik egingo.

– Ez, ez. Nerbiontzako ez omen da ona...

– Auxe egoeraren trixtia! Ez ogi, ez olio, ez kafe. Gerra zikin au dela merio...

– Nik aginduko banu, elitzake bear danik faltatuko, ez... Dirurik ez omen dago. Automobillak erosteko badago, ba...

– Automobillak? Bear dira oriek ere. Gorroto, nik gerrarako atxamartai diet gorroto. Gure

errian bertan zenbat diru ez ote dira xautzen ari arresi eta kañoi-kabiak egiten. Premiazkoak dirala... Mutillak ezpalituzte eramango bedere...

– Bo! Orain ere asi zaitte, laister gure Praxku galdetuko digutela-ta...

– Nola nai duzu ez aipatzea? Txumutx-eneko mutilla bularreko miñez etxeratua omen dago. Goseak eukitzen dituzte, izan ere, ta... Ez-takit, eztakit. Emen ez datorkigu gauza onik. Baldinbetan, gure Jainkoak egingo al digu pakea. Gañontzean...

– Au ez da bizimodua.

Ontan, berebil motor-otsa etxe atarian. Jaki-ñeko iru tutuko. Berealaxe pardela artuta, muxu banakin agurtu ditu emazte-alabak.

– Ongi ibilli, Joxe Mari.

– Agur, aita; badakízu gogoan zaituguna beti.

– Bai, bai. Agur!

Beste seiak lo betean daude oraindik. Kiriki ixil bat egin die aitak irtetzerakoan. Iru astera-ko, oroitzapen gozoa eramango du. Ama-alabak, balkoira aterata, azken agurra dagiote senar eta aitari. Taxi-ko beste lagunak ere ondarbitarrak dira; ontzi berean dabiltzanak: Teófilo, arrantza-patroi ta Joxe Krux, kontramaixu; Rojelio, mekaniko bezela ta gure Atondo sukaldari. Patroiak ordaintzen du taxia. Amar aldiz geiago irabazten duenak egin dezake ainbeste.

Motor-otsa lekutu bezain laister, sukaldera ziran ama-alabak. Sua lendik piztua zegoan, eta abian berotu dute esne-pertza.

– Aitaren bizi modua ez da, ba, atsegiña.

– Zer nai dun, neska. Orren bearra zeukanan gizajoak; legorrean jornal kaxkarrak zeuden...

– Konturaturik nago, bai, aitak ekartzen dun arraiak zenbat apaintzen digun sukaldea.

– Eskerrak orri; erositakorik beñepein ez genian proatuko ere.

Esne-burruntzalikada bi ustu ditu amak Terexaren katilluan; berean bat doi-doia.

– Ama, baina! Neri ainbeste ta zuretzat...

– Etzaion ajola. Artu diñat bear aña. Andre Praxedes'en etxean eskeiniko zidatenan beti bezela.

– Noiznai baduzu zuk konponketaren bat. Katazka bizian lan ta lan aritzen zera-ta geiagian bear zenuke.

– Nork jana bazegon gurean. Laister izango dizkiñagu kontuak, ogia faltatzean. Olakorik! Umetan etzitzaigunen sekula faltatzen arto-taltoa bederik; nai aña ez orduan ere, baiña bear aña bai.

– Arritzekoa! Orrenbeste nai litzake baserri batean.

– Etzanela pentsa! Orduan ere naiko lan bazitenen baserri kaxkarretan bizitzen ziranak.

Gosaltzen asi diraneko, Praxku sukaldera, erdi billutsik. Terexaren esne-zopa katilluari illargi betearen araberako begiak zorroztu dizkio.

– Egun on!

– Jaungoikoak dizula egun on! –erantzun diote batera.

Sukalde bazterreko arraskara urbildu da zuzen zuzenean. Tutxuloa iriki-aldiko nai beste ur garbi ematen du iturriak. Len, ez aspaldi, erriko ikuztegiara edo ta errekarara joan bear izaten zuten ur-eske. Garbiaren garbiz urrezkoa dirudi ur-tutxuloak; sukalde-baxerak eta baita etxe-zoko guztiak ere txukun txukun euki oi ditu neska sotillak. Esku-beso ta lepo ondoak arretaz ikuzi ta idortu dituaneko, an dauka Praxkuk mai gainean esne-katillu aundia ta ogi puska aundia-goa, amak maitekiro eskeniak.

Onenbestez baretuko al ziran mutillaren begi neurtzalleak! Eta lanerako mantarrak jantzi bitartean, puska legorra ere gertu dio («juliana» mutur bat ogi tartean), amarrak aldera gosari-legea egin dezan. Gutxienez 1,80 bada Praxku luzeran. Bi begi eder eta zango-aztalak giartsu; 0,90 inguru bular-kaiola; ipur-masaillik badunik etzaio igartzen; (egingo zaizkio aitaren ariari jarraitzekotan). Bi esku-mutur ezurtsu, lau aza-xurten baturik ainbat lodi; gerruntze-alde sendoa. Itxuraz urdaillik ez du, baina errota-arri batek aña eioko luke, eman ezkerro. Amak badu orren berri; ez dagoanetik, ordea, ezin eman. Seme bakarra balitz! Atzetik datozen beste seiak ere ez baiditu ase-errexak.

Etxean ez da ardorik sartzen; sartu bai, baina Praxkurentzat bakarrik. Ez ta ere; amak aobusti egin bear izaten flakia sumatzean. Kuartilotoxoa bat ur-ardo jartzen dio litroko xatoan.

Egia esan, etxetik lantegira bitartean ziplatu oi du maizenik amarretakoa. Zer ote da gosea!

Erroak luzatu-ala xuspertzen, gizenagotzen landare berria. Alaxe, egunetik egunera, ari zai-gu luzatzen, azkartzen, sendotzen mutilla, al dan bestean ari zaigunik eztakigun arren. Izan ere, emango balitzaio, orrek irentsiko lukena! Esan ta guzi!

Xalus'en zurgintegia etxetik urbil dauka Praxkuk. Aldameneko Ubilla kalean. Len-len-goetako etxadia bide da itxuren alabera; pinta-garria benetan. Ikusmenean ditu gaur egun ere noizbaiteko gerrate-ondakiñak. Etxe zarkitu erdi erori bat baiño geiago, oraindik tente. Erortzear zegoan etxe oietako bat zarberriturik, bizitoki apaña egokitua dizu Xalus'ek beretzako; bi mallakoa da bizitza ta be-barruan du zurgintegia.

Begiratu batez oartuko zera ongitxo orniturik dagoena, esku-tresneriz batipat. Lau arotz-mai, neurri askotako esku-zerrak, garlopa ta arrabotak ez gutxi, truskiñak, biraberkiak, ain bearrezko estokak, martellu ta maillu, limak, ginbeletak, aizkol eta abar... Zurgin ona izatekotan, esku-tresna ongi erabiltzen bear da ikasi lenbizi. Esku-tresna ta garlopa zenbat eta menderatzallego, orduan eta makina-lanerako gaia-go. Bai, ofizioa ongi ikasi-ta ateratzen ziran Xalus'en aroztegian ibilliak. Ala-olako xuur-fama bazeukan, baiñan ikasteko etzen batere etxe txarra. Arotz-mutil eta beste, saririk gabe aritzen zireneko garaia ez da ain aspaldiko kontua.

Lan-ikaste aldera zerbait ordaintzen zuenik ere ezagutu izan dugu, eta erritik kanpo morrontzan zebiltzenak ez gutxi.

Ofizioen bat jakitea beti dela ona-ta, gurasoak aguro jarri zuten Praxku lanera; oso ernea bazen ere, etzezaioketen eskola aundiagorik eman. Amairu urtetako asi zen lanean; xirpillak biltzen, erratza pasatzen, zerrautsa montoitzen eta ardanegi-sagardotegitik edaria ekartzen. Badaramazki lau urte, ta ofizioa ikasixe dun arren, oraindiokan «au eramazak, ura ekartzak», uskeriak besterik ez dizkio egin arazten nagusiak. Lantokira eldu orduko, antxe dauka gerturik garlopa aundia; garlopa ezpada, esku-zerra; zerra ezpada, aizkora; aizkora ezpada, arotz-maillua; arotz maillua ezpada..., aitzurra!

Aizkora zurgintegi batean? Aritz-ipurdi pilla galanta an dago zoko-bazterrean, eta antxe ari bear izaten du alper-ordutan ernal-ziridun enbor gainean jarri ta zingun-zangun egurtzea egiten nagusiaren etxerako edo salketarako. Xirpilla ta zerrautsa bai, zurgai puxka txikienik artzen ez dio uzten. Bidasoak uraldi aundietan karreatzen dituen zuaitz-enbor eta arbaztei eskerrak! Bestela, eltzekoa berotzeko surik ere eluke egiterik... Xalus'ek eskeinitakoaz ez beintzat.

Eta aitzurra zertako? Nagusiaren baratzako patata eta babak jorratzeko. Langille amorratua baida Praxkuren nagusia. Lana, lana; eman beti lana Xalus-i.

— Oraingo gazteak —sarritan bere buruakin izketan aritzen da Xalus— beren soin-apainketa

beste ardurik etzeukatek. Aberats-itxurak artu, gero futbola, zinea, tabako oria ta ... lotsa gutxi. Lanari iges, al badute. Lanik gabe etzeok ezer! Makiñat egin diagu gure denboran. Eta zine askorik ikusi gabe. Zertako eman diru geiago oieki? Euren kalterako? Ikas dezatela lenbizi *txakur aundia* estimatzen!

Bere menekoentzat beti badu lana Xalus'ek; begirapenik ez. Goxotasun pittinik ez die opa. Bere gogoz igandeak ere kendu egingo lituzke:

– Kaltetako besterik balio al ditek, ba? Pelota-jokuan edo foballean jo ta ke beren buruak ondatzen, atsedean artu bearrean... Ortako al dituk Jaungoikoaren egunak?

Langillentzako lana, lana, lana. Garlopa, zerra, mallua, mallua ta atxurra, ta al balu... ostioa! Lan geiegi egiñazten edo kintzena-orduan bidezko dana ordaintzen dien ala ez, bost ajola zaio. Lan geiegiz osasuna gal dezaketela? Alla kuidaus! Itzetik-itzeko leloa du: Alla kuidaus! Orrenbeste erdera badaki. Bakarrik dagonean, len esan bezela, beti bere buruarekin izketan:

– Oraingo gazteak? Funtsik ez ditek. Busti ez busti ordukoxe, marrantak artu ditula; zirritu-aize bolada txiki bat aski dominustekuka asteko. Gixonillo petralak, alenako petralak! Gauak galtzeko ortan bakarrik iaioak.

Nunbait lertu bear-ta, amak pagatzen ditu semearen zaputz-aldiak.

– Oraintxet aspertzen asi naiz; nagusi alu orrek, zenbat lan geiago egin eta oraindik geiago eskatzen digu.

– Artzak pazientzi, seme.

– Gutxi artzen detala uste duzu? Atzo arratsaldean bertan, luzapide gabeko lana zela-ta, antxe jardun azi gindun berandu arte, ordaiñez bi baso ardo-tragoxkak. Engañatzen gaitualakoan! Ordutik kanpoko lanak ordaindu bearrak dira. Zuk ikusten dituzu? Ezta guk ere.

– Artzak pazientzi, mutil, artzak pazientzi. Egun batek ekarriko dik bestea; ofizioa ederki ikasten ari aiz beñepein.

– Jateko aña ez dut irabazten eta «artzak pazientzi». Ematen didana ere limosna-gisa ematen dit, nitaz errukiturik balego bezela. Izerdia ederki atereaz irabazia da.

– A, seme. Orrela duk mundu ontako bizitza. Supritzen ikas ezak. Noizpait bukatuko duk oraingo kinka txar au ere. Egun oberik argituko zaiguk.

– Orren esperantzetan bizi naiz aspaldian. Gainera...

– Ez didak esan bearririk; bazekiat ixilpeko zerbaitetan abillena. Kontuz ibilli, seme. Ez adi beintzat aurreragi joan.

– Amuitzak tirabiraka darabilen egurraren antzera gabiltz; ateka gaixto ontatik irtetzekotan zerbait egin bearra dago.

– Ez diat ezetz esaten. Alare, orain arte bezela gero ere batzuek goian eta besteak bean egongo gaituk. Kontuan euki ezak. Gauza asko zeudek alda ezin ditezkenak.

– Ba, aldatu bearra dago, ta nere iritzian dana alda diteke.

– Zer ote da buru bero izatea! Pentsa ezak, seme. Aza-porruak betiko modura aldatu bearko dituk, noski; buruz bera sartzen asiko baintza, erotzat artuko indukete. Jaungoikoak ezarrita-ko legeak ez ditzakegu aldatu.

–Zuk utzizu. Ez gera betiko moldetan bizi-ko; lurra irauli-ezik eztago uzta ona biltzerik. Estrukturak aldatu gabe ezdago ezer konpontze-rik.

– Motel, motel! Zer duk *estratura* edo ze...

– Egitamu bat, antolaketa bat. Esate bateko, gure ezurdura... Gu, ezurreñ gainean...

– Beazak, seme; nik etzekiat, baina ezurra ezur... Gizonari ezurdura aldatzen badiok, ez duk gizon izango. Beste zerbait aldatu bearko.

– Nik au esan nai dizut: aberatsak urratuta-ko bidetik gabiltzala orai dala millaka urtetan eta gauzak ez dijoaztela batere zuzen. Pobreak beti zapalduak gaudela, eta Xalus ta bere antze-ko guztiak gaizkille batzuk besterik ez dirala...

– Xalus? Egazti-arrapari txikia duk ori, muti. Bazegok besterik! *Estratura* edo dalakoa aldatuta ere, batzuek alki guritan exeriko dituk eta besteak nolabaitekotan. A, seme, mundu ontako bizimodua orrelakoa duk.

– Danentzako ez, noski. Gure bizimodua Andre Praxedes'en bizimoduakin alderatuko al duzu?

– Beazak. Ni nereakin konten bizi nauk. Onelakoa naiko zian Jaungoikoak neretzat.

– Jaungoikoa, beti Jaungoikoa. «Guzien asiera ta muga».

– «Ta ni naizen ezer eza».

– «Ta dedan guzia Zure esku ongilleak emana da; ala ezagutzen eta aitortzen det eta adoratzen zaitut, umiltasun eta errespeto aundienarekin»...

– Errezatzen al duk egunero?

– Egia esango dizut, ama: Bai. Jaiki orduko beti errezatzen dut zuk txikitan erakutsi zenidan otoitz uraxe bera, zer esaten dedan ezpada-kit ere.

– Deus ez baino obe duk.

Itzetik ortzera, erantzuna beti gertu dauka Praxkuk; baita amak ere. Arriturik gelditzen da mutilla askotan bere amaren jakinduriaz. Oraindik ez da oartu eskola bezain ona dala berezko zentzu jatorra. Eskola, zentzurik gabe ezertarako ez. Zentzua, eskolarik gabe, bada zerbait. A, gure guraso zaharren zuhurtasuna!

Amak onela dio berekiko:

– Au nere aita zanaren betekoa duk. Arek bezalako ateraldiak dizkik. Aitona egin-egiña.

Uste-ezik gure aurretikoen ariurria geregatzen zaigu, izan ere, ein aundi baten.

Naiko zirtolari zen Anttoni bera ere. Aitaren ezpalako, burutaldi zorrotzak eta itz-etorria bere-berezko zituen. Menderatzen zekiela jakin, orixe. Ez beti. Gaurkoan gaiñez egin bide zaio. Or asi da bere buruarekin:

– Anttoni, joan adi illazkiak jotzera ler egin arte; okitu adi lan geiegiz! Joxe Mari, segi ezak itxasoakin burrukan, ire bizia gal zorian beti!

Terexa nere, utzi ogi-zatia ire anaiak geiago jan dezan! Praxku, i lako mutil aspergaitzak bear dizkitek Xalus'ek eta bere kastakoak! Zeken alaeak!

Baiki! Gazterik asi zaigu Praxku bizitzaren berri ikasten.

* * *

Urrengoen txanda gero. Praxku ta Terexa'rekin bezela, orain Juantxo ta Xinformianorekin du eziera-katazka. Bixkiak dira. San Juan'etan beteko dituzte amalau urte, ta bein udara igarota lanean asi bearko nun edo nun. Eskola aundiago ez ematekotan, seme-alabak lenbaitlen lan zerbaiti lotzea, denik onena. Beste irten biderik eztaukate guraso beartsuak, arik eta apaiz-prailletegi edo moja-etxetan sartzen ezpadituzte. Ortarako Jainkoaren deirik ezpadute, ordea,... Bakoitzari bere joera jarraitzen bear zaio utzi.

Juantxo ta Xinformiano, a zer nolako bi! Zeiñezkorik ba ote dute, gero? Sorraldi bateko umeak berdin xamarrak izan oi dira geientsuetan gizantzez bai jitez. Gure auk beñepein alkarren peto-petoko dira. Berdiñagorik... um!

Nork bere buruari «nere anaia ote nauk» galdetzeko giñoan. Gorputzkeran, ibilleran, abotsean, luze-zabalean, oin-neurritan, denean ide-ideko. Aiurriaren aldetik, alare, alkar txoil bestelako. Bata zitalagoa, berekoiagoa bestea baiño. Amak bereizten ditu, bai. Bularra ematekoan, jaio ta urrengo illabeterako zen konturatu. Esne-zaleago zen bata; baita mañontziago ta

kakatsuago ere. Maite, zenbat maite duten alkar! Euren artean etzaizkizu sekula asarretzen; ta amak biotako edozeineri belar-ondokoren bat ematen ba dio, besteak ere negar egingo du; fiyakoa berak artu balu bezela. Iñoiz norbaitekin burrukatzekoan, alkar baturik biok batera diote erasoko. Edozertan beti bat egiten. Adimenari dagokionez, orratik, oso desberdiñak dituzu. Juantxo erne ta ikaste oneko aurra bezain buru gogor, zuntzun eta motela Xinforiano. Komunio aurreko ikastaroa egin zutenean, esate bateko, Juantxo zenuen bere mallako lenena; Xinforiano, berriz azkenetakoa. Mandaturik edo beste egitekorik agintzen bazaie, berrogei aldiz esan bear, eta egin-orduan ere beti purrustaka. Ortan berdintsuak; bi-biok ariskor xamarrak. Ume guztien kontua! Seiñale txarra litzake bestelan. Erne, aur berats eta otzanagiekin!

Ama beren gelan sartu zaieneko, maindire artean kukatu dira fixt. Anartean etzeuden geldirik, noski. Xalto, jauzi ta birako, zilipurdika arituak ziren txurikiñezko oe-gainean. Eguneroko kanta. Amar-amaika ordu oean egin ondoren, nolatan geldirik egon, anima salbo-ta bi moxal biurri aiek!

— Jaungoikoak egun on, ama!

— Baita zueki ere. Tira, aitaren egin: Aitaren eta Semearen...

Ormatik zintzillik dagon ur-bedeinkatu ontzian beatz-punttak bustita, «Gurutze Santuaren seiñaleagatik» eginazten die. Eta aldi berean goizeroko otoitza, Anttoni'ri bere amak eta one-

ri aren amonak erakutsitakoa, arestian mintzoa goratuz Praxkuk errepikatu digun uraxe:

— Nere Jaun eta Jaungoikoa, Zu zera gauza guztien asiera edo iturburua, ta guztien iraupena ta muga edo fiña, ta ni naiz nere ezereza ta dedan izate au ere Zure esku ongilleak emana da; ala ezagutzen eta aitortzen det eta adoratzen zaitut umiltasun ta errespeto aundienarekin.

— Onatx galtzamotxak eta barrengo garbiak. Bigar illaren lenengo ostirala. Eskolatik ateratzean, konpesatzera eramango zaituzte-ta jantzi orain bertan.

Bart, gauero bezela, oiñak eta lepo-kozkoak ongi igurtzi ta gero zituen oeratu. Ez arritu. Anttoniren etxeko arropak adabaki bat edo beste baliteke eukitzea, baina supiñez ongi lisaturik eta txukun egongo dira seguru aski. Anttoni da olakoxea: garbizale, apain, aratza. Eta aitorketa egitera dijoazten ezkerro, ba, dijoaztela garbi ta txukun sakramentua artzera.

Aurak ezitze garaian, amairu-amalau urte inguruko ori da arretaz zaindu bearrenekoa. Asmorik onenaz, alegiñak egin arren, uts egin ditteke. Garai ortantxe bear da ama biziki arduratu seme-alabak onbideratzen. Buztin biguna lantzen dan antzera, amak ere bere umeak zentzarratzen, onerazten bear du saiatu. Giza-legea irakasteko ez duzu ama bezelakorik. Amagandik ikasitakoak sekula ez ditu antziko ez baztertuko seme batek. Ama, ama da, ta ama bakarra izan oi dugu.

Esne-zopak jandakoan, or dijoaz biak esko-

laruntz, gabardina zaar baten gaiaz Terexak egin dizkien liburu-zorru bana galtzarbean. Iñork, etxekoek ezik, ez du berezi al izango nor dan Juantxo ta nor Xinforiano. Maixuak berak naiko lan izaten zuen asieran; eta oraindik ere noiznai da etzipetzen. Alare, galderantzunen arabera zerbait oartzen bide da; Juantxo gogo erneagoa baida. Soin-itxura aldetik beñepein elituke nortuko. Baita zera! Ona zer gertatzen zaion oraindikan ere. Biurrikeriren batengatik bietako bat zigortzen badu, sarritan merezi ez duenari leporatzen dio zigorra. Eta ez da arritze-koa; anai errugabea, erruduna salatu ordez, bera ere negarrez asten baida. Orrelakoetan maixua ezbaikor geratzen: «nor ote pekataria» bere bu-ruari galdezka. Eta zalantza askatu-ustetan erruduna ta errugabea biak batera zigortzea era-baki du. Maixuaren jokoaz oarturik, baita bixki billabak asmatu ere asmatzekoa: astindurik go-rrienak artuagatik, bere artan segitzea: ez nega-rrik egin, eutsi gogor, etsi gabe tenke.

Pentsatzen ere du maixuak:

– Ez diat zuzen jokutzen, Zer egin nezakek ordea? Datorrela Salomon. Ark ere, nik uste, nere gisa jokatu-ko likek: biak zigortu ta kito. Okerragoa ez ote errugabea bakarrik zigortzea?

Bere kezka eskola artako beste maixu lagu-nari aitortu dio-ta:

– Ori etzegok ondo. Merezi ez duena zigor-tzea...

– Merezi duena ere bai, ordea. Ortziokpa! Gainera, ze arrayo! Orrela biak geratzen dituk

konten. Merezi duana bakarrik zigortzen badiat, beste anaiak miñ aundia artzen dik, biak zigortu ez ditudalako...

— Besteren pekatua nork bere gain artze ori, ez didak esango benetako anai-maitasuna ez dani...

— Dena den, datorrela Salomon!

* * *

Terexak bitartean gosaltzen eman dio Koxmetxori. Amabi urte ditu Koxmek. Tentela duzu gixajoa. Jaio berritan osasun oneko, gaxoaldi batean burumuiñ azala puztu egin omen ziztaion eta ara, alako aur ederra bein betirako ondatua. Girli-jario, ao-zabal, begiak biotz-urragarri, ematen zaiona jan da konten. Ama bere ondoan edo etxetik dabillena ikusten badu, alako begi-ixuri pozduna nabaitzen zaio, abere soil diranak ez duten begiratze eztsua, animadunaren erraiñu berdin gabea.

Ezpain-agotsik aotu eziñik, aldiz aldiz zintzur-marraka batzuk baizik ez ditu jaurtitzen. Negar eta par bai egiten du; ernegatzen ere da bein edo beinetan. Muiñ-azaleko gaitza aski ez dularik, lur-miñ aldia egiten zaio tarteka ta lurrera jausten da zerraldo. Kankarreko ederrik artu izan du gaixoak. Kasko-kopetetan orbura-koskorrak eta ezpain-matrailletan zauri-azterna bat baiño geiago nabari zaizkio erortzean egiñak. Beti izupera, erori ez eroriko bildurrez, berak beretara ikasia baidu, iñozo dan arren, nolako miña artzen duen tankatekotan. Bere buruz

ibiltzeko gauza ez, ta amak edo Terexak soiñean badaramate, orduan pozik. Illazkiak jotzen edo baratzean diarduen bitartean, alkitxo batean exertzen du Anttonik. Beti bear du zerbait esku artean, pelota ezpada arreba txikiaren panpiña edo beste zernai txitxiribitxi. Bere anai Kandidok, itxas-bazterrean atzemandako karramarroak ekartzen dizkionean, zoratzen jarri oi da. Lindirga jario, aiei begira begira egongo zaizu ordu luzetan. Lagun on bat ere badu, arratoi-txakur polit bat: Pintto. Txakurra konturatzen bide da aurra tentela dana, eta josta-lagun ez ezik beronen begirale bilakatu da.

Badirudi aldez aurretik sumatzen duela txakurrak umeari txarraldia noiz datorkion eta, ersten zaionean, min-xaunka da asiko. Latiña ez beste guzia dakien anima gabea dezute Pintto; jostakiña, baina bear danean ortzak erakusten dakiena. Tentelak eta txakurtxoak txik ongi artzen dute biak; alkar aditzen bide dute nolabaiteko izkuntzaz. Anai-arrebak oso maitea dute Koxme; gurasoak, esan bearrik ez. Noiz beinka sortu oi diran senitarteko mokokaldiak berealako batean baretzen dira Koxmeri esker; ezin baidu eraman etxetiarren zeziorik. Ori jakiñik, ume iñozoaz kupituta, ez dira aren aurrean ain errex tximurtzen. Amari bereziki atxikia bizi da, baina aita eztauka gutxiagotzat. Au, itxasotik etxeratu bezin laister, lenbizi aurtxoagana joango da pirtxilleriren bat (xangurru-agin, txirila naiz azukre koxkorra) eskeñiaz. Etxetik kanpo kafea artzen duanero, goxakirik gabe artzen du beti, bere Kosmetxo gogoan. Berberañik ede-

rrena edo itxas-oillarrik prexkoena aurrarentzat izango da ta onek, berriz, arrai-buru aldea (amak gogoz zupatuko lukena) Pintto'ri eskeintzen dio. Eta txakur erneak, isatsari eragiñaz, eskerrak biurtzen arritzeko moduan.

Pamili tzarra azitzea gutxi bailitzaie, Koxmek ekarri die gurutzerik astunena. Ez, noski, ao bat geiago mantendu bearragatik edo bera-gandiko laguntz-itxaropen-ezagatik, iñuxente xinple bat munduratu dutelako baizik. Aurrak ez du trabarik egiten, ez orixe. Bera dute maiteena etxeko guztiak. Bestalde, sendagilleak esana, aita-amak badakite bein gizarora ezkerro, ezin bestez, ondoezak berak artaratu ta, il-bearra dala. Etzaite, bada, arritu bai gurasoak (guraso aldetik) bai Terexa ta Praxkuk (adiñera iritxiak dauden ezkerro) beren begi-ninia baino maiteago badute Koxme errukarria.

* * *

Ontara ezkerro, aurkez ditzadan beste biak; Kandido ta Luixa. Amar urtedun mutiko argia duzu Kandido; otzana ere bada. Eliza nagusiko meza-mutil dugu, Don Jose'ren laguntzalle. Ille-ro bi ogerleko ematen dizkio onek, ta gañontzeko eliz-zerbitzuagatik (eortzketa, ilkizun eta abar) beste duro pare bat etxeratzen al du. Irabazi-txanponok pozik sartuko lizkioke amak Aurrezki-Kutxako Libretan, baina guzien bearra dauka Anttonik; beso-kozkoari muxu eman eziñik bizi baizaigu. Amaika estuasunetik atera

dute gaxoa ogei pezetako oriek. Gezurra dirudi, baina egia da izan.

Bi illabete barru komunio aundia egitekoa dugu Kandido. Berak eramango du, noski, bandera; Don Jose'ren taldeko lenena beraxe da beintzat eta urteko banderaria autatzea ari dago-kionez gero... Dotriñako erantzun-galdera dandanak buruz ongi ikasiak ez ezik, beroien argibideak ere ederki ematen ditu, arritzeko moduz. Apaiz izateko gogoia sumatzen bide zaio. Aiurri oneko danez, mutikoa apaiztegira bideratu nai luke Don Jose'k.

Oraikotz badu ikastaroko kastuak ordaindu nai dizkiona. Gogo onez emango dio Anttonik bere semetxoa Jaunari. Terexa ere atsegiñetan bizi zaigu anaiaren asmoa jakin ezkeroztik:

– Nere anai bat apaiz! Ez nuke beste loteri bearrik.

Goizero bezela, elizako zeregiñak bete ondoren, orain dijoa eskolara Kandido. Aisa daramazki bere maillako ikas-lanak.

Luixa, berriz..., etxeko jostallua. Guztiok dute maite zortzi urteko neska txikia. Ain maitagarria da izan ere, ain apaina ta moñoña! Masailak gorri-gorri, begi beltxdun, losintxari, beti irripartsu, sorgintxo bat dirudi. *Colegio de San José*'ko mojetan dabil. Eskolatik irten bezin laister etxera joango da zuzenean mandaturik ote daukan amari galdezka, ta gero, beti onen baimenaz, lagunekin pasaderan jostatzerara.

Apala, serbitzaria, xintxoa, ernea, andrexko egin-egiña dugu Luisatxo.

* * *

Itzul gaitezen 1918 garren urteko egunetara. Amaitu berri zen Europa'ko lenengo gerra, anarteraño munduak bizitu izan zuenik eriogarrina. Azilla'ren amaika; goizeko bostak. Compiegne'ko ohianean, tren-bagoi itxi bat biltokitzat, pake-gunea siñatuxe dute bi aldertietako arerio bortitzak. Europa'ren zatirik aundiena illerri bat besterik ez da. «Ez beste gerrarik gaurgero!» diote guztiok biotz eta gogo batez. Zortzi illabete inguru geroxeago, 1919'ko San Pedro bezperan, Pake-itunpen izenpetzea Versailles'en. Baldintza gogorak ezartzen dizkiote Alemani garaituari; gogorregiak, gorrotoak eragiñak, batzu batzuen iritziz. Geientsuen uste-tan, aitzitik, beraxkiegi, bigunegi jokatu omen irabazleak. Dena den, berebiziko garaitza lortu du Prantziak, odolusturik gelditu dan arren. Geien bat Errusi, Inghlaterra ta Ipar-Amerika'ren laguntzari esker iritxi du, bakarrean sekula lort etzezaken garaipena. Baina, zein utsegite larria! Len Westfalian egin itunpenak aleman-erria erabat xeatuta utzi bazuen, Versailles'ko orain-goak indarberritzeko zorian utziko du, almenez eta muiñez naiko sendo, bere gaztedirik gaitz eta itxarokorrena galdu badu ere. 1920 urtea eldutakoan, beste gerra berri bat gertutzen asiko zaigu izkutuan, iruzurrez.

Aldi berean egundoko iraultza bizitu digu Errusiak. Azken aldera jasandako gerrateak (Japondarren aurka —1904— eta egun aietan bere-tan Europakoa) izugarrizko ondamenak ekarri zizkiolarik, erri-jendea guziz minduta zegoan; millaka zeuden bearrik gorrienean; goseak irri-

kiturik illak etziran gutxiago. Bat batean, Kereisky gobernutik erauzi-ta gero, langilleri-ditadura ezartzen dute gogorrean Lenin eta Trotsky'k.

Suak belardi idorrean bezela artzen dute indar Marx'en aburu-bideak. Geroztik, filosofi berri baten eragiñaz gure mundua bi sail aunditan zatikaturik bilakatuko da. Alde batetik *Kapitalismoa; Langilleri-nagusitza* bestetik. Eta sua ta ura elkarren etsai diran antzera, erruki gabeko burruka darabilkite gizartearekiko bi teori edo burutaera desberdiñok.

Azpi-lanak berea egin du arian-arian. Prantzia zearo andaturik arkitzen da. Bitartean erabat indarberriturik dager Alemania, betiko Alemani leiatsu, nekagaitza. Hitler da bertako agintari 1933 ezkerostik. Onek gobernu-zuzendaritza bereganatu bezin laister, Nazioarteko Bazkuna zapuztu-ta gudu-armaz ornitzera jarri du erri guzia. Eldu zaio noizbait «*Mein Kamph*» («Nere burruka») deitu liburuan lendik azaldu zituan ustekeriak burutu al izateko aukera. Urte bete geroago, 1934'an, Fhurer da biurtu, ots, Alemania'ko Jaun ta Jabe bakarra. Denbora asko baino len, 1936'an, Renania osoa artuko du indarrez.

1936'garrena. Espaiñiko gerratea sortu zenezko urte uraxe bera. Franco ta bere aldetiarrak ajolazko laguntza artuko zuten Hitler'gandik.

Apirillak 26. Gernikako triskantza; euskaldunen uri sakratua erabat xeaturik utzi zigun

Goering'en *Luftwaffe* ikaragarriak. 1938. Alemanak Austrian sartzen (*Anschluss*). Urte berean Sudet'en lurraldea galdetzen du Hitler'ek:

— Europa barruko lurrei buruz ez dut beste eskakizunik. Au da azkeneko nere galdea!

Eta bereala Munich'eko Itunbena, judutarren aurkako eraso ta... Txekoeslobakiaz jabetzea. Azken-eskakizuna omen. Toki onean! 1939. Espainiko gudaren amaiera; Francotiarak garaille. Zorigaitz-giro illuna edatzen-edatzen Europa'ko bazter guzietara. Zer pasa bear du emen! Ixilleko itzarmena egin dute Stalin'en Errusiak eta Hitler'en Alemaniak. Andik laister, Dantzing'go itxas-xidorra dala ta ez dala, Polonia'ri eraso Alemaniak.

Ber-bertatik Inglaterrak eta Prantziak guda azaldatzen diote Alemaniari!!! Mundu guziko bigarren gerra piztu berri da.

* * *

Bat batean, il-soiñekoz jantzitako mamu ikaragarrien antzera, odei illun beltzak zuten estali Frantzia alderen alde. Adi-adi egona zen erri guzia irratigalluen inguruan bildurik, Gobernu'ko Agintari Nagusiaren itzaldia entzuten:

— *Français!!* —Daladier'en abotsak leize-zulotik irtendakoa zirudin—. *Nous voulons la paix, mais...* (Pake-zale gera! ala ta guztiz...)

Azkenean, gudarako dei larria:

—*Aux armes, citoyens!*

Gudari zaharrak gaizki esaka ziran asi amonru bizitan:

—Ondikotz! Au ere ikusi bear genuen! Ogei urteen buruan gure semeak gerrara. Barkatu, beti barkatu! Orra ondorenak!

Gauetik goizera beren buruak gualtegian ikusi zituzten prantzetar gazteak. Ama, emazte, andregai ta arreba oroen begiak negarrez; gizonetakoek ukabil-ortzak estutuaz, beren amorroa gorde eziñik. Gogoak utsal, biotzak makal, ezertarako ahal gabe.

— Ikus arte! (*Bonne chance. Sorte on.*)

— *On les aura!!* (Garaituko ditugu!)

— Agur, agur!

1939'ren Irailla doi-doi asia.

* * *

Enbata arrotzen danean, bildurgarrizko astiñaldia artzen du Hendaya aldeko zoko-bazterrak. Ondarribiak, Jaizkibel mendiak babesten dualarik, ez ainbestekoa. Alditan, ostera, neguerrian batipat, Bixintxo-aizeak (sortaldeko aize miña) bere marrajo-ortz-agiñez zizatzen gaitueñean, ez dugu izaten giro, arraiotan!

Mugaldeko jendea bi auzo-errietako kanpai-doiñuaren baitan bizi gaituzu. Ango ta emengo ezkillak ditugu elkarren poz-negar aldi adierazle, otoiz-dei, anai-arteko giro sortzaille. Enda bereko seme geranez, (dalako muga izun ori gorabera) ezkil dun-dunari iratxirik bezela gaude bertiro. Ezkillaren asperenari mugarik ezin ezarri!

1918'ko gerra amaitu zenean, trunpeta, danbolin-txistu eta su-ziri tunpetakoak alaitu zuten Bidaso-ugara. Laister, Hendaya'ko ezkillaren dun-dunak mezu larria digu aidatuko. Kanpaiots negartia nagusituko da; jadanik, Hendaya'ko burnibidean latzgarriagoa du trenak irteeran txistua. Amaikatzok galduko dute bizia!

Batasun-bidea izan bear lukean Bidaso-ibaia zatiketarako baizik ez da aspaldian. Españiako guda amaitu berria, alkarrekin ar-eman aundirik gabe bizi dira mugaldeko erriak. Andik onara aukeran datozke; emendik ara gutxi, banaka batzuk. Esan diteke, Frantzia gudan sartu ezkeroztik frontera itxita dagola. Emengo anai-arteke gerra negargarrian iges egiñak asko daude oraindik beste aldean. Bear bezelako agiri-pa-perak ekarri ezker, nai luken edozein lasai etxeratu omen diteke. Lasai etxeratu...! Egundaño! Galbai ertsia darabilkite irabazleak. Orregatik, eta entzuten dituztenak entzunda, izu-ikaturik, aunitz lagun gelditu dira atzerrian. Oi, garaillearen legea! Oi azpiratuaren arrazoirik-eza! Emendik igesi joan gazteak eztaudeke anarteraño bezain lasai Frantzi aldean. Sarrero, mai-zegei entzuten dituzte Prantzesen aotik:

– Gutarrak il ala biziko burrukan, eta bitartean atzerrikuok gure ogi gozoa jaten. Ez dago eskubiderik! Bata ala bestea: edo frentera edo emendik alde egin dezatela!

Begiratze zorrotzak, larderia, eraman-eziña ta aierra.

Gerra-garaian errex arki zezaken batek nun

lan egiña. Bertako eta atzerritar guztien bearra izaten da iñungo eske danak ornitzeko. Beste euskaldun askorekin batera, Tarbes'ko armagintzan arkitu zuen lanbidea Kaximiro ondarbitarrak ere. Armarik artu ez, esku bat eman bai. Alare, txarki ikusiak.

Inguru-giroa gero ta txarkitzenago. Ateka gaiztoan zekusan bere burua Kaximirok. Leen, emengo gerrakoan, *Saseta* batalloiko gudari-sarjento izana genuen. Suarki, kementsu, adorez jokatu zuen beti; eta zintzoki. Etzeukan iñori kalte izan zekioken ezer egiñaren kezkarik. Alako batean, adua lagun, Espaiñol Konsuletxeak dei egin zuen, Arcachon inguruko ondartzza zabalean ondarra-joa zegoen *Cantabria* dragaontzia bir-jasotze-ekintzan bere borondatez jardun nai zuten guztiak langille-batalloietatik aske geldituko zirala aginduz. Ori jakiñik, Kaximirok:

– Ni etxera niak. Au gero ta okerrago zijoak.

Pentsatu ta egin. Illabete bete an aritu zan. Ondoren, baimenak eskatu, bete bearrak bete ta *Orraze estuatik* pasa-ta... etxera. Ondarribira. Bein etxeratu ta, aguro xamar arkitu al izan zuen lanbidea. Lagun baten bitartekotasunari esker, Xalus'ek artuko zuen bere tallerrean.

Aspaldian ez-ta 1939'ko Eguberriak etxe-koekin gozatzeko zoria izan zun. Alabaña etzun arkitu guda aurreko Olentzero girorik; ezta urrean ere! Erriko jendea kezkatu, trixtantzean, ezertako umorerik gabe. Pake-itxurako inguruan zeudelarik ere, pamili geienak estuasun la-

rripean bizi ziren. Etzuten arrazoiren faltik. Izan ere, gutxi ziran naiz atzerrian naiz espe-txean edo langille-batalloitan senitartekoren bat etzeukatenak. Errian bertan beso-geldirik asko, lanik-ezaz. Elizetan «Pakea lurrean» abestu arren, biotzetatik urrun zegoen egiazko pakea. Gabon gaba, alare, gozo bezin eztitsua zitzaion egokitu. Azken iru urtetakoak etzitun aztutze-koak, ez; gudari zebilleneko uraxe batez ere eta etxe-miñez atzerrian igarotako beste biak.

Oraingoakin nola parekatu? Aspaldian alako aparirik! Alegindu zen ama, aatik. Aza-olioa, ederki kostata azitako kapoi errea ta edaritzat Kaximirok berak ekarritako Reims'go txanpan gordin eta bizia. Kaixo, motell! Atzetik esne-arroza, turroia ta... kafe itxurako zerbait. Baina ori etzen kontuzkoa. Semea bizirik zegon beintzat eta bein Errege-eguna igarota lanean asiko zen Xalus'en aroztegian.

– Lana, lana; lanik gabe etzeok ezer, Prax-ku.

Onek, Kaximiroren ezagutza egin-ala, bete betean zabaldu zion bere gazte-biotza: nagusia-ekin burutu eziñik zebillela, ez omen zion ordaintzen lanaren arabera. Eta ori etzala bidezkoa. Bazekiala nai ta naiez lan egin bearra zeukala, baina noiz eta nola eta zer kondiziotan? Bere buruarentzat aña irabazten ez-ta erabat erretxindurik zegoela...

– Arrazoi duk, baina ze erremeio. Sufritu bearra zeukagu.

Ogei ta amar urteko gizon gordiña ta emere-

tzi urtedun gaztea, adiña gora bera, berealakoan egin ziran lagun aundi. Benetako lagun.

Beti bezela kristau zintzo jarraiturik ere, Parroki-ingurutik aldenduta zebillen Kaximiro, bertako giroaz gogaitua. Elizan sartzen zen ba-koitzean sutan jartzen zan. Zer esan nai zun orman ezarrita zegon oroitarri ark? Gerra garaian ildakoen omengarritzat jarria omen... Eta nun zeuden olako, onelako ta alakoaren izenak? Bereizte samingarriagorik! Bere lagunik jator eta maiteenak etziran agiri.

— Orduan galdu izan baintza, Kaxi —zion berekiko— or elegokek ire izenik. Zergatik ordea? Luistarra ta eliz-kantari taldeko ere baniñuken, ba!. Orduan?

Soil soillik Guadalupeko baselizatxora urbiltzen zen meza-egunetan, Praxkukin ia betiro. Zortzitako meza entzun, Engraxi-enean gosaldu, ta gero, noizko ta nolako giro, batzutan Biotznar edo Kapelu'ko arkaitzetara lanpernaketa, bestetan Artzu'ko errota aldera eskuarrantzan saiatzera. Gutxitan etxeratuko ziran otar-utsik; zabi, durdo, urta, mojoi, zarakuntza, krabarroka edo bestelakorik atzeman gabe. Eta bitartean, bazeukaten alkarrekin itz egiteko astirik; ortik lana, emendik jornala, Prantziko bizimodua nolako, gerrako gora-berak, etorkizunkezka, gizarte-arazo, askatasun-eskubide eta abar.

Gazte izanagatik ere, asko ikusia zen Kaximiro; asko ikusia ta zentzu aundikoa. Maixu ona ezpazuen arkitu, gero, Praxku jakin-gale as-

pergaitzak! Etzen batere mutil txarra. Anttoni, ordea, naiko kezkatua zebillen. Urrengo itxasibillalditik senarra etxeratu zitzaion bezin laister, jakiñean jarri zun:

– Aizu, gizon. Gure mutilla maiztxoegi ikusten dut Kaximirokin.

– Zer nai duzu, ba,? Ez al dute leku berean lan egiten?

– Ala da, baina bere adiñekoekin aterako baltiz naiago nuke.

– Ikusiko duzu. Usterik gutxienean neskatxaren batekin asiko zaigu-ta...; sasoiak ez baidu barkatzen.

– Datorren urtean, berriz, serbiziara deituko dute.

– Zorioneko serbizioa! Iñoz ez da, ba, eskapatzen.

– Ori orla da. baina...; ez mutil txarra dala-ko; politika kontuan nabarmen xamar ote dabil-llen...

– Zer nai duzu? Naiago ditut orrelakoak; ez noiznai taberna zuloan sartuta dabiltzanak. Fama oneko mutilla izandu da beti Kaximiro.

– Egia ori ere. Bere amak ez dauka saltzeko. Alare, naiago nuke bere kidekoekin ibilliko baltiz...

– Ez dio gauza txarrik erakutsiko, emakumea. Tatxarik gabeko mutilla duzu, ebanista trebea. Senar eta sui ona izango da ori ezkon-tzen baldin bada.

– Bai, bai... Zera ere... datorren San Jose

egunean degula gure Kandidoren Komunio aundia. Egun ortan gurekin bazeunde!

– Enuke besterik bear! Mare bategatik ni gabe nolapait moldatuko omen dira. Ala esan didate txalupa-lagunak. Nagusiaren baimena falta zait bakarrik. Emango dit, noski.

– Ainbeste egingo al dizu. Sekula ez diozu kale egin.

– Bai; beti ongi portatu natzaio. Emen izango naiz ezpairik gabe.

* * *

Terexa ari da Kandido'ren komunio-soñekoa gertatzen, lengusu baten serbizioko marinero-arropa txuria aprotxatuz. Arrebak erosi ere dio bere eltzetxuko txanponekin gorro-txapela, Donostiko Ponsol-enetik. Itzok ditu txingolan: *Mac-Mahon*. Besoko laxua, beste anaiak len erabilli zutena eramango du.

Konten zegon ama. Eta bazuen zergatik egon. Nolanaiko gaitasuna zeukan Terexak joskurarako! Etxekoen janzki geientsuenak berak josten zitun; arropa-konponketa guztiak ere berak; bein galtzerdiak sareztatu, urrengoan adabakiak eman, bestetan aitaren atorra zaarraz anai txikientzat alkandora berriak egin. Sor Antonia'ren jostundegian ikasitakoaz baliatzen bazekien, alafedea!

Aingerurik ez dagola esango dute gero. Zer besterik da gure Terexa? Aingerukiagorik nor beste bat? Ixilla, ixillik iñor bada, xintxo ta xa-

loa edozein ainbat, apal, etxekoi, garbi, langille, maratza. Lirain eta eder ere bada. Oi, nolako begi beltz eztitsuak! Ez, ez, eluke naiko-ta ixil ditzadan berarekiko gorespenak. Jainkoaren baitan bizi danak badu alako graziaren grazi aparta. Arimaren garbia begietatik eta gorputz-kera orotik gandixurtzen zaiolarik, zerutar argi-erraiñuak inguratzen dute lañoki, albañ-oial antzo, gazte-loretan dagon neskatilla.

Ezaguera eldu izan zitzaioneko, lenen Jau-nartzekoan ain xuxen, zion esan Jesus'i: «Zure nauzu, ta gaurtik betiko zure izango natzaizu». Eta goiz zoriontsu artako aur errugabeak bere asmoan dirau. Bein eta berriro dasaio Jaunari egunero: «Ar nazazu».

Aurtzaroko amets-uts ote? Edo ta egun sentiko izar iragankorraren argi dizdiraren pareko? Ameskeri-saretan eror ez dedin, gidari ona du Don Migel. Ongi daki onek anderekerien berri; ezagutzen ditu baita emakumezkoen barne-maratillak. Bai, begirunez eta begiratuki ta artoski darama apaiz zintzoak neskatxa Jainko-bidetan. Bein Amabirjiñak pasa-ta Zaragoza'ra dijoakigu Terexa, Rafols'darren Santa Ana serorate-gira. Nobizi-aroa asteko oraindik gaztetxo (amasei urte besterik ez baiditu) ta misiotaratzeko zaletua dagoanez, gaixo-zaintza-ikasketak egingo ditu lenbizi. Ortarako bidea Don Migel-ek berak errextu dio, andre esku-zabal baten bitartez.

— Etzekiñat, neska. Kezkatua dirudin. Zer dun, Terexa? Ez al ago ondo?

— Baita zuk igerri eman. Ezin dizut gorde

ezertxo, ama. Sei illabete azkar pasako dirala-ta, nik etxetik aldegitan lan ederra utzi bear dizudala... Ori nuen gogoan.

– Bai, maitea. Utsaldi ederra sumatuko diñat. Jaungoikoaren borondatea onartu baizik etzegokigun. Jaio intzanan une unetik Jaunari indudan eskeñi. Ni etsita natxion. Pozik, gañera. Ez adi geiegi kardabatu, Terexa. Mundu ontako bizia laburra dun. Zerua bear diñagu betirako.

– Zein ona zeran, ama. Egunero eskatzen diot Jesus'i lagun dakizun; gorde zaitzala osasuntsu. Osasuna izan ezkeru, gañontzekoak osatzen dira nola edo ala.

– Jesus'en biotza beti beso-zabalik zeukana-gu.

– Zerak... Koxmek ematen dit penik aundiena. Gaixoa! Zenbat maite nauen! Bai nik ere bera. A ze nolako lanbidea utzi bear dizudan; bakarrarentzat soberaxko. Ez al da ala?

– Lanak ez naunan izutzen. Luisatxo ere ari dun koxkortzen. Ire antzeko zetorkigunan. Gauzak datozen bezala artu bear dizkiñagu. Ostotxo bat ere ez dun mugitzen Jaunaren manuz ezpada.

– Alaxe da. Berak lagunduko digu, ama. Praxkuk ere arduraturik nauka. Etzaio begiko ni moja joatea.

– Beraxe zegonan naiko kezkatu-rik. Lanik aski bazeukan zertara jo erabaki eziñik. Koxmek ez ote lotzen bera ere? Ain din maitea!...

— Biotz onekoa da, bai. Beti zure ondoan ikusi nai ninduke. Nik, ordea...

— Begizan aurreruntz, lengoa ta oraingoa alde batera utzita. Amaigabeko otsaskiari ez diezagunan mugik ipiñi. Segi zaion ire bideari.

* * *

Urte artan, neguan negu egin zun. Kandelari aurretik orma ederrik bai, ta San Jose bitartean elurte galantik. Beti da argitsu ta alaia garizumakoan San Jose eguna, udaberri ataurrean. Aipatu urtean egun orrekin egokitu zen erriko umeen Jaun-artze Nagusia. Gutxitan gertatzen dana, etorriak ziran dagoeneko enara beltxak. Egun sentiaz batera asiak dira kale nagusia txorrotxio xamurrez alaitzen, berak ere jaialdian parte artu nai bailute bezela. Apain apain dago eliza, argi ta lorez txit apain; areago aur-uxoen apainduraz; soiñeko txuri berdiñez nexkak, mutikoak ez bezela; auek ere arima txuriz, ordea.

Etxetik urbil eliza, amak lagundu zion Kandidori bertara. Ordurako an zebillen Terexa katekesiko beste lagunekin azken antolaketetan. Gañontzeko etxetiarrak apur bat beranduxeago urbilduko ziran aitakin batean. Jauna-artze Nagusiak berekin du maitasun garbiaren urrin gozoa; egun ortako oroitzapen eztiak, (bizitzako mugarri berezitzat baidaukagu) eriotz arteraño diraute gure biotz-biotzean. Jauna'ren grazia da guzia. Zorioneko eguna!

Elizkizun ondoren eta gosalduta gero, seni-

tartekoak agurtzera joan ziran Kandido ta Tere-xa, oiturari jarraituki. Etxeko geienak ere laister ziran kaleratu. Praxku, Kaximirokin egon be-rra zeukala-ta, lagun artera; bixkiak, soiñekoak aldatuta, pelota-jokura. Atondo ere ibillalditxo bat egitera irten zan bere koñatuakin, eguerdia ekarri arteño. Anttoni ta bere aizpa gelditu dira bazkaria gertatzen. Eta Luisatxo, amaren man-datuak egiteko gertu.

Iñoiz baiño girlitsuago Koxme txikia, bere tentel-irriparez, begi sarkorrak nabarmen, Pintto alboan daukala.

Ordubatak alderako bildu zitezen jakiñean jarriak, bi koñatuak beintzat garaiz ziran etxe-ratu, Portu aldeko arrantzale giroan txuri bat-zuek edanaz ibilli-ta gero.

– Bazabiltzate. Ori mundua dabil Portu orre-tan. Jesaus! Praxku ta Kaximiro topatu ditugu Txipi-eneko tabernan. An egondu gera berrike-tan ixkira batzuek artuaz.

– Atsegiña mutilla. Gaur arte ez nian ezagu-tzen. Itxuratik artzera, asko zekik Kaximiro orrek. Gustura egondu natzaiok entzuten.

– Aizu, Anttoni. Bazkal-ondoan kafea artze-ra etortzeko esan diot. Zuk uste ezpaduzu ere, bai baidut Brasil'go kafe mordoxka apropos egun ontako gordea.

– Kafea? Usairik ez dut, ba, sumatu...

– Azkeneko itzulian ekarria dut. La Roche-le'n sartu giñaneko artan dozena potixa erosi zi-tuen patroiak, eta berak eman zidan bat. Bein proatu genuen-da, ura kafia!

– Nun duzu, ba?

– Zira tartean errelikia bezela gordea. Uste gabeko poza eman nai nizun.

– Aspaldiko gutzitzoa bete bear dut gaur, aatik! Gure Jaunak barkatu aal dit litxarrerri pekatutxoa.

– Ori ez da pekatu, ama, –ekin zion Terexak albotik, maia antolatzen ziarduela.

– Pekatua, egunero ez artzea izango da –esan ere zun Paulo koñatuak—. Ori ere gerra ondoko kalamatrika, beste asko bezela. Pake bolaratan nai aña artzen dugu, ba...

– Zer, *Vermut* bana?

– Ez, ez. Aski ditugu kanpoan artuak; bazkaria gertu badago, Praxku eldutakoan jaten asiko gera.

Aipatuaz bat, mutilla etxera. Abian, *vermut* eta olio-aranak eskeñi dizkio Terexak.

– Eskerrikasko, arrebatxo. Gaur, aatik, nik emanda artu bear dun. Etzaidan esan gustatzen etzainela.

Purga-gisa artuko bazuen ere:

– Bai! Gaurko egun ederrak merezi dik ainbeste! Arbiak loretan, Kandidokin batean Jauna artuaz denak Pazkoazkoa egin diagu-ta, bota *vermuta*!

Bixkiak ere artu zuten baso erdi bana. Jesus amenean izkutatu ziran maira ateratako olio-aranak.

Bazkari ona egun artakoa. Aurretik, salda garbia. Barbantzuak aza-oliotan, bakoitzaren-

tzat lukainka puzka banakin. Legatza xaltzan. Arkume errea, Kandidoren maidiñak (Anttoniren aizpa) baserritik ekarritako pattatta ta illar berri goxoaz ornitua. Eta azkenean *arroskoletxe* ta pastelak. Ederra bazkaria. Damurik, nai ainbat ogirik ez, ta zegoen gutxia beltza. Ardo ta sagardo, edari eskasirik etzegoen, alare. Aurrak ez beste guztiak kafea ta pattarra, ta gizonezkoak puro aundi bana. Ura zen kafea ura! Geroxeago, Kaximiro zetorkenean, aitzaki polita izango zuten berriz artzeko.

Gutxi aski zaie-ta olakoetan arrotu egiten dira gaztetxoak. Eskerrak mai ingurutik alde egin zutela. Osabak emandako txanponakin arin baño ariñago joan ziran pasaderan jostatzerara. Pake ederra eman zuten!

Xorta bat edan ezkerro, giltza ona da xurruta berriketarako, ta an ariko ziran gizonezkoak azken-gerrateko kontu zaarrak astintzen. Bitartean, ama ta Terexa elizara ziran urbildu, baxerarekikoak gerorako utzita. Etzeuzkaten aztutzeko San Jose-ren zazpi igandeak eta bedertziz-urrena. Arratsalde artan bai gogotsu abestu zutela arako: «San Jose, izan gure laguntza bizitzan eta eriotzan»

Aitak:

– Dagoeneko bukatu dira bezperak?

Terexak:

– Doi-doi asiak ziran eta ixtanpatean amaitu da guzia. Gu ez ezik naiko kolore ederrakin zeuden apaizak ere, Don Migel ez beste denak. Au beti etxekalde gelditzen da olakoetan. Jakiña,

pamili guztiak beren bazkaltiar naiko lukete-ta iñorekin txarki ez geratzeko, ba... Erregalirik ere ez du artu nai izaten.

Anttonik:

– Orixe. Bestela pozik bidali nezazkiokean gaur pattatta-illar berriak eta legatz-mutur bat bedere... Zuek segi berriketan; gu baxera egitera goaz.

Aitak:

– Baxera? Eztakit, eztakit; zure aizpa sukaldetik dabil-eta, onezkero orko lanak...

Anttonik:

– Ori ere ikusi bear genuen.

Praxkuk:

– Ikusten, ama? Elizara joatea ez da aski; etxean bada aurreko lanik.

Ontan, Koxme-ren zintzur-ots minberatia albo-gelatik. Aida baten ondoratu zaio Terexa bi pastel ta *arroskoletxe* platerakin:

– Kosmetxo, nere pottoko txikia! Aztuxe zaitut gaur. Izan ere, goiz guzian or barrena ibillia naiz, ta bazkaldu-ta gero elizara joan. Zer? Egun ona pasatzen ari zera? Bai moñoño zegoala Kandido, e? Dena txuri-txuri. Begira, maitea; orain denbora geiago izango dut-eta zuri ere egingo dizut arropa txuri polita, Kandido-rena bezelakoa. Bai?

Ulertu bailu, poz-dardaraz intzirika asi zen gaxoa. Eta anaiari une artantxe erdi-txantxetan agindu ziona egitea erabaki zuen Terexak:

– Nork daki zer gertatzen den gixajo auen

barrunbean! Izkutuzko sentipenik ez ote beren tenteltasun-itxurapean? Agian iñori adierazi eziñagatik beragatik ez ote askozago sufritzen? Bai. Biar bertatik asiko naiz. Zerbait egin nezaioke.

Au, ori ta ura, an ziarduten oraindik gure gizonok. Eta Kaximiro eldu zenean, galde ta galde ekin zioten Prantziko berri jakin gale, batipat gerrako gora beraz. Ortaz etzeukan, ordea, esateko askorik. Soillik 1914-koakin ezin zitekeala alderatu. Prantzesak berak ere *Drôle de guerre* (nolabaiteko gerra) omen zerizkioten. Izan ere, asiera artan izu ta larri, alemanen erasoari gogor egiteko oldar bizian jaikiak, orain geldi-geldirik zirauten sartaldeko gudu-tokietan. *Maginot* gotor lekuan tinkatuak, lasai ta ustekor zeuden prantzesak. Alako babes-tokirik! Etzegok ori errausi dezaken *bocherik* (alemanik). Nolako babes! Dana burni ta saltsarri, lur-azpian meazulo gisakoak alde orotara, burnibide ta guzi; kañoi aundi itxuraldatuak nunai, irrati-tresneri, armazoin, janari ta ur-bildegia, irarkol, eritegi, kaperak, jolas-biltoki ta abar eta abar. Pesta egiñez joan omen ziran gudariak, eta Eguberriak igarotzera beren etxetara etorriak ere asko omen, anartean tirorik entzun eta bota gabe.

Almeja eskutada bat bildu-aitzakiz, Hendayan egona genuen Kaximiro ixilkian. Igande osoa *Bas Quartier*-eko Etchola-baitan igarota, gauerako etxean zen berriro. Bertako seme gazteena, aspalditik Kaximiroren kontrabando-laguna, amabost eguneko baimenakin etxeraturik

zegoen, eta alaxe, aren aotik ikasi zituen Rhin aldeko berriak:

— Ba, Kaxi, ba. *Bochak* ogei metrara, erraiteko maneran. Trintxeretatik ateratuak, dantzan artzen diagu noiz nahi, bai guk bai haiek. Arteka gutako bat haien ganat; bertzetan euretako norbeit gurera; tabaka ta arnoa trukatu. Zonbait ipurt-arin anderekien potretak ikus eta erakus eta ola pasatu diagu negia. Ze nauk; bertzeak ez bezalako gerla. Yendeak ere ez dik tiroka aritze-ko enbeia handirik. Ongi pazkatuak gaituk; etxetiarrak beti gogoan alare; alabaina, Hitler zerri orrekin egaitezkek fidatu sobera. *Bochak* soldado fierrak dituk-eta, ni bildur alako batean surprisaren bat emanen ote duten...

* * *

Kaximirok:

— Ez uste, Paulo. Ango jendea emen ez bezela bizi da. An ere zakurrak oñutsik, nai baduzu, baiña emen baiño lasaitxoago langillea. Ni beintzat oso ederki ateratzen nintzan azken aldera. Emen baiño mokuu goxoagoak janaz eta emen ez bezelako egunkariak irakurriaz. Damu dut etorria. Iru urtez atzerrian aspertu ere egiten da bat, baiña, egia esateko, damaturik nago. Sekula enuke sinistuko emen ainbeste mixeri zegoanik. Ainbeste mixeri ta ixkinkeri. Oartua ezpanago! Begi gaiztoz ikusten dute askok nere egoera. Ze erru dut nik beren semeak langille-batalloitan badaude? Gerrateko zauridurak oraindik ere bi-

zi-bizirik, arrotz jende ugari... Ez; au ez da lengo Ondarribia.

Aitak:

– Prantzes biurtua ago zearo.

Kaximirok:

– Ez, ba; nere alderdi au geiago nai dut, ondarbitarra izaki-ta... An ez da emengo famili-girorik. Badira, bai, guraso onak ere, Euskal-errian batipat; neskatzak ere allarta xamarrak dira, emengoak baino buru-ariñagoak; Terexa bezelakorik gutxi, oso gutxi topatuko dituzu alderdi aietan.

Praxkuk:

– Terexa? Ze proetxu! Moja zijoak. Berekoia ori galanta! Bost ajola zaiok ama xarra ta Koxme errukarria. Emen, apaizen mendean bizi gaituk oraindik.

Anttonik:

– Beno, seme, beno. Utzitzak apaizak pakean; naiko akats zeukagu bakoitzak. Eta ama xarrak esaten ere dik, ik ainbeste aldiz aipatzen dekan askatasun berorretxen izenean nork bere bizi-bidea aukera dezakela.

Aitak:

– Ala duk, Praxku. Txori-kabiaren antza dik familiak; egan ikasi orduko, beren kabitik anka zegitek txori-kumeak; seme-alabak berdintsu. Bein azitakoan, etxetik ospa! Bere bidea aukeratu dik Terexa; etzaukagu etsia artu besterik.

Paulok:

– Guk egin genduen; lumatu ezkerro, aide.

Praxkuk:

— Ez da berdiña. On-utsa da gure arreba. Orrek duen lanerako griña ta edozertarako gaitasuna! Nik esaten dedana, ordea: doai oiek guziak zertako erabilli erbestean, zergatik eman arrotzei? Ez ote litzake obe etxekoaki ematea? Gurean premirik ez al dago? Nork zaindu bear digu Koxme gaixoa?

Negar gurak eman zion Anttoni-ri. Bat batean ama-begiak anpollatu zitzazkion. Atondok zigarro purua zain-dardaraz platera txikian zantatu zuen. Bereala oartu zen Kaximiro bere lagunak zauri bizi batean ikutu zituala gurasoak...

Kaximirok:

— Beazak, Praxku. Arrazoi duk, baiñan alde batez bakarrik. Ire arrebaren erabakian ez diat uste norberekeririk dagoanik. Elburu bikain batetik, goragoko zerbaitek zeragiok. Gere xedea zeukagu bakoitzak; norberak berea. Zail egiten zaiguk, baiñan besteren bulkoak onartzen bear diagu ikasi.

Praxkuk:

— Nik etzerizkiot txarki nere arreba moja joatea; bakarrik, bere buru-ukatze ori etxekoen onetan eskeñi bear lukeala aurrena. Buru-berotzalle batzuen kontuak dituk oriek, besterik ez.

Aitak:

— Tira, tira, edan zagun zerbeza pixkat. Iritziak iritzi, Kaximirok esan duena: bestearen burubidea errespetatzen ikasi. Eta etzak pentsa, seme, neri ere ain xamur zaidanik alaba galdu bearra.

Anttonik:

– Baina, Joxe Mari! Zer esaten duzu? Alaba galdu! Jainkoari eman, eta alaba galdu?

Aitak:

– Ara beste arrosa mistika, berriz! Bai, emakumea, zu ere moja joan baziña...

Anttonik:

– Etzazu uste! («Obe joan banintz» erantzun ia-ia.)

Alkar begiratu bat batera par-murritz ezta er-netu zitzaizen senar-emazteai. Paulo eta Eleuteri-ri berdin.

Koxme ta Luixa berekin arturik, ibiltxo bat egitera irtena zan Terexa; beraz, lasai jarrai zezaketen ildo beretik. Martxoan arratsaldeak labur, ustegabeen eldu zitzaizen illunabarra. Al-dendueran Terexa idoro etxe-atarian.

– Ongi izan, osaba! Urrenarte izeba! Agur, Ka ximiro! Orain arte, anai!

* * *

Kandido-ren egun aundia igaro ondorean, bakoitza bere aldetik: aita itxasora, aurrak eskolara ta Praxku, iñoiz baiño pentsakorrago lengo lantegira. Asmoak asmo, bigaramun bertatik asiz zen Terexa anaiarentzat soñeko txuria josten. Koxme-ren poza arrebak neurriak artu zizkionean! Eta entsegu-gisa marinero-txapela bu-ruan, komunioko laxoa besoan eta liburu-erro-sario txuriak eskuetan jarri zizkionean, berriz,

dardaraz jauzika asi zen; galtzetan *pipi* egin ere gizajoak pozarren.

– Zure maititxo naizenez, opillakin batean San Markos egunean eskeiñiko dizut, e?

Eta Kosme'k parre...

Iñoiz baiño lanpetuago zebillen Terexa. Betiko zeregiñez gain, Zaragoza-rako arrioa gertabearra. Dakigunez, andre Praxedesek oparo lagunduko zien Kandido ta bieie.

Ekarri dio jadanik maleta bete zurimenta, eta geroago ornituko amandraka, berogarri, burusi, oski ta abar. Dan-dana garaiz gertutzekotan, ordea, goiz eta arrats ari bear Terexak lanean. Eta beste ezer baino len Koxme-ren janzkia egingo zun aurrenik; lenbaitlen buka zezala agintzen baizion barrenak.

Anttoni lorietan bere alabaren ariera ikusteaz; izan ere, lilluraturik balego bezela zerabilzkin jostorraz-ariak. Orra or margolari batek irudikatzeke ikuskizuna: Terexa josten sor ta lor, dana argi; ao-xabal Koxme berari begira, ta Pintto onen oñetan etzana, guztia ulertzen bailu bezela.

* * *

Entzute aundia dute Ondarribiko Aste Santuak. Bertan ospatzen diran elizkizunak, batez ere Ostiral Santu arratsaldeko prozezioak, jendeketa gaitza erakarri oi du gure errira. Zein izkutuzko indarrez? Ikusle ariñak ez dio ezer apartekorik arkituko. Beste ingurukoetan bade-

zazke idoro zur-lanezko santu-iduri bikañagorik, jantzi eder aberatsagorik eta edozelako apaingarri baliosoagorik. A, baiñan gure prozezio onek duen berezitasuna! Emengo gureari darrion xarmadura! Ikuskari biotz-erdiragarria benetan!

Ostegun goizeko elizkizuna amaitu bezin laister, ondartza inguruan alkartzekoak ziran Praxku ta Kaximiro, bezperan izketatu arabera.

– Biar eguardi aldean almejatara joan bear diagu.

– Etzi, bijili-eguna duk...; gure amak an zeukak dagoaneko sukaldean *juliana* aundia beratzen.

– Almeja ale batzuek etziotek kalterik egingo xaltxa berdeari. Gaiñera, badakik...

– Bai. Ur-ertzean ibiltzea komeni zaigula *momorruak* (karabineruak) ortara oitutzeko, era datorrenean arrotzat ar ez gaitzaten...

– Ori dek! Gainxuritzen jakin bear dik battek; maltzurkeriz jokutzen. Alako batean Etchola Baita-ra joatekoak gaituk-eta...

– Irritu-ta niok, motel.

* * *

Ogeitabost egunen buruan itzulia dugu itxasotik Joxe Mari, egundoko arrantza eginda gero. Bazeukan kontatzeko zerbait:

– Bein, gure txalupatik ogei bat metrotara sumarino aundi bat etzitzaigun atera, ba? Ura ikara! Oraingo au alemana. Aitaren egin orduko

or irten dira dozena erdi bat gizon kubiartara beren metralletak gugana zuzenduaz:

– *Heil Hitler! Spanischen erschien...* Nork entenditu aien erdera zakarra? Keiñuak egiñaz nolapait aditu genien alkarri.

– Nungoak zerate?

– *San Sebastián. Komandantzia San Sebastián.*

Berealako batean or ateratzen da sagaletik denen buru egiten zuena, gizaseme lerdan, bekoki-illun bat, eta gaztelani gaiztoz!

– Nor da patroia?

– *¿Qué dices? San Sebastián. Somos San Sebastián. Vascos.*

– Patroya, nor da patroya?

– Ni, jauna! –Tiopilok.

– Zer zerate? Germanofiloak?

– Ez, jauna, ez.

– Frankofiloak?

– Ez, jauna, ez!

– Zer zera orduan?

– Ni, Teófilo, jauna!

Aren algarak! Pekin'en ere entzun ziran. Orduantxe giñan lasaitu pittin bat.

– Ez izutu, ez izutu. Dozena arrai-kaja eman bear dizkiguzute. Ez gera itxas-lapurrak. Gure erriaren eskubideak galdetzen ditugu; besterik ez. Gu garaituko gera, ziur egon.

Arrai-kaxak ez ezik bi ardo-garrafoi ta bi koñak-botil eman genizkien. Baita aiek ongi or-

daindu; guri galtzairuzko esku-erramienta batzuk eta margarina-lata pilla bat eman ziguten; Tiopilori, berriz... «*Tú, germanófilo*, deitzen zio-la, primerako katalejuak, gomazko baloi gorri aundia ta zinta urdin bat itz okin: *stahlhem-W-39*. «*Heil Hitler*» oiuka agurtu ziguten, eta sumarinoa berealaxe urpean zen murgildu.

* * *

Aita itxasora zijoakien egun berean jantzi zuten Koxme marinera-txuriz. Aurraren poza! Iñundik, ordea, Kandido ere bera zegon bezala ikusi nai jantzita. Etzen asko eskatzea-eta, poz ori ez ukatzeagatik, egun bat aurreratu zuten komunio-erretratoa Irun'en ateratzea. Sekula ez ainbesteko adimen-argiz edo jabeturik zirudin Koxme txikiak; iñoiz ez bezela bere baitaratua; girlia ere gelditu egin zitzaion eta.

Bai atsegin zela danentzat aurra ain alaitsu ikustea! Bat batean buruak emanda, Kaximiro-rengana jo zuen Praxkuk aintxintxika: Bost minutuko lana zela-ta Koxmeri argazki bat egitera urbil zedilla, mesedez. Frantzitik ekarritako «Kodak» bikaina baizeukan lagunak. Argazki bi nai ta naiez eskatzen Koxmek. Bata lazo ta erro-sarioakin, liburu ta guzi; bestea, aitag erregalatu zion baloi gorriakin. Bigarren au ateratzekoan, Pintto, erneagotu bailitz bezela, aurtxoaren alboan zen jarri, burua ttente, mingaña kanpo, begitxoak dir-dirka.

Eguzki-argiaz baliatzen zela, lan polita irten zitzaion Kaximirori. Polita argazkia: etxeko bal-

koian, exer-leku apain batean jarria, dana irripar eta alaitasun, zoragarri zegoen gure Kosmetxo. Etxe artakoen poza!

– Opil egunean jantziko duzu berriz, e? Eta gero Korpus-egunean.

Mutikoa etzen geiegi jabetzen, bainan bai onetsi begiratze ezti-eztiaz Terexak ziona.

Gogorra gertatu zitzaien andik egun gutxitara. San Markos bezperan ain xuxen. Egun orretan esku-erakutsi atsegiña opatzen die beren besotakoai maidiñak, bakoitzari opil gozo bana, bi, lau, edo sei arrautze gogor gorrixkakin apaindua.

Koxmeren maidiña zen aldetik, sei arrautzeko opil ederra eskeñi zion Terexak; urte artan beinere baino gogoetatsuago eskeñi ere; bein moja joandakoan ez bailezaioken egin geroz geiago.

Danetan aundi ta ederren bereari iritzirik, lilluratuta gelditu zen gure umea, xoraturik. Bertantxe, bere begi loreak eztizko irriparrez arrebarengana biurtuz, izketan etzekienak oi ez-bezelako zintzur-otsaz, «Eees... ke-rri-kasko» aotu zun ozenki, eta bat batean ilda geratu.

– Ama, ama! Koxme, Koxme! –Ura zorabioa Terexarena!– Praxku! Aita! Il egin zaigu! Aita, zu itxasoan, eta Koxme il!

Lipar batean agertu zan Anttoni, bainan alperrik. Zoritxarrez, obeto esan, zorionez, orduko illotz zegon. Jaunaren naiera etsitzen zekian arren, amatasun-sena zitzaion gainditu, eta amak bakar-bakarrik senti dezaketen maitasun-

dolamenez laztandu zun besarkada estuaz bere semetxo kuttunetan kuttunena.

— Joan zaigu, —zion erdi zoraturik— joan zaigu betiko! Gure aingerua zerura joan zaigu, Joxe Mari!

Penik aundiena, senarrak ez ikusi izanak ematen zion. Laister eldu zen Praxku ere, ta... Mutil gazterik ikusi al dezute sekula negarrez urtutzen? Ba, ona emen bat; begira zaiozue. Garerdi-garerdian dagon mutil zakaila atsekabearen atsekabez dena negar eta zoro antzo: «Nik il dut, nik il dut!» oiuka... Gizajoa!

— Nil il diñat, Terexa, nik il diñat. Atzo bertan esaten nionan Kaximirori, Koxmek lotzen nindunala etxetik alde ez egiteko, ta adu gaiztoak entzun egin zidan.

— Etzak orrelakorik esan. Jaunak nai izan dik orla gertatzea.

Orra orain oñazearen mendean irurok, buruak apal, besoak uztartuta, unetik unera zinkurinka.

— Zorionean dago, ama.

— Bai, zeruan zegonan. Gure aingerua! Egin bedi, Jauna, zure borondatea...; bainan aita etorri artean ez naun lasaituko...

Opil-egunez orra etxeko maiteena marinera-jantzi txuriakin il-kutxan etzana. Ulergaitz bazaigu ere, eziñ ukatuzkoa: «Jaiotzak eriotza zor». Norbaiten il-berria egitekoan, onela gazti-gatzen digute mandatariak gure errian:

— Olakoak edo alakoak Jaungoikoari kontua eman dio.

Konturik eman bear gabe il al izatea ez ote naigarri kristau-ikuspegitik begiratu ezkerok? Aur jaio, aur bezela bizi, ta aur-aingeru iltzeak ez ote du pekatari geranontzat mezuren bat? Bizi guzian baitara eltzeke, jaiotz uneko izape-nean beti, biotz-garbi, zintzo ta errugabe dirauten izaki bakun xaloek, azkenean zorion betea eskuratzen. «Merezimendurik gabe!» —esango du agian norbaitek—. Amaikatzok naiko genuke errugabe orien egoitza. Lur-ondasun iragankor oro ez ote zenituke ukatuko betiko zorionaren ordañetan? Baietz esango nuke. Orrelako gogapenak darabilzki Terexak bere anai-illotzaren oñetan. «Il orain, gero bizitzeko». Gu egingo ote?

— Koxmetxo, biotza! Zure leletasunean nola zenuen estimatzen egiten genizun guzia! Gerekoikeriz josita dago gure maitasuna; zurea, aldiz, bete-betea zen, txarkeririk gabea, adimendunona baiño zentzundunagoa, utsarterik gabea, bete-betea. Ez ote zindugun zu anai arteko mokokaldi-eragoitzalle? Orain zorioneko zera. Jainkoa begiz-begi ikusten duzun ori, zauden zeru ederrean izan zaitez gu guzian bitarteko!

Jesus Gurutzatuari eskeiñi zion Anttonik bere suprikarioa. Etsi onean egonagatik ere, senarra zeukan gogoan.

— Ez ote genioke aitari gaztigatuko irrati bidez?

— Ez, ama. Ez genuke ezer aurreratuko.

Bazijoazten emeki lasaiagotzen, baina, arik eta senarra ta aita etxean ikusi arte, etzitezken

atsedendu. Eta oraindik amabost eguneko tartea gutxienez Atondo etxera baino len. Bearrik, alare, ustekoaz bestera gertatu. *Ulia* kairatu bearrean arkitu baizen. Itxas-erdian txalupa bati motorra makestu zitzaion-eta Pasaira ekarri bear izandu zuten atoian; orregatik, aita ondotxo aurrez legorreratu. Koxme eortzi ta bostgarrren egunerako etxean zen Joxe Mari.

Urrengo egunean, kanposantura zen famili guzia. Koxmeren illobia ikusiaz bat bertako kaperatxoan Don Migel'en meza entzutera.

— Eguzkiaren argia ta beroa bezela da otoitza —azaldu zien—. Eguzkirik gabe munduan elegoke bizirik; otoitza da gure arimaren eguzkia. Ezin ulertu genezazke Jaunaren bideak, bainan Aita onbera danez, beti gure ona baizik ez du maite. Koxme bizitzaz aldatu baizik ez da egin. Zeruan daukagu zai.

Utsalaren berri bai al duzu? Guzizko auleri ondarreraño murgildu ote zera beinere? Argirik gabeko egunik bizitu? Ezertarako gogorik ezaz, dana alde batera utzita, erabe, nagitua, zearo ezindurik gelditzea da utsalaren aulezia. Egoera tristea benetan. Orren antzeko zerbait bizi zuten, ori bizitzea bada, Atondotarrak.

Illabete bitarteko oporraldi eman zion armadore nagusiak Joxe Mari-ri; emaztea bizkortu aldi berean bera ere zuzpertz zedin. Bazuten alkar-laguntzaren bearra.

* * *

Maiatzaren bian erriko aguazilla Atondoren etxe-ate joka alkate jaunaren paper bat eskutan

ekarki. Praxku erriko etxean ager zedilla. Zertarako izango ote-ta soldautzarako deia! Eta nai ta naiez erantzun egin bear. Nora joko luke Estatuak gudalozterik ez balu? Arerioa litzaioke nagusituko otsoa artaldeaz antzera. Erri baten mugaldeak eta ondasunak, pake-zuzentasun bi-deak eta gizarte-legearen itzala guda-gizonak dituzte babesten.

– Ni ez nijoa soldado.

– Mutil, etzak olakorik esan; ortik eztek eskapatzerik; onik ago, berrogei ta bost urte zeuzkak aitak oraindik eta...

– Zer eta, ta etondo? Joan dan astean biriketarik ondatuta etorria da *Lapax*.

– Ala entzun diat, bai. Langille-batalloi batean ondatu duk, ordea...

– Eta Anakleto nun izurratu zen, eta Fabian, eta Endrike, eta Klaudio? Ez, ni ez naute atzemango. Enijoa goseak iltzera.

– Etxetik lagunduko diagu...

– Lagundu? Zera, ematen dizuten ogi beltz apurrakin.

– Zerbaitekin bai beintzat.

– Naiko lan baduzu etxeko maia ornitzen; or datoz Juantxo ta Xinforiano legamia-gisa gora.

– Xalus'i eskatuko ziot ire jornaletik zerbait aurreztu diezagun; gero, etor adinean, ordainduko ziogu pixkan pixkan...

– Nola? Alegiz ariko zera... Baituran jarri nai al nauzu? Len gutxi baliatzen baida nitaz. Naiago dut derrepente il!

– Jesus, Jesus! Txantxetan ere...

Bere biotz-estura lasaitu bearrez, senarrari kontatu zion gau artan bertan.

– Banuen beldur, Anttoni. Aspalditik orrelako zerbait bazerabilen buruan gure mutillak. Koxme bizi balitz agian eluke olakorik egingo, bainan orain...

– Desertoretzat joko dute. Bere bizi guziko lurra galduko du.

– Hendaya ez dago urruti, emakumea.

– Naiago nuke serbiziora joango balitz. Praxku ez da eroxko orietakoa; bere burutape-nekin dauka burruka.

– Kaximirok buru berotu du.

– Utzazu Kaxi pakean. Gure mutillak ez du iñork zirikatu bearrik. Emengo bidegabekeriak ikusita ez da arritzeko erretxindurik egotea eta orien kontra alegin nai izatea. Len ere badira batzuk orregatik iges joanak, eta ez omen daude batere txarki.

– Au komeria! Zuk ere begi onez ikusten. Guda bizian sartuta dagoan lurraldera alde egiteko asmotan semea, ta zu bat zatozkio.

Negarrari eman zion.

– Begira, Anttoni. Txori-kumeak, bein lumatu ezkerro, kabitik ospa egin oi dute. Gizakiok ere, beren salbabidea arki dezaketelakoan, igesari ematen diote, askotan galgarri gertatzen zaielarik; ez guztiei, noski. Ondasun-jabe egiñak badira batzuek. Ni saiatuko naiz mutillari asmo ori burutik kentzen.

Aguro egin zigun Atondok Kaximiro ikusteko modua.

— Kaixo, Kaximiro. Gure semearen berri ik dakik geien. Onezkero zerbait esango zian. Prantzi aldera iges joateko arrama zeukak; bai al dakik?

— Noski! Biok goaz. Ni ere aspertuta nago emen. Ez duzu ezertarako girorik, gizona. Ixkin danetan arrera txarra, jornal eskaxa, jatekoa garesti ta gutxi. Donostira joan nai duzula-ta, ditxosozko *salvoconductoa* bear. Irun'go Kate-tarra orduko, or asten zaizkizu papera galdezka; gero Donosti sarreran, Ategorrietan, berriz. Beste aldean askatasun geiago neukan. Arnasa ere lasaiago artzen da an.

— Ikusten diat ez dagoala ezer egiterik.

— Egia esango dizut. Ni berotu banaiz, Praxkuri laguntzearren izan da. Adiskide onak badi-tut Hendayan. Daukagun ofizioarekin lana errex topatuko dugu. An, gainera, emen baino geiago irabazten da. Ez gera urruti joango, ta agian, nork daki, an lan egiñaz, bizi emen biziko gera. Bestalde, emengo egoera larri au aldatzekotan zerbait egin bearra dago. Hitler eta aleman guztiak zapaldu arte ez dugu gauza onik. Egiñalak egin bakoitzak al degun neurrian.

* * *

— Aizu, ama. Atzo Don Elias-ekin egondu nintzan, Koxmerentzat meza bat atera nai genukeala-ta... Biarkoa gorde digu, zortzitakoa. Gal-

detua dut dagoaneko taxi bat zuentzat. Terexa ta ni oñez joango gera.

– Ondo egin duk, seme. Joango gaituk, pozik alare. Bide batez kanposantura sartu-atera egingo diagu; lore batzuk eraman ere genitzakek izebaren baratzetik.

Erranda-enetik barrena, Txomineneko zidorratik gora, Kalbario bidetik igo ziran anai-arrebak. Goizeko zazpitan irten, eta iru ordu laurden barruan Guadalupen. Abiada berean eliza barrura sartu zen Terexa, anaia atarian gelditzen zela.

Bide guzian biak bakarrik, egokiera ederra izan zuten alkarri kolkoa ustutzeko.

– Barkatuko al naun, Terexa. Enatzain ongi portatu. Egoista bat besterik ez intzanala esan ere esan niñan noizpait; alegia, norbere etxean lan egiñaz berdin genezakeala Jauna serbitu.

– Utskeriak dituk. Antzitzak; obe zitekekan orixe bearbada; nik, ordea, txiki txikitatik zeukat artua mixiotara joateko erabakia, *Santa Infancia'n* nenbillenetik. Beingo burutaldi artan ereindako aziak zañak bota zizkian-da, ara...

– Neri ere orrelako zerbait gertatu zaidan. Nere kezkok mundu ontako desberdinkeriak sortu zizkidatenan. Gutxi batzuk ederkitxo zupatzen diton langilleen odola. Artalde gisa erabiltzen gatxioten. Nai dutenean gerra sortu euren protxurako, ta fiñ jokatuko balute, ezer ez.

Gogo onez erantzungo lioke arrebak mundu ontan beti izan dirala ta izango ere aberats eta probeak, eta jauntxo kupiragabeak bezain gaiz-

toak dirala zenbait politik-alderdi. Baina, pakea-
gatik amore eman zion.

– Terexa, i egoista baldin baaiz, ni ez naun txikiagoa. Ez, arreba. Ni baiño askoz biotzduna-
goa aiz, maitekorragoa, besterenduagoa. Ni ere,
ez pentsa, enaun ain nerekoia. Aritz beraren
adarrak gaitun. Aitaren ezpalako.

– Noski! Jaunari eskerrak, zintzoa diagu
aita. Bazeukak merezimendurik. Familiaz ardu-
ratzen delarik, bere eginkizuna ongi dik bete-
tzen; ire aldetik lagun urkoaren ona billa abil eta
ori zaiguk bearrekoena: ortan zegok Jainko-
aginduaren mamia. Biok geren biotz-deiari jarrai
gatzaiok.

– Lantegi inguruan jende oberik ikusi izan
banu, agian bestelako bideak artuko nizkiken.
Aberatsen aldeko praille ta moja geitxo ikusten
dizkiñat bazterretan. Ain itxuak nola ditezken!
Jaiotzez beargiñ-ume ditun geintsuenak, erdi
mixerian bizituak, eta alaz guztiz aundi-zaleak,
beti dirudunen alde.

– Zer irakatsi ura ikasi, anai. Menpetasun-
botoz bere burua lotu dezanak, etzeukak obedi-
tu beste erremeriorik. Eta etzakela pentsa moja
ta praille arteko lege dala bakarrik. Elkarteguz-
tiak, eta politik-alderdiak areago, berdin egiten
diate: obeditu nai ez duena, kanpora!

– Bazekiñat, bai, zenbait alderdik nolako
ixurkia duten. Ni zuzentasun kontrako egipen
guztien aurka natxion, datozela eskubitik nai
ezkerretik. Ekintzetan ikusi nai diñat kristau-
jatoritasuna; mingañakin esatea errexa dun.

– Neunik ere orrela pentsatzen diat. Ni, Jesus beartsuari jarraituko natzaiok, guztioi on egiñaz, jende arloteari bereziki. Edozein lekutan nagola, gaixoen miñak sendatzen saiatuko nauk. Gure kanta zarrarena: Eman da zabal zazu munduan frutua.

– Edo beste batek diona: Kaudan, kaudan, duenak ez duenari eman.

– Orixe! Eman, beti eman: Pakea, Maitasuna, Fedea; eman, eman!

Oartu gabe, otoiketan ibilliak ziran Guadalupeko bidean. Ondoren elizkizun labur bezin goxoa. Pizkunde-aroari zegokienez, guzcion berpizteaz eta betiko bizitzaz mintzatu zen Don Elias bere sermoitxoan; zear bidez, ezaguerik gabeko aurtxoan zoriona gorai patuz.

Amaierako *Salvea* kantatzekoan, malko gozoak zerien Praxku ta Terexari:

– Agur, betiko! Egizu zuk, Maria, gugatik erregu! Atondotarrok zeruan elkar gaitezen egi zu!

Negarrak negar *Negar erri onetan* zotin eta negar malkoak berritu ziran kanposantuan; oraingoan aitak jarion zitun ugarienak.

* * *

Gau artan bidea ongi jorratua zizun Kaximirok. Battitta-kin egona genuen Hendayan, Txingudi-ko zubi inguruko txaboa zarraren ondoan. An utzi zizkion Praxkuren pardela ta berea, gorde zekizkion. Katurik ere etzebillen.

– Jaungoikoa lagun, eguerdirako emen gaituk.

– Etorri lasai, zuenera bezela. Arratsaldean Ondarraitzura joango gaituk *ruby* partida ikus-tera. Zuen erriko Sagarzazu-k jokutzen dik; bera duk Hendayar taldeko ontxuena.

Aldagarri pare bat, igandetako arropak, bizarra kentzeko labaña, bizpairu ator, jersey berri ta zar bi; ori zuten apaindura, apaingallu ta zuri-menta guzia. Zertako geiago? Bearrak ornituko zituan gañontzekoak.

* * *

Amarrak baziran Guadalupetik itzuli zirane-ko, ta Praxkuk etzeukan asti soberarik. Abian, ama oeak egiten ari zen bitartean, salda bero ka-tillua (zioz ondutako salda) ta arrautze egosi bat gertu zion Terexak anaiari. Despedidako gosaria zen. Andik laister itxasertzera urbildu zen Kaxi-mirokin izketatu arabera. Zarpil batzuek jantzi-ta, almejaketa aritu ziran Bidasoa-pokalean bes-tetan bezela.

Kilo pare bana aguro xamar bildu zuten, ta eguerdirako Etchola-baita-ko sukaldean zeuden maieratuak. Aur jaio-berriak negar bezain errex igaro zuten gizonak ezarrirako muga. Zorigaiz-tozko muga!

Alegia deus jakin ez, bere gelan ustegabez idoro bailu bezala, bazkal-ondoan atera zun Te-rexak anaiaren gutuna. Onela zion:

«Aita, ama: Badakit naigabez beteko zerate-

na. Barkatuko aal didazute nere ez-egitekoa. Ez dakit zer nai dudan, bainan zerbait obegoren billa nijoia. Zuek baino guraso oberik eztago munduan; beraz, ez zuengatik ezta etxeko iñoren kontra ez dut ezer esatekorik. Gizarte obe bat nai dut neretzat eta mundu guziarentzat. Askatasunak tiratzen nau diru-egarriak baiño geiago. Ametsa? Bego. Barka, guraso maiteak, nere erabakia; ta nere partetik eskumuñak eman soldautzara eraman nai nindutenai. Or konpon ditezela! Beti, beti, beti nere biotzean gordeko zaituztet. Nola edo ala laister ukango dituzute nere berriak».

Praxku.

Itzik gabe gelditu ziran goibel, illun, biotzuratuak. Koxme-ren eriotzaren artutako atsekabea gaindituxe zutelarik, orain beste bat ez ariñagoa. Aguro xamar xuspertu ziran, alare.

– Zer egingo dugu? Guretzako gordea izan Jainkoak gurutze auxe ere.

– Bagenekigun Praxkuk goiz edo berandu olakoren bat egingo ziguna; ongi dakiola dagon lekuan. Buka dedilla lenbaitlen Prantziko gerra, ta ea ara joateko egokiera izaten dugun guk ere...

Etsia artuak egonagatik ere, etzeukaten ezertarako gogorik Igokunde arratsalde artan; ez oituzko *trukean* aritzeko ez izketarako; aurrak berak, giroaren kutsaduraz, jolasteko gogotik atereak. Eta denetan unatuena arima gabe bat, Pinto.

* * *

Prantzira iges joandako bi lagunak etzuten eragozpenik arkitu. Battittak eta Hendaya-ko Jaun merak alkar ondo artzen bai-zuten, onen bitartez urrengo larunbata goizerako gerturik zeuzkaten legezko paper-agiriak eta baita lantokia billatua ere Bordeleko usina aundi batean.

Onela ipiñi zun Praxkuk bere egunkarian: 1940. —Mayatzak, 6— Gaur asi naiz lanean.

Egun berean erri-aguazilla Atondo-enean galdezka. Senarra itxasotik zebillen eta Anttonik eman zion arpegi.

— Nola ez da presentatu Praxku Erriko-etxean?

— Gutun baten bidez ikasi dugu. Prantzira alde egin du.

— Desertore, beraz?

— Itxurak ala ditu.

— Zer dala-ta?

— Eztakit, ba. Kexu zebilkgun gutxi irabazten zuela-ta.

— Ta, ez ote Kaximirokin soberatxo ibiltzen? Ark anguxatuko zuen bear bada. Ez du astakeri txikia egin. Nora, ta Prantzira? Gerra bizian dagon lurraldera?

— Naiko pena dugu.

Orri batean siñatu azi zion, eta besterik gabe pakean utzi zuen.

— Ama! Ikasi al duzu?

— Zer, orain ere notizi txarren bat?

— Naiko txarra. Badakizu Pitzi-neko Olega-

rio? Ba, biriketatik txoil ondatua etorri omen da langille-batalloitik.

– Gizajoa etzegonen sendoegi lendik ere, ta gutxi aski ark. Dana dala, ondo zaindu balute, ez unan ortaraño eroriko. Ire anaiak ez ote din ondo egin emendik alde egiñaz? Nork zekin!

– Nik ere orixe bera pentsatu dut.

Besteren zoritxarrak, gerekoiak gaituzu izan ere, lasaituxeago utzi zitun ama-alabak.

– Aizan, Terexa. Biar bertan eramazaion eian dagoan makallua. Praxkuk utzitako arropa xarrak ere eraman. Ezer eztunak estimatuko din...

– Bai, ama, ta noizean bein Praxkuri bidaliko geniokena Olegariori emango diogu.

* * *

Sugeak, arrapakia irentsi ondoren, ase-be-tearen atsedena. Alaxe Hitler-ek ere Polonia be-reganatu-ta gero. Etzen, ordea, Alemania baz-kaltiar bakarra; Errusia ere maiako zan. Bein-goan, miru arrapariaren antzera, zazpi illabetez ataizean zegoenak:

«Harat hunat ikus zazu hegaldatzen paluma.

Yadan airean behera
tiroaren pareko,
Hegaztin tzarra gainera,
gaixoari doako.»

(Camusarry)

Dinamarca ta Noruega-ri eraso zien arrano

bildurgarriak. Geroxeago, maiatzaren 10-ean, beterriko eskualdeak ere (Holanda, BÉlgica, ta Luxenburgo) bere atzaparretan zitun artu. Alemanak zirauten nagusi bazter guztietan, beren gudatalde altzairatuai eta batipat aireko indar garailariari esker.

Sedan alderditik, *Maginot* gotor-lekuan zear, ia tirorik bota gabe, sartu ziran Prantzi barrura. Agur giza-asmakeriak! Ainbeste diru xautu, ta ezertarako ez! 300.000 gudari atzerabiderik gabe. Azken beltzean eta nekearen nekez Dunquerque-ko kaiatik iges egin aal izan zuten geientsuenak.

Alemandarren eraso bortitza geldi arazi eziñik, erabat lur jo-ta, unatua, autsia, ilortua geratu zen Prantzestar gudaroztea. Etzuan olakorik uste Kaximirok.

Iragoak irago, San Juan egunerako Hendayan alkarrekin zeuden berriro Praxku ta biak, Etchola-baitan.

Albait lasterren, arrantzale baten bidez, paper mutur bat igorri zien Praxkuk etxekoei, lasai egon zitezen.

«Ez geiegi larritu, ama. Berriro Hendayan nago. Ez pentsa orrerako nagoanik. Gaur Juan-txo ta Xinforiano-ren eguna. Amalau urte! Zorionak!»

Praxku.

* * *

Udatiarrak girotzen dute Ondarribia Uztail-Agorriletan. Geien-bat Madrid aldeko jendea da

bertaratzen zaiguna, itxas-ertzeko egurats garbia ta mañuak artzera.

Arritzekoa bada ere, or egoten zaizkizu aozgora eguzkitan beren gorputz-atalak beltzaran-du naian. An eguzkirik egiten ez bailu. Ez izaki berdin kresalaz naastutako eguzki-errainua! Larru-azalari uarkara berezia damaio emengo inguratsak; angoak, ostera, baratzuri-zuztarraren antzeko buztin-mintza. Margoak margo ta kresala kresal *mañistak* irripartsu ta arrai zebiltzen udaro artan.

– Hitler! Ori da gizona ori! Nor bera bezelakorik!

–

– Gezurra galanta!! Santu bat da. Mundua salbatzeko Jainkoak bidali digun Goiaingerua. Frantzia? Oso txarki portatu zitzaigun gure Gurutze-gudian. Jainkoaren zigorra jausi zaio. Ongi merezia!!

Eta bitartean ogia urritzen, lana murritzen, eta zauriak berritzen. Izuaren mendean jende geiena, guda-ondoko giro larri bildurgarrian; ta bizitzeko bearren bearrenak lortu eziñik. Orduan entzun genituen lenengoz *Estraperlo, ticket, cartilla* ta olakoak. Urtu ziran ederkitxo batzu batzuen koipeak. Gosea, gosea! Meetzeko bide oberik eztago.

* * *

Bein erriko urte-jaiak bukatu ziranean oso aldatu zen Atondotarren bizikera. Xinforianok

itxasorako martxak artu zituen. *Olearso Primero* txalupan sartu zen txotxo gisa. Deitura bitxia derizkizu, noski, *Olearso Primero*. Oituzko euskal-izenen ordeztasun gaztelanizkoak ipintzera bear-tu zituzten ontzi-jabeak: adibidez, len *Goizeko izarra* zeritzan itxas-ontzia, aurrerakoan *Estrella Matutina* bearko zen izendatu.

– A, bai? ba, *Olearso Primero* deituko diogu. Itzul dezatela gaztelaniz.

Baiki! Txalupa-patroiak maleziz jokatu.

Juantxo, berriz, Urrillaren lenbizikotik Irun-go pastelgintza batean asi zan pastelgille-mutil. Bizitzen ikasi bear zuela-ta, toki ederra billatu zioten! Xalus zela zipotz, dollor eta kupigabea? Eguna ta gauaren arteko aldea zegon arengandik Don Braulio-rengana. Au bai zela nagusi zeken, gaizto ta zitala. Betizua ezitzen dan modura naiko luke Juantxo menderatu. Lanean asi berriz, lenengo egunetako batean irin-zakuz betetako kamioi aundi bat ustutzen jarri zun bestekin batera. Etzuen izan urrikirik amalau urteko mutillaren bizkarrean eun kiloko zama jartzeko. Bidegune laburreko lana zen, baina alare... Lengo zeregiñetara igorri zuten lankideak kupiraz.

– Nun da mukitsu ori?

– Oraindik gaztetxea da-ta guk esan diogu lengoan segitzeko.

– Nork agintzen du emen? Kontu, gero! Txe-txe egin arte txirringan ibiltzeko balio dik, eta zaku bat bi metro bidean eramateko ez?

Negarrez etxeratu zen mutilla.

— Ama, ni ez nijoa geiago lanera.

— A, mutil, oberik ez diagu errex billatuko, eta bertan jarraitu bearko.

— Eun kiloko irin-zakua bizar-gabeko ume bati... —zion beretzat Anttonik— geitxo ere bada.

Semearentzat lantoki ori arkitu zun apaizari jakin arazi zion: naiz ta mutillari jornal txikiagoa eman, etzezatela beintzat tamaña ortako lan tzarretara beartu.

Mandaturia egin bide zuen apaizak; urrengo kinzenean jornal txikiagoa jaso zun Juantxok. Ondarribitik Irun-ako autobusa ordaintzeko aña doi-doi. Mutikoa bildurrez joaten zan lantokira, ta izu-izu egiñik egoten nagusiaren aurrean; onek zerbait galdetutakoan, berriz, ezin erantzunik totel-totelduta. Bai, bizitzen ikasteko toki onean zuten ipiñi. Bein, ixtua botarazi zion, nolakoa zeukan ikusteko. Garbi garbia zuen alabearrez.

— Kontu, gero, pastelik jaten nik ikusi!

Beste bein, komunetik irtetzerakoan ark entzun zituenak!

— Txitean pitean komunean sartuta zaudete beti. Lanera k.k. ta pixa etxean eginda etorri!

Txoko artan zerbait jan zezaketen susmoa zeukan. Ori zan dana. Bai, bizitzen ikasteko toki ona Don Braulioren pastelgintza.

* * *

Xinforiano *Olearso'n* sartu ezkeroztik arrai prexku eskasirik beintzat etzeukaten Atondo-

renean. Soldata ere, bere adiñari begira, moduzko soldata ateratzen zuen gure arrantzale koxkorak; parte laurdena. Zenbat zen? Ba, arrantzaren arabera, mariñel arruntak astero irabazilaurdena. Noiz beinka lan sari polita. Bere buruari zerbait iritzirik, arroxko jarri zaigu Xinfiriano; txikitatik zetorren petral xamarra, ta bigarren asterako:

– Ama, nere kideko lagunari irabaziaren erdia Aurrezki Kutxan sartzen diete gurasoak.

– Ta zer? Ik ere oixe naiko duk...

– Zergatik ez?

– Aguro asi aiz. Aita etortzean konponduko gaituk.

– Aitak ze ikusteko du nik irabaziakin?

– Zer nai duk: etxean apopilo? Gure denboran ez diagu olakorik ikusi. Ta miñez jarriko baintza? Nork zaindu ta mantenduko induke? E?

– Hospitala zertako da?

Biotz-ziztadako ederra eman zion amari.

– Onelakoa intzan bai txikitan ere; bular-tiratzalle galanta! Olakoxea egin indugun bada-ta...

Andik aurrera, Don Migel-i iritzia eskatu ondoren, irabaziaren erdi-erdirakoa Aurrezki-Kutxako libretan sartzen zion, liburuxka amak gordetzen zuela, orratio. Iñori etzion ezer esan; ez eta Terexari ere. Zertako miñ eman, egun gutxi barru Zaragoza-ra zijoanari? Juantxok irabazten zuen gutxia, ostera, dana Kutxan sar-

tzen zion, soldautza garairako zerbait aurreztu zezan.

* * *

Arian arian Terexak gerturik zeukan moja-arrioa eta dagoeneko Zaragoza-ra bidalia bere kutxa aundia zurimenta, soñeko ta bestez mukurru. Andre Praxedes-en adiskide batzuek, Aladren-eneko familia udatiarrak, egin zioten mesede ori. Baita agindu ere Anttoniri:

— *Lo guardaremos en casa hasta que venga Teresa.*

— *Gracias, gracias.*

— *Nada de eskarrikaskos. Usted también, cuando vaya a visitarla, no repare en venir a vernos; ya sabe dónde tiene su casa.*

— *Gracias, gracias.*

* * *

Urrillaren amabostean zen joatekoa; Zaragoza-ko pesta-buru ondoren asiko baitzituen ikasketak.

Pilarika egunez Guadalupera igo ziran ama-alabak Luisatxokin Amabirjiñari azken-agurra egiñ-asmoz.

Bai egonaldi gozoa Olearso-ko imajiñaren aurrean! Nolako otoi gartsu, biotzetikoa Zeruko Amari egin ziotena:

Anttonik:

— Ama zera, ama nauzu,
zuretzat ar zazu.

Kosta-ta ematen dizut,
badakizu,
Zure bezela begizu.

Terexak:

- Zerura naiean Misiotara noakizu,
lagundu nazazu.
Lurreko nere gurasoai
ta senideai lagundu iezu.
Egun batean zeruan
alkar gaitezen egizu.

Luixak:

- Guadalupeko Ama maitea,
nitaz oroi zaitea.
Terexa-ri esaiozu
belarrira, neretzat uzteko
zure imajiña dun
lepoko katea.
Eskarrikasko.

Aitaren gabez, damurik, bazkaritxo dotorea
egin zuten despedidakoa; Xinforianok bezperan
ekarritako atun txuri bi xerraz eta Juantxok
etxe-labeen egindako opil gozoaz ornitua. Egun
gutxien barruan ikasi, alajaña, pastela egiten.

– Bai, mutil; ari aiz ederki ikasten. Ik gozatu
bear duk mundua.

– Oso ona egin duzu, bere punttuan; ona,
oso ona –esan zion Terexak.

Eta Luixak:

- Amatxo, ekatzu aitaren partea, bai?
Juantxok anaiari eman zion beretzakoa:

– Ni usai utsaz aspertua niok, nagusiak uste
ezpadu ere.

Kutxa Zaragoza-ra aldez aurretik bidalia zuten ezkerre, autobusean joan ziran Irun-a, ta burribide gel-tokira baiño len, Santa Gema-elizan sartu-ateratxoa. Kandido ta Luixakin amak lagundu zion alabari estaziora. Orduko an zeuden zai beste moja-gai bat, Terexak ezaguna, ta aren ama.

– Nik lagunduko diot Donostiraño –esan zion onek Anttoni-ri– An sartzekoak dira beste bi moja-gai neska-talde batekin. Ongi dijoazte. Beraz, bagaudezke lasai.

Ez amak ez alabak etzuten negarrik egin al-dendueran. Emakume azkar, kementsuak ziran biak, neke ta atsekabeak ixillik eramaten oituak. Negar, zergatik, gero? Zeru-bidean zijoan-eta...

Trenak abiadako *fi-fi* egin zuenean, aatik... biak eraman zuten musu-zapia begietara. Bur-nizkoa ez danak bearko malkoak ixuri. Agur, agur!

Tsuk, tsuk, tsuk, traka, traka, poliki-poliki aldendu zen trena... Katetako biurgunetik igarotzerakoan, burua jasorik ta Guadalupera begira «Agur, Ama Erregiña». asi zun aopean, amak erakutsitako oiturari jarraiki. Une artan, nik uste, Anttoni ere Salbea errezatzen ariko zela: «Gure bizi, gozo ta itxaropena, agur!». Luixak, bere aldetik naiko lan zeukan beatz punttakin, aizpak eman zion domiña pallakatu ta pallakatu.

– Emen gauden kasuan, goazen Juantxok nun lan egiten duen ikustera.

Bada ezpada etzen ausartu geiegi urbiltzen.

Txiripa batean semeak an ikusi izan balu, a ze purrustada...

* * *

Eta atsedan artzeko astirik gabe, Kandidoren txanda biaramunean. Saturraran ez dago ain urruti, ta amak berak lagundu zion oneri ere bertaraño. Lenengo aldiz elduki baiziren, nolanaiko biotz-ikutua artu zuten. Jesus! zer zan ango kirrikildura ta zarata! Izan ere amabi amalau urtetako irureun bat mutiko, denak batean jolas-larrainean, zuk pentsa.

– Ematen dizuten dana jan, gero. Arratsetan tapakiaz ondo estaldu, itxas-ertzean aizeak double miñ ematen du-ta. Batez ere, egin xintxo xintxo esango dizutena. Izan ixilla ta otzana. Urrengoan aitakin etorko naiz, itxasotik libre egon dedinean. Orain muxu aundi bat, eta, adios!

Axaletik begiratuta errexa dirudi. Nola neurritu, ordea, ama batek olakoetan artzen duen biotz-ondokoa!

* * *

Atondoren familian 1940-ko urte barruan gertatuak oro bana banaka aipatzekotan, luzaro jardun bearko nuke. Ez uzteko geientsuenak esan dizkizut: Koxme-ren eriotza, Praxkuren igesa, Terexa ta Kandidoren aldakuntza Jainko deiari erantzuki, bixkien lenbiziko ogibideak.

Aldiz-aldiko pasadizuok zerabilzkin gogoan Joxe Mari-k kanposantura bidean, ixilaldi luzea autsita, emazteari erasi zionean:

– Mundua ta mundukoak bagoaz aurrera. Bizitza-legea da izan ere. Gure pamili koxkorra aurrera ateratzen alegindu gera, ta Jainkoari eskerrak, iñoren lotsik gabe...

– Pena galanta daukat, gizon. Egun gutxi-gatik, Terexa ta Kandido despeditu gabe gelditu zera.

– Zer nai duzu? Goiz edo berandu oiek ikusiko al ditut...

– Baita bestea ere illen piztueran.

– Ala bearko.

* * *

Urbilleko Hendayan arkitu zun lanbidea Praxkuk; bertako izkillu-gintzan. Ordurako, errian indarka sartu ziren ezkeroztik, ango armategia baituran artua zeukaten alemanak, leendik zebiltzen langille guziaz, ordea, bertan jarduteko aukera eman zietelarik. Eta ain xuxen, Atondoren lagun zaar bat egokitu fabrika-ko kontramaixu. Gogo onez artu zituzten Xaximiro ta biak; are geiago zurgin-ikasiak izaki-ta. Aurreko illabete osoan, zenbait egunez erdi gorderik egon ondoren, Ondarraitzuko hotel batean arituak ziran baxera-garbitzalle gisa.

Etchola-baitan zeukaten egoitza. Asiera artan bildur ziran euskaldun iges-joanak Españira itzularaziko zituztenentz, baiña ez. Uste zuten

baiño obeto portatu ziran alemanak. Bestela ere Kaximiro ta Praxku ez genituen politik-ekintzetan neurritz gora nabarmenduak. Batzuen batzuk bai omen ziran bai portxaz aberriratuazi-ta gero betiko garbituak. Muga-urbillean bizitzeak badu bere arrixkua; baita bestetako erri-lagunak ez bezelako aukera biderik ere. Hendayako *Consul*-etxeko kargu dun bat Ondarribiko kale nagusian bizi zen, eta ala, aren bitartez jakiñazi zizkioten Praxkuri etxeko berriak.

Aldi berean Terexa-ren gutuna Zaragoza-tik Ondarribira. Ona zer zion:

«Nere guraso ta aizpa-anaiak:

Au poza nerea! Eskerrikasko, ama; eskerrikasko, aita. Nere barruko poza ikusiko bazenu-te! Bereala jarri naiz emengo bizierara. Moja oso onak arkitu ditut. Arrera ezin eta ohea egin didate. Etorri bezin pronto gela apain batean utzi ninduten: bertantxe, ama, zu eta etxeko guztiak gogoan, pozaren pozez negarrari eman nion. Bai negar gozoa! Ejerzizioak astera goaz; biartik. Begira zer pentsamentu ederra dakarren dei-orriak. Asko gustatuko zaizu, ama.

«Bizitzea maitatzea da.

Maitatzea, berriz, supritzea.

Supritu gabe bizitzea

Maitasun gabe bizitzea.

Eta maitasun gabe bizitzea, iltzea!»

Nik maitatu egin nai dut; danak maite zaitzuet. Agur, eta besarkada aundi bana. Praxku-ren berririk bai? Agur.»

Terexa.

* * *

Urtea joana, ta Europako gerra bere artan; amaitzeko itxurarik gabe. Urte guziz, gau ta egunero, egazkin-indarrez eraso zioten alemanak Inglaterrari, ikararen ikaraz txakaldu ta menderatuko zutelakoan. Bainan, alperrik. Europako laterri geienak azpiratu ondoren, urren-go garagarrillaren 22-an, U.R.S.S.-i ere guda azaldu Hitler-ek. Nork esan, urte bete aurretik elkar-lagun zirelakoak guda bizian asiko zirenik! Ez; gudak etzuen bukatzeko itxurik. Legorteak suaren bideak errexten dituen antzera, edozein okerkizun-bolada aski zuten giza-biotz legorrak alkarri erasoka abiatzeko. Gerra bukatu? Mugatzen eta beratzen joan bearrean, geroz eta edatzenago ta gogortzenago zijoan. Nor ote gallenduko? Ikuskizun zegon oraindik. Izugarria zen alemanen ariera; tximista beraren lasterraz, inpernuko deabru guztien indarrez agertzen zan guda-leku denetan. Nork zezaken garaitu?

Atondoren muskillak, garatuz batera besterutzen, aldatzen ari zaizkigu. Iñoiz baiño kezkatiago dabil Praxku, gizarte-arazoez ajolatsu; zintzo ziarduen lanean, beti bezela, ta asti-orduetan zerbait ikasten ariki. Prantzera ederki jabetu du dagoaneko, ta alemanera ere menderatuxe dauka. Ixil-gordekako ekintzetan baidabil, izkuntz-ikasketa diralakoak bere burua txurizkatzeko ezinda obe datozkio. *Monsieur René* irakasleak, arriturik:

— Zure gurasoak nun egondu dira zuri eskola-bidea ez emateko?

— Ez da izan gurasoen errua, gizarte-egoera atzeratu baten ondorio baizik. Enuke demagogian erortzerik nai... Zertako jardun alperrik? Baldinbetan, oraingoan argituko al da zeru goi ortan egiazko askatasunaren izarra. Ainbeste odol-ixurtze zertako litzake bestela?

Ikusgarrizko moduan dijoa Terexa ere enfermerakikoak ikasten. Arri ta zur daude neska txaren maixuak beraren gaitasunaz oartuta. Ondarribiko moja-beltxetan eskola poliki ikasia baizen, batxillergoa egitera bultzatu du moja-buruak. Urte t'erdi barruan burutu zitun legezko lau ikastaroak, eta orain maisutza lortzeko saia-ketan diardu. Etxetiarrak eztauzka aztuta, iñolaz ere; bi illabetez bein edo izkiriutzen die, aldiko berriak bidaliaz. Bai lurrin-zerutar zeriotena Terexa-ren eskutitzak. Dan-danak kutxatil batean altxatzen ditu Anttonik. Ez dezake sendagai oberik arki noizbeinkako goibelaldiak gainditzeko. Alabaren kartak irakurrita, berealaxe pixkortzen da.

Eta bixkiak? Donibanetan bete dituzte ama-bostna urte. Astegun txolartetan eta jai egunez beti alkarrekin ikusiko dituzu. Zain bereko zuztarrak izanik, bioi biotz-taupada berak daragiela dirudi; ao batez dagite itz, gogo batez pentsatu, iritzi-aburuetan beti daude ados. Joerak, griñak dituzte desberdiñak; gero ta jarionago, emankorrago Juantxo; gero ta berekoiago Xinforiano. Lan neketsuai lotuak bi-biak, azkartzen eta zailtzen ari zaizkigu; lana baino kirol oberik ez bada ortarako. Eta kirola kirol, pillota-jokua zaie gogozkoena. Bikote polita ez baidute osatzen!

Beren kidekoen artean beñepein beti edo geienetan gallen. Aurretik Juantxo, bizi ta txairo, tantoa noiznai arriskatuz; Xinforiano atzetik, tankeran zakar xamar eta beltzuri, alegiñean *buena* egitera beti.

Jakiñekoa da Xinforianoren jarduna: itxasoa ta arrantzakikoak; enbata, auiñak, aize-zirimolak, sarda, arrai-gorriak, espalarta, kalderakoa, ainbesteko irabazia... eta bein baleakume baten buztankada artutakoa.

Juantxo, ostera, bere lantokiko zerbaitez astean, bereala beltzurituta jartzen da, begietatik gorroto-sua dariola. Bost ajola zaio diru apur bat geiago edo gutxiago irabaztea; amorratu, nagusiak damaion tratu txarrak du amorratzen. Berebiziko tirria gordetzen dio Don Braulio-ri. Lantegiko lagunak, oiek bai gizonak. Beargiñen ongiizatea baizik opa ez, edozeineri esku bat emateko beti prest, zuzentasunaren aldekoak; oiek bai gizonak. Juxto izeneko bat du denetan estimatuena. Nor degun? Gaxte-gaxterik amasei urtekin bere oldez eta aurre xamarretik emengo anai-arteko gudan ibillia; aita, gorrien alde gudu-tokiko aurreneko lerroan illa. Orain amaren alarguntza dala-ta soldautzatik libre dago; apen-
dua artzeko zai, ordaiñak emateko garaia noiz elduko. Nolanai ere itzali-eziñeko erra gaizto ori ezik, oso biotz oneko gaztea da Juxto. Era bat bereganatu du Juantxo. Ezpaitu onek lagunaren saiets ona baizik ikusten. Komunist-alderdiko egikaririk gogotsuenetako bat dana baleki...

* * *

Udarako oporraldia dala-ta, erri-aldetik dugu Kandido. Urteko ikasketak ezinda nota obeaz burutu ditulako, jauntxo alper egiña bilakatu zaigu. Etxeko guztiak bere neska-morroitzat artu nai lituzke gure *esturiente tunanteak*. Bera ta erriko beste bi apaizgaiak lasotasunari emanak, oporrak josta-egun soillik diralakoa. Be-errik, ezer egiteke egotea kaltegarri lekiekela-ta, lankizun txiki batzutan ariarazten ditu erretore jaunak. Gure Kandido ez da gogoz urbiltzen zer egin oietara; elizkizunetara ere ez gogo geiegiz. Atze-bildurrik ezbalute (erretoreak apaizgaien uda-bizikeraren txostena igortzen bai die goimallekoai) asti geiena ondartzan edo egurasten igaroko lukete. Joan dan astean egin jokuaren berri erretoreak baleki... Berreun eta geiago gutun eman zizkien etxez-etxe udatiarren artean banatzeko. Dozena t'erdi zabaldu orduko asper-tuta, gañontzeko beste guztiei Txiplau-ko erre-kan su eman zieten. Berriz ere esango zuen erretoreak:

— Bai murriz erantzun dutela udatiarrak aurten.

Luisatxo, beti bezela etxekaldetik. Amak beartuko ez balu, elitzake bere laguntxoekin jostatzeraz bilduko ere. Zernai uskeri aski du bere kasa atsegiñ artzeko: poxpoliñari soiñekoak egin, eskolako kuadernuak begiratu ta bir-begiratu, etxekoen oiñetakoak txukundu, mandatuak egin-eta... Batxillergoa asiko du urrengo Urrilean; alaxe eskatzen zion amari Terexak azkeneko eskutitzan; gero maisutza edo gaixo-

zaintza edo beste bizibide erosorik lortzekotan, oraindik bertatik bear zitzaiola jarri bidean.

Oraindik aurra baida, ta etxeko txikiena, bera duzu Atondoren jostallua, itxasotik legorreratzen dan aldiro.

* * *

Frantziak amore eman zuenean, Petain mariskala jarri zen bertako Gobernu-buru, ta zuzendaritza eskuratu-ala pake-baldintzak eskatu zituen. Urrengo egunean berean Hitler eta Mussolini Munich-en ziran bildu, Petain-en eskabi-dea aztertu ondoren erantzun zezaioten. Prantziaren etorkizuna ikusita zegon. Beingo, aatik, izar-gidari batek argitu zun illunaldia. Londres-ko irrati bidetik De Gaulle jeneralaren deia dar itxaronkorra:

— Aberkideok! Frantziarenak ez du egin oraindik, jende ukakorrek orlakorik uste ta esan arren. Ez dugu etsi bear, ez baldinbetan! Ingura zaitezte ene ondora. Guda-eraso bat galdu dugu, egia, bañan ez guda osorik. Itxasoz ez gaituzte menderatu, ta itxasoak osatzen du munduaren zatirik aundiena. Buruz gora diraugu itxas uretan. Atozkidate errikide guztiok! Goiz edo berandu askatuko dugu Aberria. *Allons, enfants de la Patrie...*

Buruzagi oldarkoi ta bioztun aren irrintzi suarrak itxaropen argia piztu zun prantzitar geienen biotzetan. Berpertatik sortu zan Prantzi-askatasunaren aldeko Erakundea.

Beinere ikusi al dituzu txingurriak beren kabi xeatuak eraberritzen, joan-etorki gelditu gabe, leiatsu ta urduri, etsipenik artzeke, beren tegia osatu bearrez ekin eta ekin? Alaxe lotu dira lanari eundaka prantses-talde De Gaulle-k piztutako argitara.

Compiègne-ko oihanean, 1918-garrengoan bezela eta orduko tren-bagoi berean eratu dute pake-gunea. Oraingo itunbenak bi alderditan banaturik utziko du Frantzi-latterria: Askatu-alderdia ta Katigu-alderdia zeritzatenak. Azkenengo onen esparruan egokitu zen mugondoko Hendaya. Berebiziko garrantzia zeukan alemanentzat Españiko loturak; bertatik eroso eskuratu baizitzaketen gudagai eta besteak, batipat ain bearreko zitzaien Volframio menasta. Aukera-aukerako bidea zuten, bada, Hendaya.

Garai artan Lannepoquet zen bertako alkate. Alkate ez-ezik, orduantxe ixil-gordeka abiatu zen aberkide-taldearen buru.

Eta taldeko partalier, esan bearrik ez, Etchola-baita-koak. Kontrabandista eta oien arikoak baino jende trebatuagorik zein ixil-gordeko ekintzetarako? Tren-gurdien irten-orduak, noruntzako ta zertarikoak zelatatzea, igeskari zetoztenei muga-igarobidean laguntzea, ala-olakoan joan-etorriak ikustatzen ta abar, taldearen kontu.

Erentzin eta Gaztarrotx inguruak izketan balekite! Kaximirok eta Praxkuk noiz nai ikusten zituzten beren buruak bazter oietan. Usinan itxurak egin: ixilka azpi-lan zintzoa Frantziaren

alde... Ta bide-nabar kontrabando apurra. Orre-
la ateratzen zuten bizimodua. Areago; erreziz-
tentzi-taldeko ziranez gero, prantses paperak
eman zizkieten.

Dabillena erori egiten baida sarritan, ustega-
beko sarekada batean alemanen atzaparretan
jausi ziran taldeko lagun batzuk. Lannepouquet
eta Kaximiro beste ogeiekin Dachau-ko baitegi-
ra eraman zituzten. Iñoiz etziran itzuliko. Oho-
re gizon zintzoei!

Praxku, erbiñudea baino erneagoa izaki,
etzen xederan erori, bearrik ere. Burni-bideko
itsu muturrean zegon bagoietako batean gorde
zen lenengotan. Aurretik bazeukan ango berri.
Geroago, korapilloko lagun baten bitartez, par-
deltxo antolatu, ta gau illunez Puntaletik zear
art-alorretik barrena, etxeko eian ikusi zun bere
burua...

Pintto bat batean oartu; ezin-egonik mutiri,
baina, arrigarria! Zaunkik egin ez.

Anttoni, egunero bezela, seietako mezetara
abiatu zen ezeren tukurik gabe. Ama bere artara
utzi zun Praxkuk, aren eraspinari eragozpenik
jarri nai ezik.

– Gero denbora badiat.

Pintto anartean inguratu. Arima gabea, gu-
ziaz konturatua bailego, ixil-ixilla etorri zitzaion
eiako ate ondora, ta doi-doi karraxkatuz, inki
motel batez atea idekitzeko adierazi.

Elizatik itzuleran be-barrura sartzerakoan,
iñoiz ez bezela jauzika asi zaio txakurtxo An-
ttoni-ri.

– Zer dek, erotu egin al aiz?

– Ama, Ama, –deitu zion Praxkuk ixilka–
beatza aora eramanaz.

Atzekaldera erori ez zanean! Baina ez. Neurri onez geratu zen. Baldinbetan ere! Aitortegian baleude bezela jardun ziran aapeka.

– Zer gertatzen zaik, mutil? Onelako arrixkutan...

– Ezin bestean etorri naiz, ama. Onela, ala, onelako ta alako. Egin bearra dago, ama; il ala bizi, ezdaukagu beste aukerarik.

– Ze asmo dituk, ba?

– Badakizu desertore naizena. Emenguok jakingo balute, a ze atarramendua neukaken. Bizirik geldituta ere ez nintzake libratuko espetxe edo langille-batalloi-batera gabe. Eta ori, ez! Begira: gezurrezko prantses-paperen jabe naiz, eta lenbaitlen Argelia-rako bidea artu bear dut. Nola edo ala gaur goizean berean Donostiko Prantses Konsulakin egon bear naiz.

– Mutil, egun bat bederen ago emen.

– Arrisku aundiegia litzake. Zer naiko nuke besterik? Norentzat neretzat baino mingarriago? Anai-arrebak zerraila-zulotik ikusiko ditut. Zuk ez esan ezer iñori. Jainkoarren, ama!

– Ez, ez; ago trankil.

– Anai-arrebak joan ditezenean aterako naiz. Prantses itxura onekin iñork enau ezagutuko. Panpinot kaletik jatxi, Patxikotz-enetik Kalistro-eneko aldapa zear, Viteri eskola atzetik Txiplauko erreka barrena, ordu erdi bat or-or

Urdanibiako oianean nago. Badakizu; Irun'go Katetan daukate zaitxola *txapel-okerrak*. Ortik pasa ezkerro ez dago kuidadorik.

– Oñez joan bear ote aiz Donostiraño?

– Utz nazazu amaitzen. Beñat-engana joan bear zera. Esaiozu *Axerko*-ren partetik amar-amarretarako *Oillo-kotan* egoteko; ikusten nauenean...

– Oillo-kota? Zer, errun egin bear al duk?

– Ez nago bromarako, ama. *Axerko*-k, bada-kizu, oillotegia maite duana. Zokueta-rako bidezabal ertzean dagon karobi-zuloari deitzen diogu oillo-kota. Jakiñeko lekua dugu Beñat-ek eta nik.

– Ondo zeok.

– Emen uzten dizkizut sos batzuk, azken bolaran kontrabando ta abar irabaziak. Zuk bear ez izatekotan, eralgitzazu Luixa batxiler-bidean jartzeko. Gaur-egun eskola-gabea gutxiritzita daukate alde guztietan; emendik aurrera, berriz, are gutxiago. Nik azken bi urte auetan len amar urtetan baiño geiago ikasi dut. Maixu ona neukan Hendayan.

– Ta nola moldatuko aiz dirurik gabe?

– Ez apuratu, ama. Esku onetan nago.

Bere asmoen berri eman zion.

– Pozik besarkatuko nituzke Juantxo ta Xinforiano; ez da komeni.

Aitaz, Terexaz, denetaz galdetu zuen.

– Ama, iñori ez esan alegizko prantses-paperekin nabillenik. Iñork ez du jakin bear.

Amaikak aldera Mattei konsulakin dakusgu alkar-izketan. Antxe zegoen orduko, egun aurretik etorria, bere laguna, Dominiche l'Hardi zalakoa; Lannepouquet-en taldekoa au ere. Muga pasatzerakoan tiroka artu omen zuten aleman begirariak; bearrik, uts egin, ta igerilari azkar zanari esker, arteka murgillaldi luzeak eginki, Playaundi-raño iritxi bizirik eta onik.

Irun'go Komandantzian zegoan aleman guda-buruak berriz Hendaya-ra itzul arazi zezatela eskatu arren, españolak etzuten amor eman. Soiñeko legorrak eman bai, ta aldatu ondoren Donostira eraman zuten. Prantziko Consul Jau-na jabetu zen igeskari bietaz. Nolatan igerri gorde-antzean zebiltzenik? Egi egizko prantses-itxurak zitun Dominichetik, ille oria, begi urdiñak eta pikartadura gorrikkak arpegian. Praxkuk etzion bere nortasun jatorra azaldu. Zertako?

— Egipenak bear ditek izan egiazkoak, ez paperak. Azpi-lanean dabillenak bere itzalaren ere bildur egon bear dik. Sasiak ere badizkik begiak.

Orrela erakutsi zion Kaximirok. Artaz gogoraturik, berealaxe ixil arazi zun bere barruko artxoa.

Andik bi egunerako Mirandan zegon. Bertako baitegi tzarra katiguz betea; zikiña gañezka, jatekoa urri ta ezin-jana (Nundik eman eurentzat ez bazeukaten?) ta naizta nagusi-buruak gisako gizonak izan, aien menpekoak etzuten enkantarako ere balio. Une oro Frantziaren aurka zernai esaka, prantzesak ezer ulertzen etzuela koan. Praxkuk ez-adituarena egiten.

– Zertako odol-berotu? Gogorrakoak jasan dizkiat – zion kolkorako.

Oso ikuitu kaxkarra egin zion, alare, kabo xixtrin baten arierak; itzetik ortzera maldizio ta lizunkeria besterik ez.

– Norbait berotzekotan auxe berotuko nik kek gustura!

Aste bete Miranda-n igaro ondoren nolapaiteko tren-gurdi batean Madrid-a. Andik Malagara. Zein bestelako ikuspegia! Sekulan etzuen uste izango Espaiñian ainbeste oliondo zitekeanik. Laranja-ondoak ere ugari.

– Nolatan leike, ordea, ainbeste mixeri ainbeste aberastasun artean? Egia, guda izugarria pasatako erria dek: alare, alare, emen norbaitek ez dik zuzen jokutzen.

Argel-en giro txit berezia arkitu zuen; giza-kera aldetik batez ere. Itzal-aundiko gizonen zuzendaritzapean ganorazko erakunde, araubide ta antolamenduak. Gudari-ikastetxetako batean artu zuten Praxku. Urrengo abagunean, diplomatiku-bidetik gaztigatu etxera: oso ondo iritxia zala Argel-era, ta lasai egoteko.

Argelia oraindik Vichy-ko Gobernuaren agintepean baizegon, ixillean gorderik iduki zuen Praxkuk bere egizko jatorria.

1941-ko Irailla-ren 2-an Leningrado-tik urbil zeuden alemanak; ogeitabost kilometrotara. Ez zitzaien, ordea, uste ta nai bezin ongi atera. Errusiako negute gogorrari arpegi eman bearra erakarri zien ustegabeko txulutak.

Urte-azken aldera Pearl-Harbour-ko bat bateko erasoak Ipar-Amerikak berbertatik guda azaldu Japón-i, ta ordañez, iru egun geroago Alemani-Italiak amerikarrei.

Ipar-Amerika agirian gerlatiar agertuz batera bestelako joera artuko zun gerraren abiadurak, batipat 1942-garrenko ilbeltzaren 8-an *aliadoak* zeritzaten alkartu-gudalozteak Aprika-sartaldeko Dakar-en sartu ziran ezkeroztik.

Gerra-aldarten gora bera, Praxkuk etzizun bitartean denbora galdu. Gazte buru-argi ta saiatua zanez, gudari-ikasketak ezin obeki zeramazkin, maillaz mailla gora; urrenko bultzadan kapitán izateraño zitzaigun iritxiko. Esker-oneko seme bezela, illeroko soldata erdia amari bidaltzen zion. Etzen *indizio* makala Anttoni gaxoa-rentzat...

Bitartean aurrera dijoakigu Terexa; egunetik egunera misiotarako gogo biziagoz. Jadanik enfermera ta maixtra-tituluen jabe, beste urte bete ondorean lenengo *profesioa* edo ziñ-aitor txikia egingo du. Eta guda amaitu bezin laister Indotxinara joango da; arako bereziki gerturik dagoanez gero.

Beste senideak ere badijoaz beren bidetik. Xinforiano gero ta kaskagogorragoa. Gero ta diru-zaleagoa. Amak egiten zitun bere alegiñak mutilla sotillago ta esku-zabalago zedin, baiñan alperrik. Arrai ale batzuk etxeratzen zituelako, bazirudin beraren bizkarretik mantentzen zala familia. Poz-pitxik ez, erramiña zemaion Praxkuk illero etxera bidaltzen zuen *koipeak*. Arta-

tik bere libretan zerbait jartzeko; berak etzuela izan ketu alako laguntzik eskola ikasteko orduan.

– Dena Luixa ta Kandido-rentzat! Gu zer gera, loiak? Praxku ez al da gure anaia? Orduan?

«I bezelako eoskor eta zikoitza balitz, ez nizek arnasik ere artuko» bururatu arren, onela erantzun zion:

– Bearrean arkitzen baaiz ukango duk. Ire anaiak bidalikoatik geratzen diran apurrak aren izenean jarrita zeudek libretan. Bereak dituk, eta agian noizpait oien premian gerta zitekek...

Marmarka aldendu zen purrustan. Kanpo-koekin, aatik, etzen onelakoa, Muga-zaitzalekin berekin ere ortzargi ta lagunkoi izaten bazekien: ematen ere zien noizpeinka arrai prexkorik.

Juantxo ere badijoa bere ofizioa poliki ikasten. Pixkan pixkan jarri da astoa jipoitara bezela nagusiaren meatxutara. Gizon saiaturia zen Don Braulio, ezin uka; neurriz-gain zen, ordea. Edozein zeregiñari lotua, bururik altxatu gabe, begiak zearka beti; ta iñork baldarki lan egiten sumatuko bazuen an asiko zen marmarka, erdi-birauak aidean egotziaz. Etzen giro, ez, Don Braulio-ren ondoan.

Alako batean Marx-en *El Capital* liburua jarri zion eskutan Justo-k gure mutillari. Bi ale bakarrik omen zeuzkan. (Agian amar). Eta zer nai luke itxuak ikustea baino! «Zerri goseak ezkurra amets». Alabaiña, bularra doi doi utzitako

aurrari azelgak jaten edo garagardoa edaten ematea zan amazpi urteko mutil batentzat dalako irakurgaia. Juantxo-k, alare, etzion muker egin. Kukuxoaren antzera, emen jauzi ta an xal-to, pasarte ulergaitz eta astunak bazterturik, ezti gozo zeriotenak gogoz zitun xurgatu: «Munduko langille oro, alkartu! Populuaren lobe-larra da errilijioa! Gora munduko beartsuak!»

Nagusia oartuta zegon bere lantegiko bi gazteenak elkar ondo artzen zutena, ta ori ere ezin eramane. Egunetik egunera garratzago, zitalki-ago agertzen zen aiekiko. Beargiñen aldeko lege berri berantenek ere, asarre bizian jartzen zun.

— Nora goaz onela? Ortarako egin al genuen gerra? Oraingo langilleen lujoa guk ordaindu bear ote degu? Jan dezatela arria!

Ta beste orrelako amaika astakeri.

Olakoetan zekien baliatzen Juxto-k:

— Kapitalismo-erakundea ipurdiz gora bota arte etzeok ezer egiterik. Apaizak dizkitek kul-pa guziak. Aberatsen atzetik zebiltzek beti. Ez al dek orla, Juantxo?

— Ala zirudik, bai.

— Txerria mataderira eramateko, mutur aurrera artaleak botatzen zizkiok arakiñak. Alaxe apaizak; sos batzuen atzetik kapitalismoaren esparrura.

— Denak ez dituk berdiñak!

— Ez al aiz konturatzen egunero Jauna artzen duten oiek dirala lizun eta lapurrenak?

— Oien artean bazegok bestelakorik ere.

– Gure nagusia, zer?

– Arrazoi duk; laidoa besterik ez dik langilleentzako.

– Ba, zerbait egin bearra zegok. Elkarganatu egin bear diagu langille guztiok, kezkatu, ikasi, konprometitu, ta sator lanari ekin. Hitler eta bere kastakoak suntsitu arte etzeukagu gauz onik.

Lendik ere naiko lotua zeukan Juantxo-k bere burua azpi-lan ekintzetan; arian arian Justo-k bere saillera zerakarren mutil gixaxoa. Azken aldera ixil-aginduok eman zizkion:

– Lenbaitlen Ondarribitik tutulu-bide berri bat ideki bear diagu beste aldeko gure lagunekiko artu-emanak erraxteko. Gertu itzak bizpairu gorde-leku igeska datozkenen babespetzat. Erne ibilli. Egizak tonto-papera beti. Ez adi nabarmendu ire iritziak besteai erazagutzekoan. Egik oillo arrautzariak bezela, errun bai, ka-ka-ra-ra-ka-rik ez. Alako batean, arrantza egin aitzakiz, Hendaya-ra joango gaituk gure gidaria ezagun dezakekan. Gizon argirik iñor bada... Ikusiko duk; ausarta, eragillea ez ezik zentzudun eta gurbilla.

– Bai, baiña nik igandetako meza entzuteko oitura zeukat; zuek, ordea, komunistak, orren kontrakoak...

– Orrek ez dik ajolik. Ni ere joaten niñuken leen; gero fedea galdu ba diat, ez duk nere errua. Makurkeri sobera ikusi dizkiat Jainkoaren ize-nean eta apaizen onespenez egiten. Ori, ordea,

beste kontua duk; nik, langileen nagusitza nai diat, besterik ez.

Soldautzara joateko bezperatan zegon Juan-txo. *Marina*'n zerbitzeko erabakia zeukaten bixkiak.

* * *

Sei illabete inguru *aliadoak* Sicilia ugarteaz jabetu ziranetik. Bitartean prantsestar gudaroztea eziñ egonik, irrikitzen Itali-ra jauzi egiteko aginduaren zai. Urtarrillaren azken aldera, 1944-ko 22-an, *Nettuno* bazterrean jarri zituzten oiñak lenbizi, ta egun batzuk geroago, erasoaldi gorrien ondoren, emendik kañoi, andik egazkin, ortik esku-bonba, berebiziko ziladura urratu al izan zuten *Gustavo* gotor-lekuan. Urrengo, Cassino-ren ipar aldetik abiada artuta, uriaren iru-laurdenak eskuratu. Iñoiz nunbait burukatu den gudaketarik basa, anker eta odol-tiena, Cassino baranoan burukatu zen. Erasoaldi artan mundu guziko monastegirik ederrenatakoa auts biurtuta zen gelditu. A, ondame-na!

Orko eta ango, gudu-leku askotara barreatuak, bear ainbat indar bertaratu eziñik gertatu ziran alemanak; ala ta guztiz bai suarki, keme-nez eta bildurgabe leiatu zirala an egokitu gudari-taldeak. Arerioak ez koldarkiago, arranotan! Odol eta su, esku-bonba, bazoka ta gar-urtika, metrail-ixkillu-ots, airekoen burrunba ta bonben txistu artean iltzear zeuden gudari lagunena aiotsak entzun etzitezkelak, erdiak baiño geiago

ankaz-gora... Zer zan ura! Izugarria, izugarria, izugarria!!! Noizpait, azkenik, arenak egin zun. Maiatzaren 18-a zen. Eta, beti gertatzen dana, galtzalleak buru-apal, kopetillun eta trixte; irabaztunak, aitzitik, poz-oiuka zoramenaren zoramenez. Eta, eztuzu sinistuko, gauza bitxia orduan gertatu zana. Ezker-eskubi bi alderditik ertsiturik zeukaten aliadoak Cassino azken gotor-lekua. Batetik amerikanoak, bestetik prantzesak. Ainbeste neke, izerdi ta odol, ainbeste amorru, oiñaze ta jazargoren ondoan gudatalde bi adarrak elkarganatu ziranean, ango naaste borrhastea: «*Yes, yes, oui, oui*». Guztiok par-algaraz jauzika, bi beatzez V ikurra eginki, «*Yes, yes, oui, oui*», besterik ulertzen etzutela. Alako batean Praxkuk euskeraz:

— Zakurraren pertza! Au ere ikusi bear geniken, K. k.

— Zer, euskalduna al zera? —Amerikar gudari batek. Idaho-ko bat izaki, guraso euskaldunen seme.

Ez sinistekoa. Leikena da, ta orduan gertatu. Euskera bear elkar-aditzeko.

Juin jeneralaren belarritara eldu zen berria, ta Praxku bere gelara deiturik, zorionak eman zizkion; ohorezko izen-zerrendan ezarri ere aren deitura: Atondo *François*.

Europako izkuntzarik zaarrena goraipatua izan zen gudari guztien aurrean.

* * *

Aldirian zegon H ordua bere dandara jotzeko ari-arian. *Aliadoen* gudalozte aunitz Ingalaterra-ko izpazter-kaietan bilduak zeuden Prantzi-lurraldera indarrez sartzeko gertu. Bear orduan, prantzes gudal-buruak Eishenhower buruzagiari:

– Emen gaituzu zure agindutara. Zailduak, trebatuak, gudakoituak daude gure gudariak, nunai burrukatzeko arranguraz. Biziki dugu irrikatzen gure aberria askatzeko eginkizun orretan esku sartzea. Il bearrekotan ere, prest gaude bizia gure erriaren alde emateko!

Eta Eishenhower-ek prantsesen eskabidea onartu.

Ekaina-ren 6-a. Bai egun gogoangarria! Eundaka gudaontzi eta egazkin, millaka gudari urbildu ziran Normandiako itxasertzetara. Inpernuko su danak birrindu zituzten ta suntsitu ango bazter guztiak, goi ta be. O, zenbat eriotz! Txit ondo babesturik zeuden alemanak; etzuten berealakoan etsi. Alare oiñak jarri gudarozte-elkartuak. Ohore gizurenai!!!

Euzkotar gudari-saillaren buruan, Euskadiko ikurriña lau-aizetara zabalduz sartu zen Fraxku. Sekulan entzun dan «Gernikako arbol» gartsu ta gogotsuena odolez bustitako ondartz aietan entzun zan.

Eta, abuztuaren 25-an *Les Champs Elisees*-ko *L'Arc de Triomphe* azpitik ikurrin garailariak lerro-lerroan igaro arazi zituztenean, beste guztien artean euskaldunen bandera ere an agertu zen. Ordurarte balak errespetatu zuten Praxku-

ren ausardi ta oldarra. Ainbat gudaldien barruan inoiz etzen zauritua izan, eta orratx, garaipena ospatzekoan, zapla!

Notre Dame Paris-eko katredala mukurru, lortu-garaipenagatik eskerrak ematera bildutako jendez bete betean. *Magnificat* abestia amaitu-ala, barrengo ta kanpoko millaka lagunek oiuka ta txaloka ekin zuten «Gora De Gaulle! Gora Franzia!» lertu bearrez. Zalapartaren arte-tik bat batean bizpairu tiro-ots; suerteak ala emanda, bala batek Praxku ezkerreko beso-kozkoan jo. Urbilleko *Hotel Dieu* hospitalera eram zuten arrapataka. Jaunari eskerrak, etzen uste ainbateko kaltea.

Amabirjiña egunez jaso zuten Atondo-enean semearen gutuna. Españiko Embajada-tik zetorren.

«Guraso ta anai-arreba maiteak:

Nere berri jakin dezazuten, hospital ontako zuzendariaren bitartekotasunari esker, Español Enbajada bidez izkiriartzen dizuet. Gauzak badijoaz aldatzen, eta oraindik aldatuko dira geiago. Oso ongi nago; ez kezkek eduki. Abuztuaren 26-an, *Notre Dame* Eliza aurrean nengola, bala txoro batek ezkerreko beso-kozkoan jo nindun. Ondo jarriko naizela esan didate; beraz, trankil egon. Kontatzekorik asko daukat; orain, ordea, danak ezin esan. Alako batean, eta ez berandu, etorriko da era, ta Hendaya-ra urbilduko naiz. Orduan ikusiko dugu alkar. Eskumuñak danori, izeba-osabak antzi gabe. Zer, Xalus aberastu al da?

Agur, ikusi arte.

Praxku

Nere zuzenbidea: *François Atondo, Capitain du C.E.F., Hotel Dieu-Place Parvis N.D. PARIS «IV»*

E.O. Bide beretik erantzun diezaidakezute. Amabirjiña eguna ondo pasa, ta Salbe bat errezatu nere izenean Ama Guadalupekoari, berak salbatu nau-ta. Alkar ikus dezagunean, esango nolatan. Agur».

Ura poza artu zuten Atondotarrak! Etxe aldetik zebillea, ain zuzen, Joxe Mari. Urteroko oporraldiak, oituraz eta al zuelarik, jaien inguruan, Amabirjiña eguna barne, artzen bai zitu. Gerorako utzi gabe, bazkal-ondoan pianpian Gudalupera igo ziran senar-emazteak:

– Bai, aatik, Salbea gaur bertan errezatu behar degu Guadalupen.

Itzuli ziran bezin laister, kosta ala kosta alaba mojakin itz egin zuten telefonoz. Sinistreak lan ematen du, baiña Ondarribiko *titibiliti* Zaragoza urrunetik entzun aal izan zuen Terexak.

* * *

Aliatuak oñak Normandian jarri ezkeroztik, Hendaian zeuden aleman gudariak, beren bizkarretan aznaia bailute bezela, kexatzen, artegatzen, ura urduritzen ziran asi.

Beinere ikusi al dituzu basa-antzarak ondartzan tipatuak, begiak erne, lepoa tente, oro keiñu ta kezka, gizonen bildur? Alaxe alemanak; zer-baiten usnan, izukoi, larri, gibel-beldurrez, nork tiroren bat emango.

Juantxo erabat bereganatua zeukan Justo-k ordurako. Oillo busti, koldartzat artuko zuela-koan, etzen ausartu gure mutilla ezetz esaten; bere gogoaren kontra bazen ere, aurrera jo bear. Lendabizikotz agindu zion lana etzen ainbeste-koa; kilo bat piper-gorri Txingudi-ko txoko jaki-ñera eramatea. Ori zan dana. Bigarrenago eta iru-garrenago aldian berdin; piper-gorri kiloa.

— Jes! Frantzi ortan urde asko iltzen ditek nunbait!

Urrenkoa, aatik, arrisku aundiagoko lana zen. Goitizenez *Atributo* zeritzan gizaseme gordin bat beste aldera pasatzekoa. Igande arratsalde batez Juxto ta biak ekarri zuten Donostitik *Atributo*. Gauaz bere etxepeko eian gorde ondoren, urrenko goizean, arrantzale-mantarrak itxura-aldatuta, batel batean eraman zuen Juantxok. Ontzian sartu-ta bereala, tosta azpian, otarre ta zira artean izkutatu zun gizona. Alaxe igaro zuten Santiago-zubia.

Bein Pausu-ra eldutakoan, kañabera artean gorderik zegon lagunak berekin artuta eramango zun. Etxerakoan, bidenabar, paperetan bildutako lokari bat ekar arazi zioten.

— Zer ote da barrenean?

Diru-paperak zitezken susmoa Juantxok, eta Juxto-ri galdetu.

— Kontu-gero! Neunik ere etzekiat, eta eniokek iñori galdetuko. Itsu-itsuan agindua bete, ta kito! —erantzun zion zakarki.

Juantxo ari zen poliki poliki trebetzen ixilgordeko eginkizun larriagotarako.

– Orain mendi-bide izkutuak ezagutu bear dituk. Erakutsiko dizkiat Ibarla, Enekolta, Sarioia ta Amasain-go auntz-zidorrak. Gau illunetan errex gorde zitekek bat mendian; gero, muga-zainen ibilliak arretaz kirikatu-ta...

Ondoko egun batean, Punnta-tik urbilleko kañaberadi zear, doi-doi txonkatillak bustita, beste aldean ziran laketu. Itzuli ere bide beretik; ori bai, axeriaren maltzurkeriz eta sugea bezin gurbil eta erne ibilki. Alemanak bazuten muga aldeko kontrabando ta izpi-lanaren berri; egiñalak egiña-gatik, ezer argitzen ez, ordea. Berekin zerabilzkiten polizi-zakurrak ere bana banaka il egiten, pozoia janda edo basa-piztientzako atxamartetan erorita.

Bein, Biriatu-ko Arrupea zearkatuz, Txoldogaina mendi inguruko bordara zijoazten bildura batera. Aleman-guardak euren atzetik zetoztela ikusi Juxto-k urrut-ikus gailluakin. Juantxo larritzen asi.

- Ez adi izutu. Errex etzipetuko dizkiagu.
- Txakurrekin zetozte, ordea.
- Askoz obe.

Sakeletik piper-autsa artu, ta metrotik metrorra lurrean iraurtzen asi zen Borda-raño bidean. An zeuden zai beste iru lagunak. Zakurrekin batera arrastoaren atzetik aleman goardak ordu bete barru zuzenean Borda-ra iritxiko ziralaa igarririk, asti naikoa bazeukaten-da, bostak bere ipurtesteak ustu zituzten Borda barrenean: *postre* guriena Juantxok utzitakoa, noski. Itzulerakoan, berriro piper autsa purrustatuaz eta

mendi-saietsetik zear, sakaneko ur-putzuan preskatu aldi bat artu, ta beti zearka zearka Kalbario bizkar gunetik barrena *La Croix de Bouquets*-a jetxi ziran. Andik aurrera, bakarka ba-koitza bere aldetik. Juxto Hendayan gelditu zan. Juantxo, ostera, Hendayako talde-lagun batek batelean artu, ta Ondarribiko Kai-zaar aurrean utzi zun. Xinforianoren zarpillaz jantzita joana genuen; alaxe, arpegia piper-autsaz pittin bat gorritu ta, karabineroen aurrez aurre igarozen patxaran eta geldiro...

– *Hola, Sinforiano ¿Qué: mucha pesca?*

– *Así, así.*

Bere buruari parre egiñaz, onela zion kolko-rako:

– *Hola, Sinforiano, neri? A, zerriak! Orain bazekiat piper-autsa zertarako dan. Emendik aurrera ez duzue *pastelero* arpegi zurbil askorik ikusiko.*

Amak berak Xinforianotzat artu zun etxeko sotoan sartu zanean. Anttòni-ren arrimena etzen izan nolanaikoa, ur-parrastadaz arpegia garbitu-ta gero, aurrean agertu zitzaionean.

* * *

Bazirudin Alemania-ren ondamena etetean zegoana. Alare, urrengo negu guzian eutsiko zuen zain da muiñ. Ahalez gora atxiki ere. Baiña alperrik. Amilka bera gero ta lasterrago zi-joan-da alako batean egin zun arenak. Maiatza-ren 1-an Hitler-ek bere burua il. Arroputzaren amaiera kaxkarra!

Japonesak, aatik, gogorrean zirauten oraindik. Baina Irailla-ren 2-an amor eman aiek ere.

Munduko bigarren gerra nagusia amaitua zen azkenean. Noiz arte?

* * *

Aragi oneko zanez, aguro xamar sendatu zen Praxku. Zerbait gizendu ere egin zitzaigun hospitaleko egonaldi arte ortan. Nork bota zituena bala aiek? Nori aurtiki ote zizkioten? Erantzunik gabeko galderak.

Alako batean Philippe Marie Leclercq jenerala Praxku hospitalean ikustera. Lañoki ta patxadaz itz egin zuten alkarrekin. Ariketaren bidean, Praxkuk:

– *Mon Général*, jakin beza garbi nere egitazko zoria; jakin beza nor naizen.

Gerra bukatua izanik, ez-egoki zerizkion itzalgaizkeriz jarraitzea, ta *xero por xero* dana aitortu zion.

– Ondarribitarra naiz, Españiatik iges etorritako desertore bat. Besterik uste badu ere, ez naiz prantzesa. Asiera artan erresistentzi-talde batean ibilli nintzan; orduan eman zizkidaten agiri-paperetaz baliaturik sartu nintzan gero Prantziko gudaloztean, eta bertan jarraitu dut gerrateak iraun duen arte. Dakikenez, kapitan maillaraño-igoa ta *medaille militaire* baten jabe naiz.

Arriturik eta atsegiñez entzun zion Leclercq generalak. Arrigarria zen, izan ere. Ber-berak

urratuko zizkion prantzestartasuna lortzeko bi-deak.

– *Non, mon Général.* Oraingoz enuke nai nere erritasuna galtzerik. Nere aberriaren auzi-mauzia laister argituko da, ta etzait komeni. Nere graduak galduko ditudala badakit. Zer egingo det...

– Iñoletan ez! Indotxinarako izendatu naute orain-oraintsu. Leen nerekin ibillitako ofizial-taldea naiko nuke inguruan. Gizon eta suarki portatu zera beti; nere uste osoa merezia duzu. Beraz, zuk nai ezkeru, oraindaño bezela nerekin jarrai zenezake. Frantziak zor dizu ainbeste. Zuk esan...

– Zure manutara nago, *mon Général.*

– Pizkortu artean ar ezazu atsedean alditxo; zoaz zure lurraldera, Hendaya-ra edo, ta egon zaite lasai illabete oso bitartean. Ni datorren astean nijoa. Agur, bada, Indotxinan alkartu arte.

* * *

Ia bost urteren buruan, etxeko bezela artu zuten Praxku Etchola-baitan. Etzeukaten aztuta, ez. Bein edo beste jaso ere izan zuten aren eskutizik naiz Argeliatik naiz Italiatik eta azkenekoa Paris-etik.

Hendaya-ratu bezin laister, lenen lenengo agertua kai bazterrera. Begien aurrez aurre Ondarribi xarra, Jaizkibel mendia, Guadalupeko baselizatxo. Bat batean, Iparragirre-ren bertsoa kantatzen asi zen aopetik, negar gozoa zeriola:

«Ara nun diran mendi maiteak,
ara nun diran zelaiak,
baserri eder, zuri zuriak,
iturri eta ibaiak.
Hendayan nago zoraturikan
zabal zabalik begiak,
ara España, lur oberikan
ez du Europa guziak»

Españaiko Consul etxera jo zuen gero. Etzuen batere txarki artu ordezkariak, bestera baizik. Agindu ere zion berak erakarriko zituela Ondarribitik aren gurasoak, prantzesen-gandik eskubidea lortu baiezkoan.

Aste beraren barruan, Atondo legorreratu bezin laister, Etchola-baita'ra Praxkuren aita-ama alaba txikienarekin.

Esan-eziñekoa, esan eziñik bada, seme-gurasoak elkarganatu ziraneko une zoriontsu ura. Nolako besarkada estuak! Nolako laztan sutsuak! Zein negar-malko gozoak, pozaren pozak eragiñak. Eta ondorengo alkar-izketa, zein alkar-izketaren atsegiña! Ikuskari begiragarriagorik! Luisatxo, anaiaren altzoan, onek ekarri zion urrezko ordularia pallakatuz, eta gurasoak sor eta lor semeari begira xoratuak.

— Kapitan, alajañetan! Gradu aundiak artu dituk. Aizak eta... Zer esaten uan azkeneko eskutitzan? Amabirjiña egunean jaso genian ire karta ain xuxen eta arratsalde artan bertan igo giñuken Guadalupera, Alardea ikusi gabe.

— Ara, ba, ama. Beti nerekin daramat zintzilik zuk lepoan jarri zenidan medalla. Ikusten?

Ikusten nola dagoan koskatua? Balak medalla jo lendabizi, ta errebotez nere beso-kozkoa. Au euki ezpanu, petxutik sartuko zitzaidan. Ederretik libratu nintzan. Ama Guadalupekoari zor diot bizia. Zure otoitzai esker, ama.

– Otoitzai eskerrak, noski, eta ire biotz onari ere baita. Ire laguntzagatik ezpalitz, nola ordain genitzakek Luixa-ren eskola-kastuak eta Kandidorenak? Askok .kosta zaizkiguk onen ikasketak. Ire ontasuna saritu nai izan dik Ama Birjiñak...

– Nere laguntzak zerbaiterako balio dizula jakiteak atsegin ematen dit.

– Sobranteak ere badituk. Aurrezki-Kutxa-n sartu dizkiat. Orientzean arki intek agian.

– Aipatzea ere! Zuretzat bidaltzen dizkizut. Zureak dira. Ni ongi ateratzen naiz. Gudaldi bitartean, gainera, illeroko saria bikoiztuta jasotzen genuen; txanpon batzuek aurreratu ere ditut. Gerokoak ez nau kezkatzen.

– Andretxoa ar dezakenerako ongi etorko zaizkik.

– Ori geroak esango du. Oraingo beintzat ez dut ezkontzeko asmorik. Aski zait zuen maitasuna. Agian Indotxinatik itzulitakoan...

– Nola Indotxina-ra?

– Bai; ogei bat egun barru Hanoi-ra nijo. Leclercq jeneralak bere ondoan ikusi nai ninduke...

Atondo, arriduraren arriduraz iñoiz baiño ixillago, semeari ao-xabalik entzuki. Tarteka itzok jalkitzen zituan soil-sollik:

– Kapitan, alajaña! Gure semea kapitan!

Azken-urreko laztan-besarkadak bai min-katz eta samiñak!

– Agur! Ikusi arte! Aztu gabe, esan Juantxo ta Sinforianori ar zuria egiñ aitzakiz edo nolapait Txingudira urbil ditezela. Bakoitzarentzat esku-muturreko erloju bana baditudala, eta etortzeko. Neunik, eskutik eskura eman nai dizkiet. Ordulari au Kandido-rentzat, ama, ta egiozu soiñeko berria itxuraz ager dedin.

–Jainkoak lagun deikela. Berak ordainduko al dik gurekin dagiken on guzia.

– Agur, seme!

– Agur, ondo izan.

Urrengo igandean agertu ziran bixkiak anaiarengana, tankarta pean gordeta eramán ziztuzten dozenerdi sagardo botillakin. Ezer gutxi izango zen, baiña bai gustura artu Praxkuk. Ondarribiko sagardoa! Zokuetakoa gaiñera!

Txingudiko zubipetik barna bereala zaude *Bas Quartier*-en; aruntz jo zuten iru anaiak. Xinforianok, beti bezela, itxas-kontuak itzetik ortzera. Juantxorentzat, berriz, gizarte-arazoak ziran garrantzizko bakarrak. Oneri ez aipatu Don Braulio-ren zipotzkeria, langilleriaren kinka txarra, nagusien diru-zalekeria, materialismoa, ta olakoak baizik.

– Sinismen-gabeak orrela jokatzea, tira. Kristo aotan artu-ta, ordea, erlijioaren babesean estalpeturik...; nik ere ezin diat ulertu, Juantxo.

– Euki-goseak gizona ortaraiño itsutzea,

egia esan, ezin diat ulertu. Zer dagiten etzekitek.

– Orrela izango duk bear bada, baiña beti ez gaituk etsipenean egongo. Ni beintzat erre erre eginda nagok. Goitik berakoa beetik gora irauli arte etzegok gauz onik. Amak dionez, ik ere ala olako nagusia omen uan Xalux; aren jauntxokeria zein neurritako zenik etzekiat; gure nagusiak zigorra merezi duela, bai. Eskerrak laister serbiziora goazela; gañontzean ez egitekoren bat egin nian onezkero.

– Eorrek esan duk. «Ez egitekoa» ez duk beiñere egin bear. Besterik duk legez eta bide zuzenez egin bearrezko iraultza. Zinkuriñak eta arrazoibide izunak alde bat utzi-ta, nere iritziz ez batere txarrago zear bidez ekitea. Guk onela jokutzen diagu gudu-lekutan; nun edo nun itxurak egin, eta ordaiñak gutxien ustetako tokian eman.

Bereala jabetu zen Praxku ze tajuzko anaia zeukan; bere kide-kidekoa zen Juantxo, edozein zuzengabekerien aurkako. Don Braulio ta Xalus-en antzeko zital-jendeak zenbat kalte egin dezaketen!

– Bakarrean artu bearko diat— zion bere baitan Kaximiro gogoratu—. Nere lagun jatorraren gisako bat topatu izan balu... Onez onez aolku batzuk emango zizkiot.

Bestela baitakoan, kumunera zijoalakoan alegia, Peillo-gana urreratu zen unetxo batez. Etchola baita-ko jaunak berealaxe antz eman zion Praxkuren amarruari, ta andik aguro elka-

rrekin bazkaldu zuten gelara agertu zen edari otzak eskeinki.

Pillota, fotballa ta itxas-kontuak itzpidetzat arturik, Peillo errex moldatu zen Xinforiano bere naitara erakartzeko.

Eta jakiña, zaldiak ao-ugalari kasu dagion antzo, an asi zen Xinforiano:

– Gure motorrak 50 HP. (zaldi) ditu; Zumayan egiña. *Bodouin* motorraren lotsik ez du.

– Bon, bon; hemen ere badituk onak, gero. Kontu emazak zuenak baino hobek ez ote diren. Arcachondik ekarri berria badik ene lagun batek Ondarraizun. Nahi baduk ganen gaituk ikusterat.

Etzion bi aldiz esan bearrik. Bereala irentsi zuen amua arrantzale gazteak.

– Zuek Ondarraizura bitartean, gu *Saint Vincent* pastelgintzara goazik, onek bertako labe egin berria ikus dezan. Luzenaz ere emendik ordubetera itzul zaitezte.

Bas Quartier-etik urbil dago Hendaya-ko ilberria, ta andik bertan *Les Monument aux Morts pour la Patrie*; aruntz eraman zuen Praxkuk bere anaia.

Ikusmenean Ondarribia, leen utzitako ariari eutsi zioten:

– Oartuko intzan, noski. Naita aldendu arazi diat Xinforiano; orain lasai itz egin genezakek.

– Orrenbeste maltzurkeri badiat. Ederki es-

narazi natxiok Don Brauliok, diru-zale zeken orrek...

– Ainbesteko gorrotoa al diok? Ire lan toki ortan ez ote kasko-berotzailereren bat?

– Ni sor-sorrean nengokan lenago. Lantegi-ko lagun batek iratzartu natxiok. Mutil argia, suarra, bizia, biotz-oneko adiskidea.

– Igerri al diok edo esan al dik ze iritzitako den?

– Garbi esateko, komunista duk.

– Banian bildur.

– Bildur, zergatik? Kapitalismoa eraizi ta langilleriaren eskutan erri-zuzenpena jartzekotan, elkartu bearra zeukagu derriorrez.

– «Mundu guziko langilleak, elkartu!» Ede-rra esakuna. «Erriaren opioa da erreljioa». Beazak, anai. Neuni ere tresmaillean eror ninteen Kaximiro-ren ordeze ire lagunaren antzeko bat topatu banu.

– Zer tresmail ta pandarreta! Ez al aiz konturutzen dirudun-taldea egunetik egunera gaingorra dijoala? Aberatsak gero ta aberatsago bezela, beartsuak gero ta beartsuago gerala?

– Ez diagu asarre bearrik, Juantxo. Ni ere iñungo ditadura guzien kontrako nauk. Pertsonak gaituk, ez abere; batzuen batzuk, egia, artalde antzo erabil nai gatxiotek. Zenbait filosofi burubideren eragiña zebillek tartean; gaurkoz, ordea, ezin genitzakek aztertu. Urte auetan asko eztabaidatu diat komunistekin. Badizkiat iritzi ortako lagunak ere. Zintzo ta fiñ askoak ezagutzen dizkiat, baiña...

– Ba, orregatik. Fiñ eta zintzoak diralako, urkoaren alde beren bizia emateko gertu daudelako, orregatik maite dizkiat.

– Egi-egia, ez diat ukatzen. Sakonagoko arazoa duk, ordea, Marxismoa. Orren barrunbea apur bat bedere ezagun aal izateko, aurrena Marx eta Engels-en liburuak irakurri bear; alemaneraz, gaiñera, kontu! eta gero bekoz beko aurkakoen iritziak ere ezagutu. Esanak eder, egiñak lander, motell.

– Apaizekin ere ez al zaiguk ori bera gertatzen?

– Baita; geiegi tamalez. Ez aut mindu nai, baiña badakik zer ikusten detan? Ba, internazionalismoa aotan, giz-anaitasuna ta alkartasuna itzetik ortzera; egipenak, orratik, abertzalekeriz josiak. Ator onara *tornero* komunista bati bere lanbidea kentzera; aguro entzungo duk: «Oa eure aberrira!»

– Noski! Komunismoa oraindik mundu guztian nausitu ez delako.

– Ikusten diat nundik abillen badakikela. Atsegin zaidak, etzakela uste. Bere kabuz pentsatzen bear dik jakin gizonak. Ire bidea ori baldin badek, segi aurrera. Gizatasunez joka zak, ordea. Atondotarrok alkar bestelakoak gaituk; azpiko atala, aatik, berdiña. Ez adi izan salati ez salatzalle; izan adi beti otxan eta ongillea.

– Eskerrikasko. Orren uzian nebilek. Gure amak erakutsiak etzeuzkat baztertzeke. Elizara juaten diran guztiak gure ama bezelakoak balira, edo Terexa bezelakoak... orduan bai orokar-

tasun jatorra, orduan bai egizko anaidea ta benetako pake ta zoriona.

– Goazemak nor gure bidetik. Ama Guadalupekoa beñepein etzakela ukatu sekula...

Beren bostekoak alkarri estu-estutu ondoren, urbilleko *Saint Vincent* pastelgintzara ziran sartu. Arriturik gelditu zen Juantxo bertako txukuntasun eta nagusi-menpekoen arteko erkidetasunaz. Ura zen egizko gizabidea!

Sumiñaren sumiñez beste etsi-biderik gabe, zenbat ez ote dira biurtu komunist! A, Xalus! A, Don Braulio! Nunbait erantzun bearko dezute!

Etchola-baita'rakoan, arestian utzitako solasari lotu zitzaien.

– Laister serbiziora oa. Armada ez duk jostaketa, gero. Utzitzak ire ideak eta arrazoi-bideak etxeko gelatxoan, are eta eure izakera bera ere bai, al giñoan. Bi urte azkar igarotzen dituk, eta asko ikusi-ikasia etorriko aiz. Elukek ezer aurreratuko arrixkutan ibiltzearekin. Ire lagun orrek, berak esango dik kuarteleko agintarien esanetara makurtzeko. Militarren artean onela jokutzen diagu. Gerora zerbait egin nai dezanak, supritzen, obeditzen eta apal izaten bear dik ikasi aurretik.

– Ondo zegok, anai. Orain berriro oarpen berdintsuak egin zizkioken Juxtok gure arteko bati.

– Bein kunplitu ta etorri adinean, eorrek ikusko duk zer egin; bitartean egizak tonto-pa-

pera. Ama-ri esan ziot bidal diezazuela illero diru zerbait sakelerako. Zabilzate beti lotsaz jantziak eta orain arte bezela maite ezazute alkar.

Etxera sartu ziraneko, eldu-berri ziran Peilo ta Xinformiano. Orduak aurrera-ta aldegin bearra zuten, damurik. Azken-agur egin ondoren, etorri-bide izkutu beretik Ondarribiruntz abiatu ziran bixkiak, beren eskumuturretan ordulari eder banakin.

Muga-zuina bost minutuko tartez eldu ziran, eta arrandegiko karabinero-zaitxol ondolik igarotzean...

– *Buenas tardes!*

– *Adios, Sinforiano.*

Andik pixka batera:

– *Buenas tardes!*

– *Adios, Sinforiano.*

– Nola diteke? Oraintxe ez al da, ba, pasa? –pentsatu zuen karabineroak begiak igurtziaz—. Amets egingo nuen.

Geroxeago, Gregorio sakristaua ta Enrique botikarioa eliz-atarian berriketan, eta bi anaiak kale nagusitik beerakoan bein banatan igaro aien aurretik...

– Agur, Juantxo!

– Agur!

Bost minutu geroxeago:

– Agur, Juantxo!

– Agur!

– Zer, txantxetan ari al aiz?

– Zer, ba?

– Oe? Leentxeago pasa den anaiari «agur, Juantxo» esan diok-eta...

– Bai, ta zer?

– Ta zer? Orain pasa denari berdin deitu diokela.

– Beazak, Enrike. Ain berdiñak dituk! Nik beintzat ez dizkiat bereizten. Bieki Juantxo deitu-ta ziur seguru bietako batekin asmatzea. Ez al duk ala?

– Jakiña! Arrazoi duk.

– Bai, ba. Bestela, agian Juantxori Xinforiano ta Xinforianori Juantxo dei niezaiekek, eta orduan batekin ez, biekin uts egin.

– Au aparejua!

Juantxok bere baitarako:

– To, Gregoriok ezagutu natxiok.

Eta Xinforianok:

– Ariri, nai baduk!

* * *

Hendayako tren-geltoetik aurrez-aurre begizatzen da Ondarribia, eliz-kanpandorre lerdena nabari zaiola. Txingudi-ingurua gutxitan bezin gardenik ageri zan goiz sargori artan. Trenaren abiada-txistuak ozta-ozta iratzartu zun Praxku bere sorralditik, eta berealaxe lengo gogorapenetan murgildu zan berriro.

– Eliza bai ederra! Or bataiatu ninduten. Pa-

sadera! Umetako gure jolas-leku maitagarria!
Dendetako kalea! Une ontan zertan ari ote dira
etxeokak? Orra or Barra-eneko sagardotegia.
Ara an goian Guadalupe. Azken aldiz Kaximiro-
kin igo niñuken... Gizajoa!

Burni-bideko leenen biurgunetik kanposan-
tuko alzifreak ikusi zituanean, «Koxme, Koxme
gaxoa!» jali zitzaion ezpainenetik. Eta lipar ba-
tean atzeruntz gelditu zan Higuer-ko munoa, ta
itxasoa azaldu zabal zabalik. Txalupa banakak
an eta arago. Arrantzaleak arrantzan, ontziare-
kin balantzan.

– Agur! Agur!, nere biotzeko Ondarribi
maitea. «Ama, zertarako da negar egitea? Lais-
ter etorriko naiz, konsola zaitia».

Eta uste gabean Bayonako gel-tokira iritxi
zen trena.

– Agur,... Adour!

Biaramunez abiatzekoa zen Indotxina-ra
Forces Armées egazkin batean. Egun gutxi ge-
roago Tonkin-go Hanoi uriburuan kokatuko zi-
tzaigun. Anartean Frantziaren koloni izandako
lurralde aiek, japonesen mendean zeuden guda
ezkeroztik, eta aldi artan naiko giro nasteka-
tuan arkitzen ziran, bertako abertzaleek sortzen
zituzten zalapartak zirala-ta. Ain xuxen, ango
arazoa zuzentzera joana zen Leclercq jenerala.
Beraz, naspil-inguru larria idoro zun Praxkuk
ara iritxi zanean.

* * *

Serbiziora joateko garaia eldu ere zitzaien Juantxo ta Xinforianori. Etzeukaten soldautzatik libratzerik; edo iges egiñaz atzerrian bizi edo legearen mendera jarri. Gerra amaitua zelarik, astakeria litzake desertore antzo erbesteratzea ta, egia esan, etzuten, Xinforianok ez beintzat, orrelako asmorik. Bi urte nolapait pasa, ta kito!

Juan Sebastian de Elcano bela-otzian egokitu ziran biak, iru illabetez Ferrol-en egon ondoren. Juantxo, bere ofizioari zegokionez, pastele-ro bezela, ta Xinforiano errepostero gisa. Goseak egoteko ardurarik etzeukaten beintzat, eta ainbestez konten zeuden bai berak bai etxe-koak.

* * *

Terexa, berriz, Ondarribi aldetik zebilkigun. Saigon-a joan aurretik, arako izendatua bai zen, etxe-koekin illabete osoa —eguberriak barne—igarotzeko baimenarekin. Dakigunez, irakasle-go ta gaixo zaintza-tituluen jabe zan; eta Zirujiasi-masien ezagule. Alako zoria egokitzea ere! Nora bidaliko, ta Indotxina-ra! Vietnamera! Praxku zegoan lurralde berera!

Mojategi, ikastetxe ta hospital aunditako nasaitasunera oituta zegoanari alako zirrara egin zion etxe-ko ersturak eta batipat barne-utsaldiak. Etzen gutxiagorako. Aita itxasoan, Praxku erbeste urrunean, bixkiak serbizioan, Kandido apaiztegian, gizonezko guztiak etxetik-at. Azkeneko au, neke erdi! Eguberri-oporrak zirela karia, andik egun gutxitara etorriko zan, eta

aita, urte xarretarako. Kanpoan zeudenen ikusmiñez, ori bai, baiña Jesus-en jaiotz-ospaketak sortzen duan alaitasun giroan igaro zituzten egun labur aiek. Gabon, Olentzaro, Eguberri, Urtexar..., zein ordu gozoak etxe-sukalde txokoan! Poza ta illuntasuna batean, nastura gazi-gozoan.

Txolarte batean erri-etxeko liburutegira jozuten bertako *Espasa* enziklopediaren bitartez Indotxinako zenbait argitasun jaso asmoz.

– Bai urruti dagola!

– Ia-ia orpo-lurretan, Filipinas inguruan.

– Tokitan dago!

– Ta, nola joango zera?

– Aideplanoan. Sei goaz. Indotxina-ra, Saigon-a, bi; beste lauak Gujerat-era. Aurrena Indian geldituko gera sei illabetez, Ahmedabad-en; an daukagun Ikastegi aundian misio-ezagutzak egin, eta arrut!

– Arrut! esaten duzu? Barrena bear da...

– Praxkuk ez du makalagoa; ari gudari-elburuak daragio; neri, berriz, giz-arimakiko egarri-miñak daragit.

Goizero, bederatzi egun jarraituetan, Guadalupera igo zen amarekin. Amabirjiñaren iduri aurrean meza entzun, bederatzi urrena egin, eta gero, itzuleran, Koxme-ren illobi ondoan egon-alditxo.

Aitari gogoratu zitzaion. Egun aietako batean, taxi artuta, Lourdes-a joan-etorria egin zuten senar-emazteak bi alabakin.

Lourdes! Egitazko zero txiki! O, Massabie-
lle-inguruko otoitz giroaren berezia! Nun egiten
dira errezu sutsuagoak, nun sentitzen biotz-pil-
pira gozoagoak, Jainkoaren eragiña nun da su-
matzen bertanago? Zeru-aurre benetakoa Lour-
des! Zenbat gorputzeko min-sendatze arrigarri
eta arima-gaixotasun sendatze ere arrigarria-
goak! Nolatan antzi an egin oi diran gau eliz-ji-
rak, gurutze-bideak, iturriko ur-tragoxxak,
oroigarri ta txitxibiritxi-erosketak, eta batez ere
aldareko Sakramentu Santuarekin egiten dan
ibildeuna!

«Jesus, Dabid-en Seme ori, gutzaz erruki!
Jauna, maite duzuna gaxorik dago!
Jauna, Zuk nai ezkeru, senda nezakezu!
Lourdes-ko Ama, zaite gure bitarteko!
Lourdes-ko Ama, onetsi gure Erria!
Ave, ave, ave, Maria... Ave, ave, ave, Maria!»

Ze ordu zerutarrak! Bai ederki opatu Tere-
xak aspaldiko bere gogo!

Amabost misterioko errosario santua esanaz
eta eliz-kantak abestuz laburtu zuten itzulera;
uste gabeen Hendaya-n ziran. Eta eguna ondo
ustiatzeko, etxera baiño len, Etchola-baita-koak
agurtzera urbildu ziran. Pello ta Madame Bidar-
te-k artu zuten poza! Terexa, Praxkuk ainbeste
aldiz aipatutako Terexa, aurrez aurre zekusten.
Itz aspertu goxoa egin ondoren, berant-aintzin,
agur, agur!

Amute-n sartzerakoan, Ama Guadalupekoa-
ren Salbea kantatzeari ekin zioten gogo beroz,

Lourdes-ko joan-etorria ezin ta ederkiago amaituaz.

Ilbeltzaren 21-an, San Sebastian biaramunez, artuko zuen Terexak Zaragoza-rako bidea. Joan aurretik, alabaña, beste kutizitxo bat bete al izan zun ere: Saturraran ezagutzekoa. Andre Praxedesek ala naita eta beronen kontura, euskal itxas-ertz barrena egingo zuten txangoa. Zein bazter politak! Bai ikusgarri ta pintagariak, itxastxori kabi iduri, Orio, Zarauz, Getari, Zumaia, Deba, Mutriku, Ondarroa, Lekeitio, Bermeo ta beste. Lendik ezagunak zituen Donosti-tik Bayona-ra bitartekoak; ez itsusiagoak Pasaia, Ondarribia bera, Hendaya, Donibane, Getari, Bidart, Biarritz... Euskal-Erria!

Euskal Erria:

San Iñazio-ren asterria,
Xabier Deunaren aberria,
Ainbat misionesten sorterría!

Ederra zera, maitagarria,
Euskaldun danen bizi-erdia,
Edozeinentzat gustagarria!

Aldendutzea apur bat iltzea omen da. Bai ote? Azia ernetuko bada, lendik il-bearra da ezin bestez. Or ba, ernatzea ez al da bizi-berritzea? Jaiotzerakoan amarekin lotzen gaituan xilbor-estea eten ezik, ez genuke bizitzerik. Onelatsu, bizikera berri bat biziko badugu, geren etxekoe-kin lotzen gaitun aragizko lokarria autsi bearra; ta lotura ori askatzekotan, pittin bat il egin bear nai ta ez. Aragiarena diot; maitasun-lokarria ari-maren arazo danez, ezin baiditeke askatu gorpu-tzez urrunduatik ere.

Illabete osoa goxo-beroki, negute arren, etxeko epeletan igaro ondoan, itzul-garaia eldu zitzaion Terexa-ri. Oraingoa bai azken-agurra! Agur, Ondarribia! Agur, guraso-senideak!

Esatea errex da. Giz-arimakiko gose-egarriz, egia, gorago yoranez dijoakigu sorterritik urruna; maitasun berri batek darama zeru-bidean, ameslari, eskeintza bizi-bizian. Ala ta guztiz, «Arima ongi sortuak erria dizu maite; ta partitzeko tenorean beti doake triste».

Aurgintza berri baten oiñaze miñak nabaitu zitun Anttonik bere gogo-biotz eta zain-muiñetan alabaren joateaz. Izan ere, ingurura begirata, Luisatxo besterik ikusten ez. Zazpi aurren ama zanari bat bakarra geratzen zitzaion aldamenean. Eskerrak fede aundiko emakume zana eta goizeroko Jaunartzeak indar berri zemaiona; gañontzekoan zorabiatzeko bideak ziran.

Arratsaldean Madrid-en egazkiña artu, ta urrengo egunerako Beyrut-en zan Terexa. Sei orduko egonaldia, ta illunabarrarekin batera Bombay-en. Atsegin aundiz agurtu zitun bertan uritartuak zeuden euskaldun jesuita batzuk, eta andik egun gutxitara Ahmedabad-en (Gujerat) kokatu zitzaigun. Lurralde aietako inguruaren zerbait ezagutza bazeukan leendik, liburuen bitartez egiña. Alabaña, esana ta izana etziran berdiñ. Iduritu baino askoz ere kaxkarragoa arkitu zun ango gizarte-biziera: jende errukigarria erruz eta milla sasi-jainko. Ego-Vietnam-go Saigon iri nagusira jo baino lenago, sei illabete bitartean bertan egondu zan zenbait ikaste egiten. Saigon-en beste bi illabete, Siam-darren oitura-

ekanduak sakontzen, eta azkenik, Annam alderdiko uri nagusian, Hue'n gelditu zen bizitzetaz, beste bi moja beretarrekin eta Oxarango Aita Manex makearrarekin batean.

Ez aspaldi bazter aietatik komunistak alde egin zutena, igesian dana zabaletik zabalera naastuta utziaz. Etorri-berriak bereala lanari lotu zitzaizkion leia bizian: zaurituak sendatzen, eskola ematen, nastapil oro antolatzen.

Onela idatzi zien Terexa-k bere etxekoei geroko batean:

«Guraso anai-aizpa maiteak:

Iritxi naiz noizpait nere bizi leku berrira, Hue uri ederrera. Itxasotik urbil dago, ibai batek erdibitzen dualarik. Nola adieraziko nizueke? Egizue kontu Ondarribia ta Hendaya uri bakarra direla; aundiagoan, jakiña; ba, orrelakoxea. Gaiñera, gure erria bezela, murre-arresiz inguraturua au ere. Eta or bezela, emen ere bada Palazio aundi bat; bertako Jaunaren serbitzuan bizi omen zan erri guzia, esaten dutenez. Orain gauzak aldatu-ta daude. Emengo giroa pil-pil dago. Or bezelatsu, ama, emen ere abertzale-giroa. Ori ez da ordea, nere egitekoa. Ni, gure Kristau fede-a zabaltzera etorri naiz onera, eta aalik obekien aitor eman bearko. Jendea ernea da, ta txit leiala; ta sinestunak oso zintzo ta fiñak. Or bezela emen ere, mendi-baserritarrak dituzu Kristo-ri atxikienak. Oso pozik nago. Baaldakizute zer arkitu detan emengo etxe-liburutegian? Aita Kardaberaz Jesuitak 1761-garren urtean izkiria-

tutako liburu bat, *Eusqueraren Berri Onac* deritzana, ta baita ere *Cristauaren Dotrinaren Jaquinbide Azaldua edo Asteteren Esplicacioac*, *Don Gregorio Arrue*, *Zarauzco escola maisu izanac eusqueratua*. Oso ederra ta sakona. Ez al da arrigarri? Onaño etorri bear, Indotxina-ra, alajaña, onelako euskal-liburu bikaiñak eskura al izateko! Gure ikastetxe ontako neskatak aozabalik egoten zaizkit entzuten, mintzoa goratuz irakurtzen aritzen naizenean.

Zer modu bizi zerate? Denak ondo, ezta? Praxkuren berririk bai? Ta, Xinforiano ta Juan txo konten ote daude? Zintzo al dabil Kandido bere bidean? Ta Luisak bukatu al zun laugarren urtea?

Oroi nazazute eta laguntza eskatu Ama Guadalupekoari neretzat. Izeba-osabei eskumuñak, eta ondo izan. Korreoa nolapait dabil; au Prantzira igortzeko aukera daukat, eta andik jasoko duzute, noski.

Nere zuzenbidea:

Centre Saint François de Xavier
Rue Mekong-124- Hue Vietnam

Terexa» .

Tolosanto bezperan jaso zuten Atondo-ren etxean Terexa-k Urrilla-ren 4-an idatzitako gutuna. Geientsuenetan bezela, Anttoni ta Luixa bakarrik etxean. Astirik galdu gabe idatzi zion amak. Onela:

«Terexa, nere alaba maite-maitea:

Atsegin aundiz jaso dugu zure eskutitza.

Egun bat, zer egun bat?, ordurik etzaigu pasatzen zutzaz oroitu gabe. Egia esan, naiko kardabatuak bizi gaituzu. Paperak diotenez, gal-gal daude lurralde oiek. Nola egon trankil bi seme-alaba paraje oietan egoki-ta? Noiz bukatuko ote dira gerra madarikatuok? Lurralde ori Prantziaren uztarpean baidago, nere karta au Hendayatik bidaliko dizut obeto iritxiko zaizulakoan. Jainkoak ba'letsa!

Emen gauzak pixkat lasaitu dira, ta mugagaranbidea irekita dago. Beste aldera pasatzeko papera eman didate, ta egun auetako batean joango naiz Etchola-baitara. Peillo-ri emango diot zure zuzenbide berria, ark gero Praxkuri bidal dezaion. Nork esan? Agian alkar ikusteko aukera izango dezute. Jar zagun esperantza Jaungoikoaren baitan.

Etxeko guztiok onik gaude. Aitak betiko martxa; etorri bakoitzean galdetzen du zure berririk dugunentz. A ze poza artu bear duan zure eskutitza ikustean! Bost bat egun barru emen izango dugu. Orain illabetetsu Praxkuk telegrama bat igorri zun Etchola baita-ra ondo zegoala esanaz. Ai! Au bizi modua! Juantxo ta Xinforiano badijoaz aurrera; beste urte bete exkax, eta kunplituak. Kandido, betiko moduan; azkenoporraldietan alako otzaldia sumatu nion, bai. Aldarte-aizeren bat zitekkelakoan, ez nion kasu aundirik egin. Luixa, beti bezela zintxo; oso nota onakin bukatu zun laugarren urtea. Aurrera jarraituko du, Praxkuk laguntzen digun bitartean.

Emen, Ondarribian, ba, betiko kontuak: eriotzak, jaiotzak, ezkontzak eta erraziamiento-kartilla. Zer egingo degu! Hendayan ogi zuririk etzaie falta, eta egunotan ederki baliatzen dira pasaportedunak. Nik ere pasaportea ateratzeko asmoa dut; bearrezkoa derizkiot. Eskura dezadanean, Indotxina-tik urbillago nagola idurituko zait. Al dezazunean, idatzi Etchola baita-ra. Agur, moñoña, nere biotzeko alaba maitea. Ondo izan. Jaungoikoak eta Guadalupeko Amabirjiñak begira zaitzatela».

«Begira zaitzatela»... Bearko begiratu! 1946 urtearen azken-egunetan berebiziko burruka sortu zen Viet-Minh-dar eta prantzesen artean. Txinako komunistak laguntzen zietela, oldar biziz jaiki ziran Ho-Chi-Min'en aldekoak beren aberri-askatasuna lortu asmoz. Naspilla, zalaparta, odol-ixurtzeak. Guziz giro itsusia. Etzen, beraz, garai onean iritxi Terexa Hue'ra.

* * *

Peillo-ren eskutitza irakurriaz batera, exerita zegoen lekuan jauzi egin zun Praxkuk.

— Krixketa! Orain aste bete Hue'n nengoken-da ordurako Terexa an egoki. *College Saint Xabier?* Ezagutzen diat. Baiña, nola arraiotan bidali dute onuntza!

Bere esku balego, bereala airekoa artu, ta Jesus-amenean Hue'ra abiatuko litzake. Ezin, ordea. Beren naia egiterik ez guda-gizonak; zernaitarako baimena bear; praille-mojen antzera,

goi-maillekoen menpetasunean beti, buruzagiak esku eman ezik tegitik irten ezin. Batzar batera joana zen guda-burua, ta biaramun arte etorriko ez. Urrutizkiñez itz egin liezaiokeen, baiña etzen ausartzen; salatariz inguratuta zeudelarik, obe-bearrez kalte egin zezaioken. Gau artan etzun begirik batu. Edozein guda-erasotara oitua zegoenak, sutauts eta tiro, bonbaen txistu-orro ta aiene erdiragarrien artean zurrunka lo egiten zuenak, ezin begirik itxi. Etzitzaion nai orduko argitu urrengo goiza. Aideportua guda-etxe aldamenean egoki, ta, alabearrez!, uste baiño lenago eldu buruzagiaren egazkiña.

– *Sans nouveauté, mon Général. A vos ordres!*

Albiste latzak. Ho-Chi-Min'darrak bortizki asaldatuak. Sarraskiak nunai, erreteak, gizeraiketak. Luzapide gabe Saigon-a zijoan.

– Nerekin etorri bearko zera.

– Zure manutara nago. Lendabizi berri bat eman nai nizuke.

Itz bitan azaldu zion bere kezka larria.

– Zure tokian banengo, bereala joango nintzake. Ain zuzen, Hue, Quang Tri ta Tourane'n gertatu dira azken katazkek. Itxasoz etorritako komando batzuk dira. Madarikatuak! Zoaz, eta etor zaite al dezun lasterren. Ni oraintxe bertan nijoa.

Bata bestearen ondotik aidatu ziran bi egazkiñak; Saigon-a jeneralarena ta Hue'ra Praxku zeramana.

Bosteun bat km. Hanoi-tik Hue'ra. Song-koi ibaiari jarraituz abian Tonkin-go itxas-kolko gainetik ziran igaro, eta ordu erdi geroago begien bistan zuten Hue.

Aideportu-kontrolaren agindua: Ipar-aldean jeixteko, ta jetxi-ala lur-azpiko estalunean sar zezatela egazkiña.

Lur artu bezin aguro guda-buruarengana jo zun Praxkuk zuzenean. Eta usmo zuena, ezin ta inka larriagoa. Berri txarrak. Joan daneko iru egun geroztik esituta zeudela. Uste gabean komando batek eraso ziela aideportua beretu asmoz, eta len-oldarketa ain gogorra ez bazan izan ere, Hospitaleko bi enfermera baituran artuta, atzera egin zutela. Lau arerio an bertan ta beste bi zauritu *Collège Saint François de Xabier*-en zeuzkatela atxiloturik.

– Apostu egingo nuke bat Terexa dala!

– Nola, nola?

Dana kontatu zion.

– Ainbat laisterren zerbait egin bear degu bi oriek salbatzeko.

– Zer, nola?

Estu bai estu, Saigon-a deitu zun urrutizkiñez. *Renard* (goitizena) jenerala iritxi bezin laister, arren, aideportura dei egin zekiola abian.

Ordu erdi baino lenago telefonu-otsa. *Renard* jenerala ariaren beste muturrean. Egoeraren berri eman zion Praxkuk, eta...

– Naiko naaspillatua dakust arazoa. Zerorek erabaki bearko dezu. Egin dezazuna ondo

egiña dagoke. Bide bat ematen dizut; zuk ikus. Zuek or lau Vietmin-dar dauzkazute baiturik... Ba, *change* bat egingo bazenu...

— Ori bera bururatu zait, baiña enitzan auzartzen adieraztea.

— Bai, gizona, bai! Joka ezazu lasai, ta ea ongi kausitzen zaizun. Zerbait dakikezunean, gaztigaidazu segiran. Badakizu nerea balitz bezela maite dutala zure arreba serora. *Bonne chance!*

Leclerc jeneralaren naitara, ez giza-bidez soillik, guraso begiez ere artu bear ziran Vietmin-darrak. Ori jakiñik, eta berez ere alakoxea baizen, arrera ona egin zien beti Fraxkuk. Alaxe urbildu zen katigatuengana. Lauetako bat kapitana, komando-burua ain xuxen. Bakarrean artuta, eskua luzaturik:

— Bota bosteko ori; zu bezela, kapitana naiz ni ere.

— Badakust; ni, baitua ordea.

— Gauzak orrela gertatzen dira, bada-ta. Aduaren kazketaldi baitan gaude militarrok beti. Gaur zu; biar, agian ni.

— Gerta leikena; gutarrak ezpaidute amorerik emango askatasun osoa lortu arte.

— Begira. Zuen arazoa nere erriarena bezelakoa da.

— Ezta pentsatu ere! Kolonialista menperatzalle batzuek zerate zuek.

— Tira, jaso ezazu amarrekkoa. Auxe jakin bear dezu, ordea; ni enaiz prantsesa; ni euskal-

duna naiz, Prantzira iges egiña, desertore bat. Gernika entzuterik bai al duzu?

– Ez dut izango, ba! Erri ori jartzen digute, Euskal-Erria, esan nai det, ixpillutzat. Erri suarra, erri sanoa, erri jatorra.

– Poztutzen naiz; bide erdia egiña daukagu.

Eta zigarro bat luzatuz, wiskey-zurruta eskeñi zion Praxkuk.

– Ez dut alkoholik edaten. Zitroin-ura, bai, eskertuko nizuke, ta jateko zerbait neretzat eta lagunentzat.

– Alkarrekin bazkalduko degu laister. Entzuidazu...

Dan-dana zan bezela kontatu zion. Ao-xabalik gelditu zan Lai-Chau kapitana.

– Zuk nai ezkerro, gordetegi ontan telefonorik baldin bada, nere gudariekin itz egingo nuke. Onenean...

– Bai, badago. Arestian telefono-bidez eskatu dute jatekoa.

* * *

– *Alo, alo!* Emen Lai-Chau. Nor zaitut or?

– Ni, Dinh-Sam, ta emen nerekin Ktran-Mao.

– Ba, orruntz noa bereala; prantzes kapitan batekin urbilduko naiz. Zapi txuria eramango degu. Lasai egon; laister elkarrekin bazkalduko degu. Emen gauden lauok or baituran dauzkazuten bi emakume oriekin trukatuak izango gera.

Gu urbiltzerakoan, armak utzi alde bat. Ktran-Mao-ri esaiozu, Den bere anaia nerekin batean dijoala. Trankil egon; egun gutxi barru aske utziko gaituzte.

– Zure aginduetara!

– Orain arte. Agur!

Jeep batean, ikurrin txuria aurre aldetik, ordu laurden barruan *Saint François de Xabier*-en ziran. Esan bezela, Praxku-ta urbilduaz bat, gudariak beren armak alboratu, ta zutik gelditu ziran tentenean.

– Nun dituzute enfermerak? –Lai-Chau-k.

– Or barruan.

– Ondo al daude? –Praxkuk galdetu.

– Bai, pittin bat izutuak, otoitzean ari-ta-ari. Ez diegu kalterik egin.

– Onen arreba da bat.

– E! Española?

– Bai; Gernikakoa; euskalduna.

– Oso biotz ona du. Nere ama-ren antzeko begi apalak...

– Ireki atea!

* * *

Terexa!

Poza ta negarra, negarra ta poza.

Nolatan?

– Ba, ola ta ala; kontu luzea.

Irakurle, zuk igerri.

* * *

Illunabarrerako Saigon-en zegoan Praxku. Gertatuaren berri entzun-ala, *Renard* jeneralari negarra zerion. Guda-gizon gogorrenak ere biotz-bera dira alditan.

Bazkaldu ondoren –Terexak serbitzua– Lai-Chau ta bere lagunak Hanoi-ra itzuli ziran *Renard* jeneralarekin. Andik egun batzutara beste ogeina lagun trukatu zituzten elkarren artean.

– Pentsatze utsak ere... Alakoren batean onelako gizon prestuak gure eskuetan erori ditzekeela berriro... Aizeak orbela antzo gabiltza, zer nai ez dakigula sarritan...

– Etzazu antzi, Praxku, komunistak dirala. Jende xea zintzoa izanagatik ere, bulkatzaileak gizartearen aurkako dira.

– Uste duzu? Dana dala, milla esker, *mon Général*.

Indotxina-ingurua gero ta ein txarragoan arkitzen zan. Naspil biurriak, basatikeriak noiz ta nunai. Jazarraldi oietako batean, Dien-Bien-Phu-tik urbil, bala galdu batek ezkerreko belau-nean zauritu Praxku. Amabost egunez Hanoi-ko *Institut Pasteur*-en zaindu zuten, eta gero Hue-ra, *Collège Saint François de Xabier*-era eramán, Terexa zegoan gaixotegira ain xuxen.

Usterik gutxienean, anai-arreben bir-elkar-teea! Gaixondo bitarteko egun aiek, bai goxoak! Etxea, gurasoak, senideak gogoratuaz. Ondarribia, bai polita dala!

Beti ezin, ba, ala bizi, ta Prantzira itzultzeko agindua artu Praxkuk.

– Hendayaratu nadinean ikasiko dute aita-amak; bitartean zertako larri-arazi. Bizi naiz; ori da kontua.

– Orixe esan. Jainkoari eskerrak, bizirik gelditu zera beintzat. Erren geldituko zera, zoritxarrez, baina kaskoan jo bazindu, akabo ziñan.

– Ni banoa; zu, berriz, India-ra laister, eta egia esan, poz aundia ematen dit. Emengo gerra au luzaroko izango da oraindik, eta goiz edo berandu amor eman bearko du Frantziak. Erri bakoitzak baditu bere eskubideak. Tamalgarriena, guk alde egindakoan, besteren batzuek nausituko zaizkiola. Ezpairik ez eduki; erri aberatsa bai-da au.

– Ni ere uste ortakoa nauzu. Pena ematen didate; ain jende oneko erria izaki-ta. Noizbait agian...

– Zuk diozu, noizbait; goizetik gauera ez ditezke arazo guztiak antola. Bere eskuko jarri bitartean, ziñak eta miñak ikusi bearko ditun erria da auxe.

Andik egun gutxitara:

– Agur, Terexa, agur.

– Agur, anai, zerurarte.

– Zer? Jainkoaren naia gerta dedilla. Zu ezpazatoz, ni etorko natzaizu. Ikusiko nuke!

– Etxekoai besarkada aundi bana, ikus ditzazunean. Esan oso konten nagola, eta noizbeinetan idatzidazute, arren. Danori eskumuñak, eta Ondarribira joan bazintez, Ama Guadalupekoari egin agertutxo bat nere izenean.

– Aldi luzeak guzia aztutzen du-ta nereki-koa ere konponduko da noizbait. Oraingoz Hendayan alkar ikusteakin etsi bearko. Tira, goazemazu elkarrekin...

– Agur, agur!

Nola ez negar egin biotzik badezu? Gaixo Terexa! Sagrarioaren aurrera urreratu, eta antxe Jesus-en ondoan eztitu zun biotz-naigabea. Gogo-indarra garaille badadi, poz-bide biurtzen dira mundu ontako neke-negarrak, etsipenez eta oldez eskeñi ezkerro.

– Eskerrikasko, Jesus, ainbeste laguntzaga-tik.

Bazijoan Fraxku Prantzira bidean, bere goetan murgildua, bazter-alde ederrez oarkabaturik. Terexa-ren oroitzak zerraion tai-gabe; geien bat mutilletan izandako arrebarekiko ezin-aditu ta mokokaen inkurreak.

– Ezer enion barkatzen. Santu-jale deitzen nion. Aren elizarako joerei enizkien ederresten, arik eta zerbait zentzatu nintzan arte. Egoist-utsa zela ere bota nion bein arpegira. Ni, bai, egoista galanta. Ama egin-egiña da. Elkarren antzekorik badugu biok, dudik gabe. Izan ere, aritz beraren adarrak gera-ta...

Oroitzapenekin batera etxeko-miñ gozo-garratza xuspertu zitzaion.

* * *

Juantxo ta Xinforianok leen bezelaxe jarraitzen zuten; *Juan Sebastian de Elcano* ontzi-bela-

rian. *Marina*-ko ofizial gaiak (*kadeteak*) trebatzeko itxas-ontziá zen; eskola-txalupa. Nekez ateratzen zan *España*-ko kaietatik garai artako inka txarragatik, eta ateratzen zanetan ere ez urrutira. *Barcelona*, *Cartagena*, *Cádiz*-a noiz-beinka. Eta *Canarias* ugarteraño, bein. *Vigo*-n egon aldi luzeenak.

Bi anaiak berdiñak zirala? *Marinero*-jantzi-tan, orratik, ezinda berdiñagoak. Batetik, len baiño mardulagoa zuen *Xinforiano* bere aurpegi-uarkara, legorrean zeraman egotaldiarren, bearbada. *Juantxok*, osterá, etzedukan piper-autsez azala gorrizkatu bearrik. Bai; serbizio-aroan ziran iñoiz ez ainbat berdiñak.

Kadeteak, beste bereizgarririk ezean, usaiatik ezagutzen zituzten. *Juantxo*-ri *bainilla*-usaiá bezela, *Xinforiano*-ri *tabako-rubio*arena baizerien nabarmenki. Ofizialteria, izan ere, egun guzian *Chester* zigarroak ezpaiñetan eta *Whisky and Soda* zurrutean, etzen arritzekoa bazter guztiak bere gisako usaiá uieldu ta kutsatzea.

— Oiek zeramatek bizimodua —zioten *kadeteak* aien bekaizti—. *Alabaña*, *Cuando seas padre, comerás chuletas*.

Bixkien itxura bakana zela karia, batzuei ta besteai maiz gertatzen zitzaien jolas-ziorik. Ofizial-jendea batez ere ongitxo baliatzen zan *bixkien* itxurantzaz; are geiago kanpotarren bat maikide zutenetan.

Beingo batean, aurrez elkarrekin izketaturik, zopak gatz gutxi zeukan aitzakiz ardo beltzez betetako basoa jaurti zion *Juantxo*-ri *Ko-*

mandanteak, arropa txuria dana zikinduta utziaz. *Aitaren* egiten dan baiño azkarrago, an agertu zen Xinforiano, arropa txuriak garbi garbi, beste zuku-ontzia aurkeztuaz:

— *Creo que estará a punto.*

Besteko mai-lagunak zur ta lur txunditurik:

— *¡Ni que fuese Frégoli! ¡Vaya rapidez en cambiarse!*

Kafe garaian, anai biak batean agertzera-koan, ango parre-algarak!

— *¡Cuidado que son iguales!*

Ariurri eta barne-giro aldetik, ordea, gero ta geiagotzenago zijoan elkarren arteko desberdintza. Adi-bidez, *franco de servicio* egunetan eta beste txolartetan beti biak batera ibilkirik, baxoerdi bat edo beste artuko zuten geienez. Dana, Xinforianoren zuurkera gatik. Diru-urritasunik etzeukaten beintzat.

Ezer ez bialtzeko idazten zion amari Juan-txok. Noiznai lupi-arrantza ederrik egiten ere zutela-ta patrikerako aña etzitzaiela faltatzen. Bere sos pixarrak liburutan xautzen zitun Juan-txok; irakurtzearen irakurtzez ikasiago ta eskoladunago zedin. Praxkuren aolkuak etzioten kalterik egin. Onbidea erakutsiaz, giza-legez zerman soldauzkako-aldia.

Xinforianok, aitzitik, ezer ez bidaltzeko esaten zion amari, baina bidal liezaiokena, dan-dana *Caja de Ahorros*-en sartzeko. Lengo lepotik euki arek burua. Dirua nundik nola aurreratu, beste ametsik ez. Canarias-ko itzuleran ere be-

rea egin gabe ere etzan geldituko. Bi irin-zaku barruan lau lat-ontzi errelojuz beteak irago zitun ixilka. Gero, berari kostatakoaren bost alako irabazkiña Banku etxeko Kontu-agirian ezarri zun badaezpada. Etziran, ez, biak ezpal berekoak.

Bestenaz, bixkiek berek ere bazekiten paraldetik artzen tarteka beren izakera bitxia.

Bein batez Hotel bateko serbitzari zebillen neskatiñ eder bezain panpoxa bati txuliatzeko asmoa artu zuten.

Egun jakin batean or urreratzen da Juantxo Julitarengana (onela zeritzan), ta lotsaz eta zuka:

— Begira! —esan zion— Bilintx-en itzokin: «Oso txoraturikan naukazu; orren polita nola zera zu!»

— Ez etorri nigana mingain-zurikeriz.

— Barkatu, baiña —esan zion serio aski— egiz dasaizut; enaitzaizu txantxetan ari. Sekula ez dut andregairik izan. Nere arreba moja bezela errespetatu ta maiteko zaitut.

Itz-aspertu atsegiña elkarrekin egin ondoren, aldendueran Juantxo-k neskari: Ongi bazezirikion, urrengo ostegunean eta ordu berean juango zitzaiola berriro. Eta Julita-k baietz.

Osteguna iritxi zanean, Xinforiano urbildu zitzaion. Berez txepel xamarra genuen au, ta emaztekiari buruz txit erabea. Anaiaren aldean askoz ere gatz-gabekoa izaki, gañera, ta etzion itzpiderik ematen.

– Au aldaketa –zion berekiko Julita-k – Azken larunbateko mutil itz-jarioa nola bestelatu dan, baiezkoaren ondorioz. Ni enaiz, ba, aurreartzera ausartuko...

– Ostegun arte!

Neskak pentsatu:

– Bai agur-itx epel eta itsa...

Eta ostegunean, jakiñeko ikus-toki eta garaian, Juantxo presente. Lenengo egunean bezela itzal aundiz, baiñan txit lausengari:

Ez al dirazu antzik ematen
nik zaitutala naiago,
ai, mariñelak gau illunian
izarra baiño geiago;
nere onduan zauzkatelako
pozez zoraturik nago,
zu ikustiak alegratu nau
triste neguen lenago.

Julita, dana gogalgin, ao-xabalik:

– Zeiñen ongi gorteatzen naunan Atondo-k!

Laugarrengoan, Xinforiano-ren txanda. Itzurri lendabiziko aldian bezela; naiko esku-luze oraingoan, aatik. Zaplateko dexentea artu-ta alde egin bear izan zuen, kibil eta lotsa gorrian. Ezkongaietako kontuak!

– Berriz etorriko duk, bai, benetan maite bannau.

Etorri, etorri, etorri bai. Bixkiak Julita-ren ondo-ondotik biak batean pasa-ta kasurik ez.

– A, zirtzilla! Biotatik nor ote da «Izazu nizaz kupira» esaten zidana? Au etsipena! Ez,

gaurgero ez naiz fiyatuko edozein ez-ezagunakin. Ondotxo ikasi dut neronen lepotik. Ain engañagarri zan izan ere! Ain gustagarri zitzaizkidan aren ezpañei zerien itzak: «Zu baziñake arbola eta ni baldin banitz txoriya, nik zu ziñaken arbol artantxen egingo nuke kabiya.» Bai polita!

Eta broma ta abar, konturatu gabe joan zitzaien serbizioko urte pareta. Leendik Ondarribian buruzagi bezela egondua zen Komandantea; eta bertako Amabirjiña eguneko Alardea ongi zezagun. Orregatik edo, serbizio-epea burutu aurretik illabeteko oporraldia eman zien, illabetea bukatutakoan Pasai-ko Komandantzira ager zitezela aginduaz, kunplituen agiri paperak jasotzera.

– Marineruak, kunplittuak gera. Gora Jaungoikoa ta Lege-zarrak! –Oiuka kantari etxeratu ziran bixkiak kideko beste euskaldunekin batean.

Andik egun gutxitara, Amabirjiña-Eguna! Eta Alardea! Praka txuri eta alkandora gorritan *Gora gazteak* taldekoakin ibilli zan Xinforiano Alarde-lerrokan.

– *Titibiliti, - Titibiliti...* Gora Ama Guadalupekoa!

Eresi ta sutunpa
arratz eta atabal
Titibiliti soiñua!
Biribilketa alai.

Alardea bukatuta:

Arrats beheran
etxepeko sotoan
maite-miñ aunditsua.

Oraingoan egiz:

Leer zorian
Xinforiano erdi total;
biotza aoran ia itoa,
ezin aozkatu bere asmoa.

– Bai, Xinforiano, bai: Maite zaitut.

Juantxok etzuen parte artu Alardean. Zozokeria zerizkion.

– Burges-asmakeri polita, langille-jendeari aurrari bezela lo eragiteko; naikoa lokartuta ezpailego leendik.

Arratsalde guzian mendi aldetik ibilli zen egurasten, Juxto lagun. Onek bultzaturik, orduan erabaki zun Don Braulio-ren pastelgintza utzi, ta *Aldabe* fabrikara aldatzea.

Langille-bear aundi gorrian arkitzen zan dalako fabrika ori, eta bertako lan-saria aski betea goa zan. Alaxe, Urrille-tik aurrera, *Aldabe* tresna-olan asiko zen langille-soil gisa bedere. Xinforianok, ostera, lengo itxas-ontzian jarraitzen zuen.

Kandidok, bestalde, porrot egin zigun apaizgorako bidean. Zer zala-ta? Egizta-eziñezko ezkutapena. Ustezko Jainkoaren deia bakoitzarekiko arazoa baida. Igerpidez bada ere, zerbait baieztekoan, auxe esango nuke. Udaldian alako erakarpen lilluragarria izan oi du ondartzabazterrak. Eta Ondarribia erdi ondar da izan. Ori alde batetik. Bestenaz, erretore jaunak bere ondoan ikus nai lituzke beti apaizgaiak. Bein Parrokiko papertegi-sailketa zela, urrengo elizkizun-jarduketak zirala (ezkillak jotzea ta abar),

gero laguntz-eskeko orriak udatiarrai etxetara banatzea zala... Bai, soldatik gabeko lan asko! Beré kideko lagunak bezela nai luke bizi, ondartzara joan, igeri egin eta orrela. Bestalde, babalasto antzo luzatu ere zan golpez, eta medikutan ibillia genuen. Urte bete bitarteko zuzperraldia komeni zitziola-ta etxe aldetik geldi arazi zun osagilleak. Eta jakiña. Aitzàki txikia aski mutillak apaizgai-egoera uzteko. Sendabidean zegolarik, Juantxo-ren apalategiko zenbait liburu ere irakurri zitun ixilka ta, aien irakurtzeak irriki-marraka egin Kandido-ri.

Mutil argia izaki, eta izperlaritza gogoko zitzionez gero, Donostiko egunkari-irarkola batean billatu zioten ogi-bidea.

Ziero maitemindua zegon Xinforiano, ikusi dugunez. Beingoan, naiko bekoki beltzaz eta zakarki xamar adierazi zion amari ezkontzeko asmoa:

– Datorren Maiatza aldera ezkondu egin naidut. Arrioa ornitzeko nere irabazi guziaren bearrean nago. Emendik aurrera...

– Bai, mutil, bai, eta izan adi zorioneko. Mundu ontako legea duk. Orain, etzak pentsa gurutzerik gabe libratuko aizenik. Etxetik alde egiteko amorraturik ago. Ire kontu jar aitenean, ikasiko duk zenbatxo bear dan bizitzeko. Nork naiko dik ire ona amak baiño? Lan-zale aiz, saiatua, baiña irekoia soberaxko; eure buruaz beste ez aiz ardura. Noizpait aita baadi, oartuko aiz...

– Beti sermoika ari zatzaizkit. Nik nereea eskatzen dut, eta ez derizkiot ortan ezer txarrik dagoanik.

– Ez adi asarre. Ire onetan ari natzaik. Nork gere griña zekarkigu. Saia adi ire akatsak zuzentzen; egoskor izateak ez dik kalte baizik ekarriko. Neska ona duk Matilde; gurasoak ere zintzo askoak. Orla komeni bazaik eta alkar ondo ar baazate, Urtexar-Urteberri inguru atonduko diagu oiturazko etxe-sartze bazkaria.

– Eskerrikasko, ama. Zer egin nezake naitzen bezelakoa sortu baninduzun...

– Bai, bein baño geiagotan pentsatzen diat; aritz beraren adar izanagatik ere, aski desberdinañak zeratena seiak. Nik, ordea, zuek denak giñarrez bederen era bereko izatea naiko nitek. Bazeukat berri on bat. Andre Extefanak iretzako etxe-bizitza eskeñi zidak. Azkenportuan suertez; aste ontan il dan Erramuna neska zaarrak utzitakoa. Amalau duro eskatzen dizkik illeroko; ez duk asko gaur egunean. Zer iduritzen zaik?

– Ezinda obeto, ama. Berrogei duroko bizitza bat artzekotan giñen. Alde ederra dago; batetik portu-portuan egoki, eta bestetik arrantz-irabaziak ain aldakorrak izanik...

– Tira, ba. Guk gere aldetik eta Fraxkuk ere beretik lagunduko genizueke lotsik gabe moldatzeko eran.

* * *

Juantxo etzebillen batere gogoz eta atserik lantegi berrian. Akabatzaile-saillean, erramientak leguntzen jarri zuten. Lana alde bat artuta

aritzen zen, puska bakoitzeko ainbestean; ta soldata borobiltzekotan gogor ekin bear. Ez, etzebillen bere gogara, ta berriro pastelgintzan asteko asmoak zitun.

Juxto-k bestera zerizkion. Komunist alderdi-ra bazkide berriak erakartzeko, fabrika artako ingurua ezin ta egokiago letorkiekela-ta, bertan jarrai zezala: lankideak kezkarazten, oporketa giroa sortzen eta abar.

Lagunaren iritzira makurtu zen azkenean, eta baita geitxo nabarmendu ere azpi-lan jo koan. Bera izan zen *Aldabe* fabrikako eta beste-tako langilleak lan uztera bultzatu zituena.

Berebiziko otsa atera zun aspaldi ezkerozti-ko leenen *huelga* arek. Juantxo-ri egotzi zioten gertatuekiko erantzukizuna; bera izan baizen oporketa artako zirikalari ta eragille beiñena. Ariñik-arin Hendaya-ra jo zun iges. Polizi-jen-deak, zelatariai esker, berealako batean atze-man zuten eta preso eraman... Xinforiano, Juantxo zalakoan.

Gero ziran ixtilluak, polizi-buruaren gelara eraman zutenean. Kanpotik ere entzuten ziran Xinforianoren marruak:

– Ni ez naizela Juantxo! Ni Xinforiano nai-zela! *Yo soy gemelo! Somos iguales!*

Noizpait Ondarribiko Udal-etxera deitu zu-ten urrutizkiñez, eta baietz, bixkiak zirela, alka-rren artean bereiz-eziñak. Gauza argitu ondo-ren, aske utzi zuten. Egitazko txoria iges joana zen ordurako.

Hendayaratu-ala Etchola-baita-ra jo zun zuzenean. Nora, ba? Albait lasterren eskutitz bat bidali zion amari: ez kezkatzeko, espetxeko itzala baiño naiago zula askatasun-argia, neurriak artuak zeuzkala-ta egon zedilla lasai.

Toulouse-ko komunist biltoki nagusira urbildu zan Buru-batzarrekoai laguntza-eske; ain xuxen aietako bat Jauntxo berak mugatik marroz iragazia izaki.

Itxoin-aldi luzearen ondoren, milla galdera egin zizkioten. Dana zabal-zabal, *xero por xero* zien aitortu.

Bere buruari aundi-iritzirik sartu bazan, berlarriak apal apal eginda aterako zan. Alako urrotz parrastadarik!

– Koldar alaena! Iraultzak orrela irabazten dirala uste aal dek? Lendabiziko zafraldikoan iges eginda? Ire eginkizuna an dek an, ez emen. Egizak fabore, bereala Irun-a itzultzekoa. Izkutan egin dezakek lan, egunez kukuturik edo itxur-aldaturik; Irun-en ezpada beste nunbait; uri nagusiren batean obe; an, ordea, ez emen. Eta esen batean obe; an, ordea, ez emen. Eta espetxeratuko baintuteke, gertu ortarako ere. Eta il bear bada ere, il. Aintzagarriagorik bai ote duk ezer, bizia iraultzagatik ematea baiño?

Itzik gabe gelditu zan kuzkurtuta.

– Bai, bai. Berriz ara joango naiz.

– Bai, ba. Gure arerioak nolatan garaitu genitzakek bestela? Zorigaitzetan gotortzen duk bat, nekearen nekez sendotu egiten gaituk. Eta auxe ere kontuan euki zak: gure alderdi-barrutian batzorde nagusiaren esku zeudek beti as-

mo-azterpen eta antolaketa guziak. Nork bere kabuz, ezer ez. Entzuten al dek? Batzar-garaian izango dek aukera ire kezak eta iritziak azaltzeko; bitartean, beltza txuria dala esaten ba dittek ere, ixil-ixilla aurrera! Toki onean egongo ginatekek!

– Bai, bai, ara noa ta aleginduko naiz zuek ordena diezadazuen guzia egiten.

– Orrela bearko; gure laguntzik ez dek izango; gureztat desertore bat besterik ez aiz!

Tripak jaten irten zan. Leen ere ixillik egoten bazekin, eta nekez eta pakez bederen jasan al zitun ango akullakadak.

– Ez *franco* txar bat eskeñi ere biderako... Iraultzak ez dirala iges eginda irabazten... Errex esaten dik. Bera zergatik ez duk ara juaten? Bai, beste asko bezela, ori ere etxeko leiotik balientia.

Atzetik jarraitu zion leendik ezaguna zun burkideak. Eskupeko bat eman ere zion, eta Toulouse-tik Bayonne-ra garraioketan zijoan kamionero baten esku jarri, bidekoa al bait gutxien kostat zekion.

Berriz ere Etchola-baita-ra. Ura zuten beren *embajada* Atondotarrak. Gertatuaren berri eman zion Peillo-ri.

– Ondarribira noa.

– Bea, mutil. Zendako? Chefa buruberotzailleak erran duela-ta sarrastegira? Ago pixkat.

Praxkuri deitu zion Paris-a. Irugarren operazioa egari berria, senda-bidean zegon oraindik

luzaroko. Sekula etzen belaunetik bear bezela jarriko; gerora bere esku-gain, makulu-laguntzik gabe ibilli al izateko, gazterik egin nai zitun alegiñak. Eta, esperantza bazeukan.

– Eskarrikasko, lagun zar. Emaiok biderakoa, ta datorrela onara. Frantzi aldetik dabillen ezkerro, esaiok ni ikustera etor dedilla; poz aundia emango didala.

– Erraiok eorrek; emen zegok nere ondoan.

– Kaixo, Juantxo!

– Kaixo, anai!

– Ik ikusi. Joango aiz gero, nai baduk; orain beintzat ator egun batzuk nerekin igarotzera. Ez duk ainbesteko okerra egin, gizona. Agian joan aiteke orain bertan beste aldera. Nere iritzian ez ukek joan bear. Orko berriak jakiteko gogo bizia zeukat. Esan bezela, ire zai natxiok. Olako egokiera izaki-ta Paris ezagutu gabe gelditu... Biar arte!

– Bai, biar arte, Praxku:

* * *

Alkar gogotsu besarkatu zutela esan bearrik ez dago. Dana galdera zitzaion Praxku.

– Utzitzak orain kontu oriek. Nola daude aita ta ama? Zer ziok Xinforiano-k bizi modu berrian? Boda egunean ondo ibilli aal ziñaten? Nik egun txarra pasa nian, motell, zuek danak gogoan. Kosteak Terexari deitu nioken urrutizkiñez Ahmedadab-a; arreba gaxoari poz ematearren, badakik. Gutxienez sei minutu egin ge-

nizkian alkar-izketan. Oso konten zegok. Kandido, zer? Egunero etxerutzen al dek?

– Bai, gaueko lana bukatutakoan, egunkari-pillak karreaketan ibiltzen dan furgonetan etortzen dek. Periodista-ogibidea azkenekoa omen duk. Gertariak eta izanak diran bezela ezin esan; egiak erdixka edo ta ez osoki azaltzea, gezur esatea baino askoz kaltegarriagoa omen. Etzebilek ain konten.

– Ofizio guztiak bazeukatek beren aurrea ta atzea, alde gaina ta alde azpia. Iñor ezagutzen ote duk bere bizibideari makurrik arkitzen ez dionik? Nik, ez.

– Ni ere ortan niok.

– Eta gauza guztiekin gertatzen orrela. Giarrenen alboan an zeukatek urdaia. Eorrek ere proatu duk azken aldian; ez?

– Alde ederra zegok! Oso bestelako zerak dituk ogibidea ta ideen burruka. Terexa ere bere burutapen eta egingogoari emana...

– To! Ain xuxen, orra or bat bere ofizioari aitzakirik atzematen ez diona. Ikusiko baukek zeñen konten bizi dan... Aiek egun goxoak pasa genizkien Hue-n alkarrekin! Alderdi ura naspil bizian zegok. Eskerrak India-ra aldatu dutela. Bon! eta ik ze asmo dituk?

– Bilbao aldera joango ote naizen edo...

– Obe. Irun-Ondarrabira ez beintzat. Etzerizkiot batere ondo ire biurrikerien erruak Xinforianok ordaintzea.

Irripar murrizta jaio zitzaion ezpaignetan Juantxo-ri.

– Beazak. Hospitaleko zuzendariak i illabete bitartean nerekin emen eukitzeko baimena eman zidak. Beraz, elkarrekin goxatuko diagu; bidenabar, zenbait filosofigai azterkatuko genizkikek. Asarretu gabe, e? A, anai! Aspaldian gauza asko ikusi-ikasi dizkiat. Ni ez nijoak iñoren aukeramenen kontra.

– Ez ta ni ere. Nik kapitalista aundi orien portaera ez diat ondo ikusten. Munduko ondasunak etzeudek bear bezela banatuak.

– Ala dek, zoritxarrez. Benetako berdintasunik egiterik etzeok mundu onetan. Eriotza dek guztiok berdinkatzen gatxeon bakar-bakarra.

– Ez didak esango guztioi il-zori berdiña dagokigunik.

– Ez, aatik. Ezagutu dizkiat aberats askoak, gorriak eta beltzak ikusten azken-atsa eman eziñik. Eta beartsu aunitz txoritxoan antzo goxo-goxo iltzen.

– Utz zak eriotza alde bat; bizi bearrak ematen ziguk buruausterik aski. Dena aberats-gizar-tearen erruagatik!

– Bai, bai. Nork nundik nor nola izurratu gabiltzak, pobre ta aberats joku berean. Maitasun falta dek, maitasun falta. Egiz alkar maitatu ezkeru elitzake zailla zuzentasunaren erregetza. Zer derizkiok?

– Ni baiño ikasiagoa aiz-ta, ixillik egon bear ko.

– Ixillik, zergatik? Ez, motell. Iritziak iritzi, guztiok alkar errespetatzen jakin bear diagu. Ortik aurrera, ba... Beazak: ukana eta izana bi

zertsu dituk. Materialistak *ukana* zeukatek elburutzat; eta mueta askotako materialista-jendea bizi gaituk munduan. Al izan ezkerro, beti egi-bidetik, elburu zintzo batera iritxi bear diagu. Gizona ez dek abere; ortan datza ez-berdintasuna. Batzuek *Estatua* ipintzen ditek Jutzitziaren aurretik. Gaizki egiña. Zenbat oker dakarzkin jokabide orrek. Besteak, berriz, errelijioa beti aoan, nai gaizto egiteko. Zein kaltegarri sinismenarentzat!

Atsegin-bitsetan zebillen Juantxo Paris aldetik. Museu, Erakustoki ta Edertiari zegozkienak txit gogoko zituen, batez ere *Louvre* ta *Mussée del Homme*. Eta bertako bizikera ez gutxiago. Praxkuren bitartekotasunari esker, entzute aundiko pastelgintza batean artu zuten laguntzaille gisa. Erara zebillen. Eta bazedukan ziorik aski: lan-sari ederra, tratu ezinda ohea, lankide giza-bidetsuak, bere ofizioa obetzeko egokiera...

— Oraingoz emen geldituko nauk. Egunen batez gure alderdiko gora berak zuzen balitez, orduan joan nintekek. Ori gero ikusiko.

Asko poztu ziran gurasoak eta erabat lasaitu Etcholabaita-koen bidez semearen berriak ikasi zituztenean.

— Dagola bertan; ortara ez dedilla etorri beintzat.

Bai-baitzekiten aurre xamar ibillia zena iraultz-ekintzetan.

* * *

Ezeren arrenkurarik gabe Xinforiano, gogo betez bere bizi-molde berrian. Aur bidetan du emaztea. Andre goxoaren aldamenean badijoa poliki poliki zentzutzen, liraintzen, izakeraz aldatzen: lengo zikoitzasuna gutxitu ere bide zaio. Biotz-zabal, eraman aundiko emakumea da Matilde. Gaizki egiña on-egitearekin ordaintzea bezelakorik ez baida nornai eztiarazteko. A! Beazunaren orde z gozoa jariongo bagenu! Istu minkatza, irentsi bear-ta ere, eztizkoa ttustaturko bagenu! Besterik litzake gure mundua.

Xinforiano etzen gizatxarra, bai zera! Moko-zorrotz, setatsu, eraman gutxiko, marmaratia bai, baiña gaiztoa iñolatan ez. Arteka kazketaldiak izaten zituala, orixe.

Beltza gertatu zen orain aurretik. Urri-aldi larria zeramaten arrantzaleak luzaroxko. Bizitzeko asko bear, ta irabazia eskax. Lengo zerge-ran antxo-erakuskiñ ederra kaieratu zuten zenbait txalupek. Baxo aldetik (*Oeste*) ibilliak ziran arrantzan. *Olearso* ontzia ipar-aldean aritu-ta utsik, ezer gabe etorri. Urrengo egunean berdiñ. *Olearso*-koak ez beste guztiak arrantza polita. Xinforiano-ren asarrea 'etzen nolanaikoa. Etxean asazkatu zun bere erresumiña, ardatzean ta marmarika. Irugarren eguna eldu zen, ta beste txalupa guztiak baxo-aldera. *Olearso*, aldiz, berriro Iparraruntz. Purrustaka asi zen latzki Xinforiano, patroiak runboa artu orduko.

— Zer, goseak il bear ote dugu edo zer? Gure itzak ez al du balio? Batek-bakarrak nai dezana egin bear ote beste guztiok?

Txutxuputxu ta marmarketa ontzi barruan. Beingoan, patroiarari arpegi arturik, asarre bizian jaurti zion Xinforianok:

– Batek nai duena egin bear al dugu besteak?

– Nerekin konten ez dagona dijoala kanpora!!

Etzuen bi aldiz esan bearrik izan. Bere burua aborratik itxasora bota zun Xinforianok.

Txalupa aurrera bere bidean. Ordu erdia igarro, ta patroyak itzultzeko asmorik ez.

– Gizona, gizona. Buelta emazu...

– Aski zian bere burua ez botzea!!

Eta itxas-ontzia aurrera. Ordu bete, ta... aintzina. Marmarra ugaritzen...

– Ixo! Nork agintzen du emen?

Ordu pare bat igaroxea, ta berdin. Barkoa bere martxan aurrera...

– Biño, gizona! Egin zazu buelta! –batek.

– Zu etzera, ba, orren gaixtoa –besteak.

– Burua galdu al duzu, edo zer? –urliak.

– Ze kulpa du bere andreak, Xinforiano kas-kagogorra bada? Aur egitekoa, gaiñera,...

Zer entzun du? «Ze kulpa du bere andreak»... bertatik aldatu zun runboa, ta motor dana emana, etxerako bidean jarri itxas-ontzia.

Xinforiano ito bai-ezik burruka gorrian. Asieran, artean indarrean zegolarik, nekez baiña kendu al zitun gomazko botak eta galtza-zirak; zenbait besatara azkar eman ere, baiña al-

perreko zirala ikusirik, ortzak-gora jarri zan beso-zangoak zabalik, errara igerika.

Egoera artan ere nekatu egiten bada-ta, berriro besatara batzuk. Orduan nekatzenago, orde. Kaskagogorra bazan, ederkitxo ari zen erintzen.

Ia, ia kordegabeturik zegon. Alako pizkorraldi batean familiaz, emazteaz oroitu:

– Ai, au lana! Zer egin dut! Ama Guadalupeko maitia! Biguin ezazu Kaitano, arren! Erruki zakidala!

Mintzo goxo baten ikutua nabaitu zun belarri ertzean:

– Itxeki ezazu, itxeki!

Bearrik ere itxeki, alajainkoa! Ito urreurrean arkitzen zan. Etzuen ezer entzun, ez oiu ez motor-otsik. Kroka batez atzi zuten galtz anpatuetatik, eta zalabardo aundiaz baliaturik kubiarta gainera jaso. Ur-parrastada ugaria bota zun sabel-zorroa zanpatu ziotenean.

Itotzera zijoan orduxean salbatu, alabearrez. Sarepilloaren gañean etzanik utzi zuten perlataz ongi estalia. Ordu erdi gerora, etxerako bandan, biurtu zitzaion konortea.

– Au lana! Ia egin niken! Ia egin niken!

Besterik etzun esaten:

– Au lana! Ia egin niken!

Kamamillo bero pixkat artu-ala xuspertu zan era bat. Bitartean, Kaitano aren ondotik alde egin gabe, egiñaz ziero damutua.

– Bera bezin kaskagogorra nauk ni ere!

– Barkatu, Kaitano, barkatu!

– Barkatu, Xinforiano, barkatu!

Orrela gertatzen da maiz bi setatsuk alkarri oldar dagiotenean. Amore eman baiño lenago, il! Astakeri galanta!

* * *

Aipatutako gertari latzgarriak onik ekarriko zion Xinforiano-ri. Geroztik aurrera gizatsuago, erabidezkoago, adikorrago zagerren.

Juantxo ere zerbait biurtu bide zan. Lenengoz Toulousseko gertaerak errexiturik utzi zun, eta gero Paris-ko egonaldiak asko eraldatu.

Kandido, soldauzka egiten. Bere oldez. *Boluntario* antzo jua dalako, Donostian bertan gelditzeko autamena izan du; orrela, serbizioa ta periodista-lana biak elkar dezazke.

Luixa, xintxo xintxo beti bezela, ikas-urte-tan aurrera.

Paris-eko bizi-giroan etsitzen ez-eta azke-nean Hendaya-ra etorri zen Praxku. Oraiz len *Armada*-tik aldendu-ta zegon erabat. Gerrateko merezimenduen saritzat *Légion d'Honneur*-ko zaldun izendatu zuten eta Komandante-lerrora goratu. Gudari-mail orren tokamena zegokion bizi-bitarteko. Belaun-jokoa etzizaion arras leneratu. Naiz ta nekez, gai da esku-makillik gabe ibiltzeko; ala ere naiago du orren laguntza.

Semea Hendaya-ra jatxi bezin laister atera zuten pasaportea senar-emazteak. Beraz, noiz-nai ikusten zuten alkar.

Goi-ateak jo ezkeru, ala naita, eskuratuko zukean aberriratzeko pasaporte-agiria Praxkuk, baina ez.

– Joan nadinean eskubide osoz joango naiz.

Batzuen ustez aguro itzuliko zan bere tentura Españaiko egoera. Praxku etzen iritzi ortakoa. España bere onera baino len, urak bide egingo zula zerizkion.

Etsetxo bat erosiko zun, bada, Ondarraitzu inguruan, eta gauzak argiagotu artean bertan biziko. Bestalde, etzun mutil-zaar geratzeko asmorik. Ogei ta zortzi urteko mutillentzat, izan ere, zein erabaki oberik?

– Ondarribitarra artu bear diat, bai arraio pola!

Praxkuk bultza-ta, eta nexkak ere artarako gogoaz zeukan ezkeru, sendakintza-ikasketak egingo zitun Luixak. Urrengo illabete asieran Terexa-ren ordenak Zaragoza-n zeukan Ikastetxera joatekoa zen.

Aldapa gora zetorkion Anttoni-ri alaba txikiagandik banandu bearra.

Alako batean oldozpenetan murgildu zaigu.

– Txori-kumeak, bein lumatu ezkeru, bakoitza bere bidetik joan oi dira. Guk ere ezin, ba, gure aurrak beti gere magalean eduki. Alaxe da bizitza-legea. Joxe Mari ta biok osatu dugun aritz-ondoak zazpi adar eman ditu. Koxme gaxoa! Aize-golpe txarrak ume-umetan jotako adarra! Zure ezur-mamiaren aztarrenak bizi-bizirik diraute oraino ere biotz muinetan. Zorio-

nean zaude. Pintto-k ez du lengo alaitasunik. Zuk aldegiñez gero, atsekabez bizi dala dirudi. Eta laister, Luisa joan dadinean, zer egin behar dut nik? Au lana! Pintto bakarrik nere ondoan? Ez orixe!

Orrelako estualditan bazekien nun atsedean arkitu. Elizara joan zan. Berealaxe iraungi ziran pentsamentu-lanbroak, eta zerutar giroan bildu zan gozoro. Beste gisara ikusten zituan orain gauzak beren luze-zabalean, eta abots legun bat entzuten zuala iduritu zitzaion. Apika Terexa ere sagrarioaren aurrean arkitzen zan une ar-tantxe. India urrutian zegoan alaba maitea ari zitzaion itz-ixilka Jesus-en bitartez:

— Zuaitz yori, emankorra dirudizu, ama. Ekaitzek gogor astindutako zuaitza. Aize-erauntsiak zenbat iñarrostuago, ainbat tenkor-tuago, errotuagoa izan oi da zuaitz-ondoa. Eta aritz-ekurretik aritz arbola antzo, zuk eta aitak osatu zenuten aritz-ondoak zazpi adar eman ditu; elkar bestelakoak izanagatik ere, zuengan erroztuak danak, danak arizkiak: Atondotarrak.

Praxku! Ori da gizona! Bere urrezko biotza beti zabal-zabalik, besadar ostotsu iduri, guztioi itzala eskeinki, edozeinentzat eredugarri!

Beraren pareko zaitugu zu ere, Terexa! Zauden lekuan eskeintzen duzu itzal eta babesik! O, zenbait lagundu didazun, alabatxo, ene eguneroko burrukan! Eskerrikasko! Xinforiano ta Juantxo: adar-ainzkak, noski!

Bixkien berezitasun bakana gogoratu-ala irriño bat erne zitzaion.

– Poliki poliki badijoa utsak orrazten bata; zerbait bide-oneratu zaigu bestea; garak berak osoki zentzaraziko ditu biak. Kandidorena ikusita zegon. Sen oneko mutilla da-ta, iñolako aize txarrek ez du lardaskatuko onezkero. Luixa, arbolaren adazka xamurrena. Etxetik aldegin dezanean, zer egingo duk?

– Galdeiozu Praxku-ri –erantzun zion erdiametsezko mintzo lilluragarriak.

Iduki-eziñezko pozak egaldarazi zun Hendaya-ra. Telepati eragiña izango zen itxuratik.

– Zure zai negoen, ama. Barrenak ematen zidan etorriko ziñala. Ortxe goiko enparantzako aritzaren oiñean nengoen Ondarribiko bistak artzen. Zazpi adar ditu, ain xuxen aritzak; adar bat, orratio, ebakia. Koxmetzat jo dut. Nere as-mamenari nagokala, gure familiaren iruditzat artu dut dalako aritza. Zuaitz-gerriaren antzera zerate zuek ere, aita-ama: sendiaren errondoa; gu, aldiz, seme-alabok errondo-urkilatik sortutako adarrak. Aritz-adarren arabera, zazpi gu ere. Eta bata, Koxme-ren iduri, ondikotz!, zarrastatua. Beingoan, barne-dei bat entzun dut garbi-garbi: adarrik gabeko zuaitzak etzeukak bizitzerik. Ara, ba, zer pentsatu dedan: Aita oraino gazterik dago-ta etzaio on lana erabat uztea. Arrastero-bizitza, ordea, neketsua da, ta utzi egin bear luke. *Motora* koskor bat erosiko diot, emen Bidasoa bazterrean nekerik gabe ta josta-jostari arrantz egin dezan. Txipiroyi-garaian aski du Kontxara joatea; elkarrekin joango ere gera noizbeinetan. Orrela etzera bakarrik geldituko. Aritzaren erroak ez dire igartuko.

– Besteren kontu ez gera biziko, ba...

– Danok bizi gera besteren kontu. Pamili bat osatzen dugu, ta danok arduratuko gera elkarri laguntzen. Seme-alabok aritz-adar-ekurtsu bezela izango gaitzakezue gauroz: esker onaren zitu-emaile.

* * *

Bidasoa-ertzean, Ondarraizu-ko bide bazterrean erosi zun Praxkuk etxe apaiña. Bere baratzemutur, lorategi polit, autotegi ta beste, aukerakoa. *Terexa-baita* ipiñi zion izenez. Amabirjiña egunean badeinkatu zuten: Don Migel-ek. Egun artako goiz-Alarde-erronkan ibilli ondoren, bere praka txuri eta alkandora gorritan agertu zan Xinforiano. Paris-etik bereziki jaxia Juantxo, ta Etchola-baita-ko senar-emazteak emaikide ziran. Pesta ederra antolatu zuten. Terexa bakarrik falta. Falta? Antxe zegon guztien biotz muiñ-muiñean...

– *Alo, alo*. Nor zera, Terexa?

– Bai, Or zerate danak?

– Bai, adierazi nizunez, danok biltzeko zoriona ukan dugu.

– Au poza! Ia-ia... pixkat... Oo! Parrokiko kanpaiak... Ederki entzuten ditut. Au gozame-na! Esan, esan ama-ri jartzeko.

– Ama, ama! Aita, aita!

Bat banaka, denak jarri ziran. Pintto ere erakarri zuten telefonu-ondora. Entzutallua bela-

rrira ipiñi zioten, eta Terexa-ren mintzoa nabaitu zuneko, *kxau kxau* egin zun samin-doiñu un-kigarriz.

— Koxme, Koxme! —deika ari zela zirudin.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: Gabon, Au ostatuba!, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. *F. Apalategi*: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. *Pepe Artola*: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. *P. M. Urruzuno*: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. *T. Alzaga*: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. *R. Azkarate*: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. *A. Apaolaza*: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. *B. Iraola*: Oroitzak. (*Aitua*).
10. Errege eguneko bertso sayoa. (*Aitua*).
11. *P. Larzabal*: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. *Bilintx*: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. *M. Izeta*: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. *P. Larzabal*: Iru ziren. (*Aitua*).
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I. (*Aitua*).
16. *A. M.^a Zabala*: Gabon gau bat. (*Aitua*).
17. *A. M.^a Zabala*: Malentxo alargun! (*Aitua*).
- 18-19. *A. Zavala*: Txirrita. (*Aitua*).
20. *F. Goñi*: Lurdesko gertaerak. (*Aitua*).
21. *P. Larzabal*: Herriko bōzak. (*Aitua*).
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962). (*Aitua*).
23. Aizkolariak. (*Aitua*).
24. *F. Imaz*: Bertso guziak. (*Aitua*).
25. *A. P. Iturriaga*: Jolasak. (*Aitua*).
26. *A. M.^a Zabala*, *A. Larraitz*, *Mir*: Periyaren zalapartak. (*Aitua*).
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (*Aitua*).
28. *B. A. Mogel*: Ipui onak. (*Aitua*).

29. *T. Alzaga*: Burruntziya. (*Aitua*).
30. *G. Anduaga*: Egunsentiko txoria. (*Aitua*).
31. *M. Soroa*: Baratzen. (*Aitua*).
32. *M. Elicegui, A. Zavala*: Pello Errotaren bizitza. (*Aitua*).
33. *M. Elizegui, A. Zavala*: Pello Errotak jarritako bertsoak. (*Aitua*).
34. *P. Larzabal*: Senpere-n gertatua. (*Aitua*).
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: Festara. (*Aitua*).
37. *A. Cardaberaz*: Euskeraren berri onak. (*Aitua*).
38. *S. Salaverria*: Neronek tirako nizkin. (*Aitua*).
39. *Bertsolariak*: Amar urteko bertso-paperak. (*Aitua*).
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa. (*Aitua*).
42. *Uztapide*: Noizbait. (*Aitua*).
43. *Bertsolari-txapelketa* (1-I-1965). (*Aitua*).
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu. (*Aitua*).
- 45-46. *J. M. Satrustegui*: Bordel bertsolaria. (*Aitua*).
47. *J. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaarra. (*Aitua*).
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala. (*Aitua*).
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak. (*Aitua*).
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma. (*Aitua*).
54. *A. Zavala*: Pernando Amezketarra bertsolaria. (*Aitua*).
55. *Basarri*: Laugarren txinpartak. (*Aitua*).
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsolaria. (*Aitua*).
- 57-58. *C. Beobide*. Asis'ko Lorea. (*Aitua*).
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsolaria. (*Aitua*).
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (*Aitua*).
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsolaria. (*Aitua*).
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria. (*Aitua*).
- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak. (*Aitua*).
65. *J. M. Satrustegui*: Luzaide'ko kantiak. (*Aitua*).
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari. (*Aitua*).
67. *Bertsolari-txapelketa* (11-VI-1967). (*Aitua*).
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak. (*Aitua*).
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari. (*Aitua*).
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak. (*Aitua*).
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak. (*Aitua*).
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunak bertsoak. (*Aitua*).

- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan María Zubizarreta bertsolaria. (*Aitua*).
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika eta Ugalde bertsolariak. (*Aitua*).
84. *M. Matxain*: Uste gabean. (*Aitua*).
85. *Xalbador*: Ezin bertzean. (*Aitua*).
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.
- 88-89-90 *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria.
91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria. (*Aitua*).
92. *I. Alkain*. - *A. Zavala*: Alkain aita-emeak. (*Aitua*).
93. *A. Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak. (*Aitua*).
94. *A. Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak. (*Aitua*).
- 95-96. *A. Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. *A. Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari. (*Aitua*).
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka. (*Aitua*).
- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *José Inazio Etxeberria*: Mendi gañetik. (*Aitua*).
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela. - Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua*).
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria: (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsularia.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-aria, 1972. (*Aitua*).
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak. (*Aitua*).
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria. (*Aitua*).
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*).
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*).
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*).
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: Zapirain anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.

134. *J.M. Arrizabalo - A. Zavala*: Baso-mutillak.
135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
- 137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140. *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141. *Bertsolariak*: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980-I-6).
142. *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (I).
144. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (II).
145. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (III).
146. *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147. *Ataño*: Txori.
148. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (I).
149. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (II).
150. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (III).
151. *Mattin Treku*: Etxe xokotik kantari.
152. *Xalbador*: Herria gogoan.
153. *J. K. Zapirain, Ataño*: Zure Pasio Santua. Asis'ko San Frantziskoren bizitza.
154. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (I).
155. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (II).
156. *F. Artola, Bordari, R. Artola*: Aritz beraren adarrak.

